# Goienkaria

2008ko ekainaren 20a > Egubakoitza > VIII. urtea > 337 zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Euskararen erabilera eta herritarren atxikimenduak indartu behar ditugu"

**Eneko Oregi**
HAEEko kidea
> 09



**G2a** **Biblioporrak gida dago liburutegi publikoetan** > 43

**ARRASATE**
**Pedro Biteri zena gogoratzeko ekintzak antolatu dituzte** > 20

**BERGARA**
**Astelehenean, 58,6 litro ur bota zuen metro koadroko** > 24

**ARETXABALETA**
**Kurtzebarriko ikasleek egindako lanak Guggenheimen daude** > 44




**AURKEZPENA** Martitzenean aurkeztu zuten Ino Udaletxera herri ekimena.

ARGAZKI PRESS

**ARRASATE** > INO UDALETXERA EKIMENA

## Galparsoro aske uzteko eskatzeko ekimena

**DENETARIKOAK** Kolore askotako herritarrak batu dira: dendariak, politikariak, kultura arlokoak...

**"INDARTSU"** Ino Galparsoro "ondo eta indartsu" dagoela dio familiak; gutunak jasotzen ere hasi da > 18

**KIROLA** > ZIKLISMOA

## 'Quebranta' proban, 160 ibarreko

Iaz baino ibarreko gehiago egongo dira bihar Huescan > 40-41

**EKONOMIA** > ENPRESA

## Microsoft iritsi da Garaiara

Arrasateko zentroak Europan erreferente izan nahi du > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

**JENDARTEA** > GIPUZKOA AURRERA

## Bost erakundek elkarlanean aurre egingo diote krisiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Merkataritza ganberak, Adegik, Mondragon Taldeak eta Kutxak bat egin dute Gipuzkoa Aurrera taldea sortzeko.

Gipuzkoa Aurreraren helburu nagusiak dira egungo egoera ekonomikoa aztertzea; lurraldeko erronka estrategikoak sustatzea; eta proiektu berriak bilatzeko lan egitea. Horretarako hiru lantalde eratu dituzte.

Besteak beste erakundeek nahi dute gaur egun bizi dugun krisi egoeratik indarrez aurre egitea elkarlanean oinarrituta beti ere. > 02-03






Jose Mari Aldekoa (Mondragon Taldea), Xabier Iturbe (Kutxa), Markel Olano (Foru Aldundia), Eduardo Zubiaurre (Adegi) eta Jose Mari Etxarri (Merkataritza Ganbera) Diputazioan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**JENDARTEA** > GIPUZKOA AURRERA TALDEA

# Erronka estrategikoak batera sustatzeko taldea

**PARTAIDEAK** Gipuzkoako Foru Aldundiak, Merkataritza Ganberak, Adegik, Mondragon Taldeak eta Kutxak osatu dute Gipuzkoa Aurrera

**LANKIDETZA** Aurrerakuntza soziala eta ekonomikoa bermatzea dira helburuak iritzi ezberdinen gainetik elkarlana bultzatuz

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Merkataritza Ganberak, Adegik, Mondragon Taldeak eta Kutxak bat egin dute Gipuzkoa Aurrera taldea osatzeko. Helburua da indarrak batzea eta elkarlanean erronka estrategikoak bultzatzea.

Erakunde horietako ordezkariek aurkeztu dute taldea asteon. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa planaren helburuei aurre egiteko taldean lan egitearen beharra azpimarratu zuen. "Gipuzkoak etorkizun estrategiko handiak ditu aurrez aurre, ezinbestean erakundeen arteko lankidetzaz eta gizartearen ordezkaritza duten taldeen arteko elkarlanaz bideratu beharrekoak. Gure aurrerakuntza soziala eta ekonomikoa bermatu ahal izateko lidergo partekatua ezinbestekoa da".

Bere esanetan, "alderdien arteko iritzi ezberdinek eta eztabaida politikoek ezin dute oztopo izan etorkizuna baldintzatzen duten erronka nagusiei begira akordioak lortzeko".

Azpimarratu zuen Gipuzkoa Aurrera ez dela gogoeta talde hutsa baizik eta talde eraginkorra Gipuzkoarekin zerikusia duten gaietan modu positiboan eragin nahi duena. Horretarako taldearen hiru helburu nagusiak zein diren ere azaldu zuen Olanok: egoera ekonomikoaren diagnosia egitea eta jarduerak proposatzea; Gipuzkoarendako beharrezkoak diren proiektu estrategikoak sustatzea; eta Gipuzkoa lurralde lehiakorrenekin parekatzeko erronka berriak bilatzea.

Hiru helburu horiek bideratzeko, hiru lantalde osatu dituzte eta laugarrena sortzeko bidean dira, estrategia soziala helburu izango duena, hain zuzen ere.

**ENPRESEN LEHIAKORTASUNA**

Taldea osatzen duten gainontzeko erakundeetako ordezkariek hartu zuten hitza gero. Gipuzkoa Aurrera ekimenarekin zergatik bat egin duten azaltzeaz gain, euren lantaldearen berri ere eman zuten.

Adegiko presidente Eduardo Zubiaurreren esanetan, "hau ez da lehen aldia Gipuzkoako ekonomiak eta enpresek zailtasunei aurre egiten dietena, eta ez da azkena izango. Badakigu Gipuzkoako enpresa sareak lehiakorra izaten jarraitzeko eta gure gizartearen ongizate maila mantentzeko nahikoa baliabide badagoela: finantzarioak, giza baliabideak, fiskalak, azpiegiturak…"

"Enpresak gertu daude gizartearekin elkarlanean jarduteko, diagnosian oinarrituta eta adostutako neurriekin. Gipuzkoak nahi du, ahal du eta egingo du", esan zuen Zubiaurrek.

Egoera ekonomikoa aztertzea dagokio Adegi buru duen lantaldeari eta, horretarako, pauso hauek jarraituko dituzte: Gipuzkoako ekonomia eta enpresen egoeraren diagnosi komuna egin, unean uneko arrisku eta arazo ekonomikoez gain, epe luzera begira ekonomiaren eta lehiakortasunaren ikuspegitik Gipuzkoak dituen erronka estrategikoak aztertuz; diagnositik ondorioztatutako erronkei aurre egiteko neurriak zehaztu eta proposatu; eta, azkenik, lantalde horrek gizartea sentsibilizatzea izango du helburu.

**PROIEKTUAK SUSTATZEA**

Gipuzkoako Merkataritza Ganberako presidente Jose Mari Etxarrik berba egin zuen Mondragon Taldearekin eta Foru Aldundiarekin batera proiektu estrategikoak bultzatzeko taldeaz. "Proiektuei erraztasunak ematea eta proiektuak sustatzea izango da asmo nagusia; bai egungo beharrei erantzuten dieten proiektuak, baita etorkizuneko beharrei erantzungo dietenak ere".

Proiektuak hiru taldetan banatu zituen: Berrikuntza eta industria bikaintasuna; azpiegitura inteligenteak; eta mugikortasuna.

"Mugikortasunaren arloan, lan egin behar dugu konexioak garatzen eta azpiegiturak hobetzen sarrera-irteerak errazteko, ez soilik pertsonenak, baita merkantzienak ere; era berean, Gipuzkoa barruko konexioak errazteko. Hori guztia egingo dugu ahaztu gabe jasangarritasuna eta gipuzkoarren bizitza kalitatea. Arlo horretan azpimarratu behar dira AHT, aireportua, Pasaiako portua eta Jaizkibelgo korridorea.

AHT, esaterako, etorkizuneko aukera da, lurralde ikuspegi berri bat, azkartasuna, segurtasuna, modernotasuna, ingurumen-eragina gutxitzea, hegazkinaren alternatiba eta garraio bide solidarioa", esan zuen Etxarrik.

Orain proiektu estrategikoak aztertzen dihardute. gero jarduera zehatzak egiteko. Etxarriren esanetan, "ez da borondate kontua: plan neurgarriak egingo ditugu proiektu estrategikoak egi bihurtzeko ahalik eta azkarren".

**ERRONKA BERRIEN BILA**

Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoak ere eman zituen Mondragon Gipuzkoa Aurrera taldean egoteko arrazoiak. "Taldean, lidergo partekatuarekin eta norberaren interesen gainetik, lan egiteko planteamendua bat dator gure filosofiarekin eta kooperatiben esperientziarekin", esan zuen Aldekoak. Bestalde, Mondragonek enpresa arloan duen pisua ere azpimarratu zuen. Honakoa ere esan zuen: "Gipuzkoak behar du agente guztien bateratze-lana etorkizuneko gakoak zein diren identifikatzeko, mundura begiratu eta batera lan eginez Gipuzkoako bizitza maila mantentzeko eta egun duen garapen mailari eusteko".

Proiektu estrategiko berriak bilatzea dagokio Mondragoni koordinatzea egokitu zaion taldeari. Aldekoaren esanetan, "gurea talderik zabalena edo zehaztasun gutxien duena da". Aldekoak berak azaldu zuen lehenengo formak, bideak eta mekanismoak identifikatuko dituztela etorkizuneko erronkak zehazteko. Gero, aukeraketa irizpideak zehaztu eta proiekturik garrantzitsuenak zerrendatu ostean, batzuei lehentasuna emango diete interesen eta bideragarritasunaren arabera eta, azkenik, proiektuok garatzeko pausoak zehaztuko dituzte.

**"Etorkizuneko gakoak zeintzuk diren jakiteko, mundura begiratu eta bizitza mailari eta garapen mailari eusteko, bateratze-lana behar du Gipuzkoak"**

### GIPUZKOA AURRERA

**> KIDEAK**
Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak, Adegik, Mondragon Taldeak eta Kutxak osatu dute ekimena.

**> HELBURUAK**
Taldearen helburu nagusiak hiru dira: egoera ekonomikoaren gaineko diagnosia egitea eta beharrezkoak diren jarduerak proposatzea; Gipuzkoaren onerako proiektu estrategikoak sustatzea; eta Gipuzkoa beste lurralde lehiakorrekin parekatzeko erronka berriak bilatzea.

**> LANTALDEAK**
Hiru lantalde izango dira:
- Ekonomikoa: Adegik koordinatu eta Kutxak eta Diputazioak osatua.
- Proiektu estrategikoak sustatzeko taldea: Merkataritza Ganberak zuzendua eta Diputazioak eta Mondragon Taldeak osatua.
- Erronka berriak bilatzeko taldea: kide guztiek osatua eta Mondragon Taldeak zuzendua.

**> ERRONKA ESTRATEGIKOAK**
Lantzen diharduten erronka estrategikoak hauek dira, besteak beste: Pasaialdea biziberritzea eta kanpoko portua eraikitzea; errepide sarea amaitzea; Hondarribiko aireportua bultzatzea; enpresetan berrikuntza eta jakintza transferentzia sustatzea; eta Abiadura Handiko Trena.

**KRISI EKONOMIKOARI AURRE EGIN**

Azkenik Kutxako Xabier Iturbek zera esan zuen: "Ziklo ekonomiko positibo baten amaiera dator eta atzeraldi garai batera goaz. Talde lanean jardutea ezinbestekoa da eta, horrela eginez gero, indartuta atera daiteke Gipuzkoa krisi garai honetatik. Taldea sortzearen arrazoietako bat da, hain zuzen ere, koordinatuta, indarrak batuz aurre egitea egoerari". Eraikuntza eta higiezinen sektorearen gainbehera eta kredituen murrizketa, inflazioaren igoera eta horrek guztiak kontsumoan duen eragina izan zituen hizpide. Elkarlanaren beharra azpimarratzeaz gain, esan zuen: "Urte gogorrak datoz, baina baikor egon behar dugu Gipuzkoa ere gogor dagoelako".

Jakinarazi zuten uztailaren amaierarako gertu izan nahi dutela aurtengo lan egutegia, eta urrirako, 2009koa. "Sekulakoa litzateke datorren urtean esatea hau amaitu dela, horrek esan nahiko lukeelako egoera ekonomikoari aurre egin diogula, baina epe ertain edo luzera begirako proiektua da, etorkizunerako lan serioa egin nahi delako", esan zuen Markel Olanok.

Erakundeetako ordezkari guztiak bat etorri ziren elkarlanaren beharra azpimarratzeko orduan. Markel Olano ahaldun nagusiaren esanetan, "Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurraldeko eragile sozio-ekonomiko nagusiek elkarrekin lan egingo dugu, Gipuzkoak lurralde lehiakorra eta urreratua izaten jarrai dezan. Ekimen xumeek eragin handiak izan ditzakete. Sinetsiz gero, aurrera egin liteke. Indarrak batuz gero, helburuak lor daitezke eta horretarako ezinbestekoak gara guztiok".

Hortaz, abian da Gipuzkoak aurrera egin dezan elkarlanean oinarrituko den taldea.

**"Sekulakoa litzateke datorren urtean esatea taldea desegin dela, egoera ekonomikoa hobetu den seinale litzatekeeta, baina proiektua epe ertain edo luzera begirakoa da"**

### DEBAGOIENETIK GIPUZKOA AURRERARI BEGIRA



**Jose Mari Aldekoa**
Mondragon Taldeko presidentea

## "Ona da taldean egotea, gure premiak kontuan har ditzaten"

Mondragon Taldeko Jose Mari Aldekoak ezinbestekotzat jo zuen taldea Gipuzkoa Aurreran sartzea. Bere esanetan, "Gipuzkoako enplegu-emaile nagusia gara. Iaz, urte amaieran, 22.324 lanpostu genituen, horietatik 15.630 industrian. Mondragon Taldeak Gipuzkoako enplegu osoaren %6 ordezkatzen du, industria enpleguaren %16, eta Gipuzkoako industria esplotazioen %34 dugu.

Horregatik uste dugu nahikoa pisu dugula proiektu horretan sartzeko, eta horri gehitu behar zaizkio Mondragon Unibertsitatea, teknologia zentroak eta berrikuntza arloa, enpresetako ikerketa eta garapen departamentuetan eta Garaia Berrikuntza Gunean".

Aldekoaren ustez, "ona da gure ibarrarendako taldean egotea, etorkizunerako proiektuetarako gure premiak kontuan har ditzaten. Lehen, zuloan geunden, eta Gipuzkoa Donostia aldea baino ez zen. Hortaz, proiektu berriak mahai gainean ipintzen direnean, ona da lehen unetik bertan izatea, gure ahotsa eta ibarraren interesak han ipintzea. Horretarako, Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko jendearekin ere berbetan dihardugu".

Mondragon Taldeak esperientzia emango dio proiektuari: "Kooperatiba bakoitzaren interesen gainetik, denak batean, proiektu zehatzak aurrera atera ditugu. Hortaz, ibarretik, gure apalean erakutsiko dugu nola komeni den lana elkarrekin egitea Gipuzkoa aurrera ateratzeko", esan du Jose Mari Aldekoak.



**Eduardo Zubiaurre**
Adegiko presidentea

## "Azpiegitura onak denon onerako dira, baita ibarrerako ere"

Adegiko presidente Eduardo Zubiaurrek, taldea Gipuzkoan antolatzen den ekimena izanik, edozein ibarretan eragingo duela dio. "Zentzu ekonomikoa duen aldetik, pertsonak eta enpresak izan daitezke gako. Hortaz, denok baliatzeko moduko ekimena da. Elkarlanean jarduteko asmoa dago, eta datozen bi edo hiru urteetan izan ditzakegun eragozpen ekonomikoei eta hortik aurrerako erronkei aurre egiteko ahalmena ere emango digu".

Zubiaurreren ustez, "aukera egongo da proiektu estrategikoak bultzatzeko eta berriak definitzeko eta sustatzeko. Beraz, aukera izango da Gipuzkoako edozein enpresa eta norbanakorendako. Horregatik, gure ibarrekoek egin behar dutena da adi egon eta aukerak aprobetxatu".

Oraingoz, hiru talde daude, baina aurreratu digu badagoela laugarrena sortzeko asmoa, arlo soziala kudeatuko lukeena. "Batetik, ekonomiari bultzada emango dion taldea eta lehiakortasunaren ildoa hobetuko duena dago. Baina Gipuzkoako gizarteak kontuan izan behar du lehiakortasunari, garapen ekonomikoari eta ongizateari eragiten dioten faktoreak lotuta daudela demografiarekin, hezkuntzarekin, azpiegiturekin, industria lurrekin, ekoizpenarekin, berrikuntzarekin eta nazioarteratzearekin", dio Eduardo Zubiaurrek.

Zubiaurreren esanetan, "abian dauden proiektu estrategikoak bultzatzeak eragina izango du ibarrean, azpiegitura onak izatea denon onerako delako. Hirugarren taldearen lana proiektu berriak bultzatzea izanik, aukera ematen dio jendeari ekarpenak egiteko".



Zbb
C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES


ADIERAZPENA Asier Zuluetak, Oihana Aranburuk, Pedro Lasagabasterrek eta Jon Goikoetxeak egin zuten adierazpena, zinegotziez inguratuta. NEREA MENOR

**HEZUR MUINA** > EMAILEAK LORTZEKO KANPAINA

# Mankomunitateko zinegotzi eta alkateak hezur muin-emaile egin dira

Euskal Herrian populazioaren %0,13 besterik ez da hezur muin-emaile

Adierazpenean, informazio eta baliabide faltari egozten diote emaile kopuru baxuaren errua

**NEREA MENOR** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko hileko batzarra egiteko batu behar zirela aprobetxatuta, horko kideek agerraldia egin zuten eguaztenean. "Azken aldian gero eta gehiago entzuten den hezur muin-ematearen alde egiteko", azaldu zuten Mankomunitateko kideek, "guk ordezkari publiko bezala gizartearekiko dugun erantzukizuna ikusirik, publikoki hezur muin-emaile egitera konprometitzen gara". Iturrigorri elkartearen kanpainarekin bat egiten du keinu honek, izan ere, elkarteak hezur muin transplante baten beharrean daudenei laguntzeko lan egiten du, eta Mankomunitateari bere eskaerekin bat egiteko eskatu zion.

Pedro Lasagabaster eta Oihana Aranburu –Mankomunitateko ordezkariak– eta Jon Goikoetxea eta Asier Altuna –Iturrigorriko kideak– bildu ziren hezur muin-ematearen inguruko adierazpen publikoa egiteko: beste herrialde batzuekin alderatuz, Euskal Herrian oso hezur muin emaile gutxi daude, "Euskal Herrian eta Espainian, populazioaren %0,13 besterik ez da emaile", dio Mankomunitateak. Beste lurralde batzuetan, kopurua altuagoa da: Alemanian, populazioaren %3,8 da emaile, eta Erresuma Batuan, %1,5. Gertu bizi diren pertsonak bateragarriak izateko aukera handiagoak dituztela jakinarazi zuten, eta hezur muin emaile berriak beharrezkoak direla Euskal Herrian.

DATUA

**200**

**MILA ODOL-EMAILE**

Euskal Autonomia Erkidegoan 200.000 odol-emaile daude, hauetatik 60.000, emaile finkoak. Kopuru horren erdiak hezur muin-emaile eginez gero, nahikoa izango litzatekeela esan zuten Mankomunitateko kideek.

**SOLIDARITATE ALTUA**

"Euskal Herrian, beste donazio guztietan munduko onenetarikoak garela ikusirik, emailetza berri honetan ere herrialde aurreratuenen parean egotea tokatzen zaigula pentsatzen dugu, gure gaixoek eta mundu osokoek behar gaituztelako, eta gizarte honek duen solidaritate altuak horrela eskatzen duelako", esan zuten eguaztenean. Euskal Autonomia Erkidegoan, 200.000 odol-emaile daude, horietatik 60.000, finkoak. Kopuru horren erdiak hezur muin-emaile eginez gero, nahikoa izango litzatekeela esan zuten adierazpenean.

Emaileen kopurua baxua zela esan zuten: informazio faltagatik baina baita baliabide faltagatik ere. "Jende asko batera hezur muina ematera joan zenean, Osakidetzak ez zituen jende guztia hartzeko baliabideak".

**MANKOMUNITATEA** > KONPOSTAJEA

# Debagoienean konpostaje planta bat egiteko pausoak hasi ditu Mankomunitateak

Orain, Azpeitiko Lapatxera eramaten dira bailarako hondakin organikoak, baina beharrezkotzat jotzen dute horrelako planta bat ibarrean

**N.M.** > ARRASATE

Hilabete honetako bilkuran, konpostaje planta bat egiteko iradokizunak egin dituzte Mankomunitatean. Aurrerantzean Aldundiak onartu beharko ditu, eta alegazioak hasiko dira ondoren. Ibarrean materia organikoa tratatzeko planta beharrezkoa dela uste du Mankomunitateak.

Orain, Azpeitiko Lapatxera eramaten dituzte, besteak beste, Aretxabaletan jasotzen diren hondakin organikoak. Bertan, 3.500 tona hondakin tratatzea aurreikusten dute, eta 2016an 60.000 tonaraino iristeko asmoa dute Azpeitian. 15 egunetan hondakinak tratatu ondoren, konposta kanpoan biltzen da bi hilabetetan oxigenazio prozesurako. Ziklo hori bukatzean, konposta prest dago berriro erabiltzeko.

Inaugurazioan Pedro Lasagabasterrek azaldu zuen bezala, "Debagoienean plantaren aldeko apustua egin behar da". Berau jartzeko tokiaren gaineko aipamena ere egin zuen bertan: "Epele toki aproposa izan daiteke planta jartzeko"

**LANBIDE HASTAPENA**

Hileko bilkuran beste hainbat gai jorratu ziren, horien artean, Hondakinen Partzuergoko estatutuen aldaketa eta Lanbide Hastapeneko aldaketak.

Bi urte barru Eusko Jaurlaritzak ordainduko du Lanbide Hastapena %100ean, hezkuntza arautu bezala onartu delako. Aldaketa ez da gehiegi igarriko Mankomunitatean. Programa Arizmendirekin dute sinatuta eta zentroak aurrera jarraituko du horrekin. Hala ere, aipatzekoa da, aldaketa honi esker, Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza gehiago jasoko direla Debagoienean.

Bestalde, Txingudi sartuko da Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan. Ondorioz, Mankomunitatearen proportzioetan aldaketa egongo da: %7tik %6ra pasako da. Ekarpen ekonomikoetan eta erabakiak hartzen direnean igarriko da aldaketa hau. Ekarpenak zerbait gutxituko dira eta indar gutxiago edukiko du Mankomunitateak.

> DEIALDIA

### Bingo solidarioa gaur, Nubi eta Iesbaa elkarteen eskutik

*Oporrak Bakean* proiektuaren barruan, Saharatik etorriko diren haurren egonaldia ordaindu ahal izateko dirua batzen dihardute Nubi eta Iesbaa elkarteek. Horren harira, bingo solidarioa egingo dute gaur, 19:00etan hasita, Arrasateko Arimazubi plazan. Hainbat opari banatuko dituzte, besteak beste, plantxa, zartagina, haurrendako jolasak, buruko zapiak eta gailetak.

Bestalde, aurreko aste bukaeran , Aretxabaletan eta Arrasaten egindako festa solidarioen gainean, balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. *Oporrak Bakean* proiektuko haurrak ekainaren 23an iritsiko dira.

> LEHIAKETA

### San Josepe harrobirako, oraingoz, 67 proposamen daude

San Josepeko harrobiaren lehiaketak aurrera jarraitzen du. Oraingoz, 67 proposamen jaso dituzte. Hain zuzen ere, 21 Gipuzkoatik, bost Bizkaitik, hiru Arabatik, bost Nafarroatik, 29 Espainiatik eta lau beste herrialde batzuetatik. Proposamenak aurkezteko epea irailaren 30ean itxiko da, eta irabazlea martxo inguruan aukeratuko dute. Bestalde, lehiaketara aurkezten diren proposamen guztiekin erakusketa zabalduko dute Kulturateko klaustroan, urrian eta azaroan.

Bestalde, Udalak hitzaldia egin zuen martitzenean lehiaketan parte hartzen duten 44 profesionalekin. Ondoren, bisita egin zuten harrobiraino.

> IKASKETAK

### Psikologia Klinikoko azken promozioa egin dute Aita Menin

Aita Menni ospitaleak eta Deustuko Unibertsitateak elkarrekin antolatzen duten Psikologia Klinikoko masterraren azken promozioko ikasleek diplomak jaso zituzten atzo. Hain zuzen, masterra egin duten 150 ikasle egon ziren ekitaldian. Han egon ziren, besteak beste, Aita Menni ospitaleko zuzendari Iñaki Agirre eta Giselle Perren-Klinger suitzar psikiatra.

Bestalde, 21 promoziotan psikologoak prestatzen egon ondoren, Psikologia Klinikoko masterra eten egingo dute bi erakundeek. Aurrerantzean, Europako Espaziora egokitzeko, masterrak hainbat aldaketa izango ditu.

**TURISMOA** > OÑATIKO UDAKO ESKAINTZA

# Ibarreko turistei zabaldu gura diete natur ibilbide gidatuak

Oñatiko Turismo Bulegoak udarako eskaintza aurkeztu zuen atzo

Natur ibilbide gidatuak eta Korpuseko erakusketa dira eskaintza nagusiak



Argazkian, Ikerne Altube, Ernesto Murgiondo eta Iñaki Igartua, prentsaurrekoan. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak udarako eskaintza aurkeztu zuen atzo. Hain zuzen, Natura, Artehistoria eta Tradizioa izeneko egitasmoa aurkeztu zuten. Han egon ziren, Oñatiko Garapen Turismo Agentziako teknikari Ikerne Altube, Turismo zinegotzi Ernesto Murgiondo eta Turismo Bulegoko kide Iñaki Igartua.

Laugarren urtea da udako turismo eskaintza egiten dutena, eta bereziki natur ibilaldi gidatuak azpimarratu zituen Iker Altubek: "Urterik urte, natur ibilbideetan parte hartu duten bisitarien kopurua igo egin da. Aipagarria da, gainera, gehienak ibarreko turistak direla. Horregatik, eskaintza zabaldu gura diegu Oñatitik kanpoko Debagoieneko bizilagunei".

Natur Eskolako kideekin egiteko sei ibilbide daude aukeran: Mitologia eta Historiaurrea (uztailak 13), Mendiko larreak eta artzaintza (abuztuak 10), Iturrigorriko basoa (uztailak 27), Uraren ibilbidea (abuztuak 9 eta 24), Orkatzategiko hegazti kolonia (uztailak 12) eta Arantzazu erreka eta kobazuloak (uztailak 26 eta abuztuak 23), hain zuzen ere. Horietatik azken hirurak dira bisitari gehien jaso dutenak. Bestalde, ibilaldietan parte hartzeko, aldez aurretik izena eman behar da 943 78 34 53 telefonoan.

Era berean, ibarreko bizilagunei Arrikrutz bisitatzeko dei berezi egin diete: "Lehen urtean 25.000 bisitari egon dira kobak ikusten, baina 2.000 bakarrik ziren debagoiendarrak. Bestalde, taldetan etortzeko gomendioa egin nahi dugu", esan zuen Ikerne Altubek. Arrikrutz ohiko ordutegian zabalduko dute udan.

**KORPUSEKO ERAKUSKETA**

Aurtengo berrikuntza bakarra maiatzaren 31n zabaldu zen Korpuseko prozesioari buruzko erakusketa da. Urriaren 26ra arte egongo da ikusgai, ordutegi honetan: zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta jai bezperetan, bakarrik 17:30etik 20:30era zabalduko da. Horren harira, bisita bi modutara egin daiteke: norbere kontura edo Turismo Bulegoak eskaintzen dituen bisita gidatuen bidez. "Oraingoz 1.745 bisitari egon dira, eta horietatik 765 bisita gidatuekin joan dira".

**INFORMAZIO GUNEA**

Unibertsitatera eta Parrokiara egiten diren bisita gidatuek jarraipena izango dute udan. Horren harira, Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak esan zuen uztailean zabalduko dutela Unibertsitateko informazio gunea: "Bosgarren urtez jarriko dugu informazio gunea. Toki ona da, turista asko zuzenean unibertsitatera joaten da, eta han jasotzen dute gainerako informazioa".

ETAren su-etena bukatu ondoren, turismoak atzerapausoa eman zuen arren, Oñatira etorritako turista kopuruak gora egin duela esan zuen Ernesto Murgiondok: "2006an 18.846 turista egon ziren, eta udako lau hilabeteetan, 8.619; iaz, 20.293 turista egon ziren, eta udan, 9.453. Aurten, lehen bost hilabeteetan, 7.668 bisitari etorri dira, iazko garai berean baino 720 gehiago. Emaitzak onak dira, baina lanean jarraitu behar dugu".

ESANDAKOA

**"Oñatin udarako dugun turismo eskaintzak komunikabideetan oihartzuna izatea oso ezinbestekoa da guretako"**

**Ernesto Murgiondo** > Zinegotzia

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin
JUAN ZELAIA
VIII. Saiakera saria
antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.
Saria: 9.000 €
Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.
Irailaren 30a arte.
Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.org
Arauak: www.pamiela.org



0 km
Fiesta
Focus
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak



Ruiz de Alegria, Guridi, Agirre, Aldekoa, Garcia eta Herrasti, Arrasaten, eguaztenean Garaiako ekitaldira gonbidatutako beste hainbat lagunekin batera. TXOMIN MADINA

**ENPRESA** > MICROSOFT ARRASATEN

# Garaia Guneko Microsoft zentroak Europan erreferente izan nahi du

Teknologia txertatuen aplikazioan egongo da espezializatua Microsoft Innovation Center

Mondragonek, Diputazioak eta Gaia Klusterrak babestu dute Garaiako zentro ireki eta pribatua

**T. MADINA/E. MENDIBIL** > ARRASATE

Europako berrikuntza gune erreferenteetako bat izateko asmoz, Microsoft Innovation Center delakoaren sorrera hitzarmena sinatu zuten eguaztenean Garaia Berrikuntza Gunean, Arrasaten. Rosa Maria Garcia Microsoft Españako presidenteak, Ana Agirre Industria sailburuak, Jose Mari Aldekoa Mondragon Taldeko presidenteak, Jose Ramon Guridi Berrikuntza diputatuak, Joseba Ruiz de Alegria Gaia Telekomunikazio Clusterreko presidenteak eta Natividad Herrasti zentroko zuzendariak hartu zuten parte ekitaldian. Aipatutako erakundeekin eta Microsoftekin bi urtez negoziatzen jardun ostean, Etic-Embedded Technologies Innovation Center izeneko kooperatiba bultzatu du Mondragon Taldeak. *Embedded* sistemen edo sistema txertatuen esparruan egingo du lan: sistema horiek produktu elektroniko batean integratutako sistema informatikoak dira, eta oso eremu ezberdinetan aplikazio ugari ditu. Horien adibide dira, besteak beste, sakelako telefono edo etxetresna elektrikoak.

Espainian eraiki diren beste Microsoft zentroak ez bezala, babes publikoa duen erakunde pribatua da, eta kapital soziala hasieran milioi bat euro izango da. Hiru dira bazkide sustatzaileak: Mondragon Taldea, milioi erdi eurorekin; Gipuzkoako Foru Aldundia, 200.000 eurorekin; eta Gaia Telekomunikazioen Clusterra, 100.000 eurorekin. Mondragon Unibertsitatea, Ikerlan eta Deustuko Unibertsitatea bazkide laguntzaileak dira, eta Orona, Ingeteam, ZIV eta Fagor Etxeko Tresna Elektrikoak, berriz, bazkide erabiltzaileak. Etorkizunean, bazkide erabiltzaileen kopuruak gora egingo du, enpresa bezero gehiago sartuz.

Rosa Maria Garciak eguaztenean esan zuenez, antzerako bi gune daude gaur Europan, bata Italian eta bestea Alemanian. Zentroen elkarlana bultzatuko dutela adierazi zuen Europan Microsofteko presidentea izango denak. Teknologia txertatuen esparruan Arrasateko zentroa erreferente bihurtzea da helburua.

**BOST LAN ARLO ARRASATEN**

Bost lan arlo ditu Arrasateko zentroak: sustapena, prestakuntza, aholkularitza, I+G+B proiektuen garapena eta, azkenik, ziurtagiriak eta homologazioak. Esan bezala, Natividad Herrasti da zentroko zuzendaria, eta dagoeneko martxan egon arren, irailetik behin betiko egoitza izango dute Garaia Berrikuntza Gunean. 20 bat langilek jardungo dute.

LANBIDE HEZIKETA CES



ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA KURTSOAK

Matrikulazio epea zabalik

Titulo ofiziala
3. maila Erresuma Batuan
Nazioartean du balioa
Goi mailako diplomatura

ECA Empresa Registrada ISO 9001

Olagibel kalea 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz

formacionprofesionalces@gmail.com

**GARRAIOA**

## Greba amaituta, normaldu da egoera

Grebaren eragina nabaria izan da; garraiolariak lanean dira astelehenetik

**GOIENKARIA** > BERGARA

Garraiolariek eten egin dute deituta zuten greba asteon eta poliki-poliki normaltasuna itzultzen ari da lantegietara eta merkataritza guneetara. Azkenik, garraiolarien gehiengoak onartu egin du Espainiako Gobernuko sustapen ministerioarekin lortutako akordioa. Hala, normaltasunera itzuli ziren garraiolari gehienak astelehenean. Enpresak, esan bezala, ohiko normaltasunarekin dabiltza lanean; baina batzuek grebaren ondorioak jasan dituzte eta ateak itxi behar izan dituzte hainbat egunetan. Bergaran, esaterako, Candy Hooverren ez zuten lanik egin hilaren 12an, 13an eta 16an. Arrasaten, Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegiko hozkailuen lerroak eta Garagartzako garbigailuenak ekoizpena eten behar izan zuten aurreko astean, eta Zerrajeran merkantzia atera ezinik egon ziren aste osoan, lana eten ez zuten arren.

Merkataritza guneak ere normaltasunera itzuli dira. Astelehenera arte nabaria zen grebaren eragina: apal gehienak hutsik, eguneroko produktu asko falta zirela. Astelehenetik garraiolariek eten egin zuten greba eta apalak ohiko produktuez beteta ikus zitezkeen han eta hemen. Ibarreko gasolindegietan ere normaltasuna da nagusi.

**ELKARTASUNA** > II. AFRIKARI BURUZKO ASTEA

# Afrikako egoera aztergai izan dute Arantzazun

Arantzazuko jardunaldien antolatzaileen ustez, "entzutea eta senidetze kontzeptua gara daitezke"

**E.M.** > BERGARA

Baketik eta Tau Fundazioak antolatutako II. Afrikari buruzko astean, *kontinente beltzeko* giza duintasunaren aldeko laguntza kokatu eta bideratzeko esparrua definitu zuten partaideek, Arantzazun. Mbuyi Kabunda irakasleak zuzendutako ikastaroan giza duintasunaren auzian Afrikak bost lehentasun dituela ikusi zuten: hezkuntza, osasuna, elikadura, Estatua (eta garapena) eta ekonomia-eredua. "Afrikak jasaten dituen bidegabekerien arrazoi nagusi bat Afrikako nortasunaren, tradizioaren eta kulturaren gaitasun eta ahalmenekin bat ez datozen atzerriko ekonomia-politika-gizarte eta garapen-ereduen ezarpen historiko eta bortitza da". Antolatzaileen arabera, entzutea eta senidetze kontzeptua gara daitezke: "Afrika, emigrazioa, gure artean dago gaur. Entzun, harrera egin eta senidetze-kontzeptua gara dezakegu, eta horretarako funtsezkoak dira gizartearen kontzientzia, gazteen artean batez ere".

Iñigo Etxebarria > Traumatologoa

# "Osteoporosi tratamendua gaixo bakoitzari egokitu behar da, adina kontuan hartuta"

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

**Aretxabaletako Otalora jauregiak osteoporosi ikastaroa hartu zuen atzo, eguena. Gaixotasun horren gainean eztabaidatu zuten han bildutako profesionalek; tartean, Debagoieneko ospitaleko traumalogo Iñigo Etxebarriak.**


Iñigo Etxebarria.

**Zer da osteoporosia?**

Hezurren erresistentzian aldaketak eragiten dituen gaitza da. Kolpe edo jausialdi txiki baten aurrean, hezurrak eusteko gaitasuna galtzen duenean gertatzen da. Horrek hezurra apurtzea dakar.

**Zenbatek izaten dute gaixotasun hori?**

Kopurua ematea oso zaila da, gutxi baloratuta dagoen gaitza da eta. Askotan, apurketa gertatzen denean, horri baino ez diogu kasurik egiten. Apurketa sendatzeari ematen diogu garrantzia, horren jatorria zein izan daitekeen aztertu barik. Oso zaila da gaixotasuna zenbatek duten jakitea.

**Zeintzuk dira gaitza garatzeko arrazoiak?**

Bereziki, emakumeek izaten dute. Menopausiarekin batera, estrogenoen babesa jaisten denean azaltzen da, gehienbat. Menopausia goizegi duten emakumeen hezurrek lehenago jasaten dute ahulezia hori.

Gizonezkoen kasuan, bestalde, hiru arrazoi nagusi daude: alkohola, kortikoideak eta testosterona gabezia.

**Zer-nolako sintomak ditu?**

Ez du sintomarik eta, normalean, ez du minik ematen. Jende askok osteoporosia artrosi edo hezurren higadurarekin nahasten du, eta batak eta besteek ez dute zerikusirik. Hezurrak apurtzen diren arte, ez da inolako sintomarik sentitzen. Mokorreko, eskumuturreko eta orno-hausturak dira ohikoenak. Lehenengoa da, horren harira, ondorio gehien dituena. Horregatik, ona da gaitza prebenitzea.

> **"Osteoporosiak ez du sintomarik eta, normalean, ez du minik ematen"**
>
> **"Ohitura osasungarriak jarraitzeko gomendatzen dut beti; esnekiak eta esnea hartzea ona da"**

**Horren harira, zer egin daiteke gaitza saihesteko?**

Ez dago arau zehatzik, gaitza noiz gertatuko den jakitea ezinezkoa delako. Emakume batek ez daki menopausia noiz edukiko duen. Ohitura osasungarriak jarraitzeko gomendatzen dut beti: paseatzea, eguzki apur bat hartzea, dieta orekatua egitea, alkoholik ez hartzea eta ez erretzea. Horrez gain, esnea eta esnekiak hartzea ere inportantea da.

**Eta gaitza diagnostikatzen denean, zer?**

Tratatua izan beharko luke. Hala ere, gaixoaren adina kontuan izaten da. Tratamendua gaixo bakoitzari egokitu behar da; batzuk beste batzuk baino bortitzagoak dira, eta, beraz, adina kontuan izan behar da.

**Eguenean osteoporosi ikastaroa egin zenuten hirugarrenez Aretxabaletako Otalora jauregian. Zertaz jardun zenuten han?**

Aurten hirugarren aldiz antolatu dugu ikastaroa eta helburua da gaitz horren gaineko gaurkotzeaz eztabaidatzea. Hainbat mahai-ingurutan banatuta egon da ikastaroa. Debagoieneko eta inguruneko ospitaleetako hainbat arlotako profesionalek parte hartu dugu, baita Galiziako, Madrilgo eta Andaluziako aditu ezagunek ere.

**Jendeak, gaur egun, osteoporosiaren gaineko informaziorik baduela uste duzu?**

Baietz esango nuke nik. Gaur egun komunikabideetan asko entzuten den gaixotasuna da, eta jendeak, orokorrean, ezagutzen duela iruditzen zait. Lehen esan dudan moduan, askok artrosi eta hezurren higadurarekin nahasten dute. Akaso, horren gaineko informazio apur bat gehiago zabaltzea ez legoke txarto egongo baina, orokorrean, badakite gaitza nolakoa den.

## 30 unibertsitate ikasketatik gora izango ditu datorren ikasturtean UNEDek

UNED-Bergarak 30 unibertsitate ikasketatik gora eskainiko ditu datorren ikasturtean. Eskaintzaren gaineko informazioa eman zuten martitzenean hango zuzendari Juan Jose Alvarezek eta Vicente Huici idazkariak, Donostian. Berritasunen artean, hizkuntz kurtsoak Hizkuntza Eskola Ofizialarekin homogolatu dela azaldu zuten. Informazioa gura duenak, Errege Seminariora jo edo 943 76 90 33 zenbakira dei dezake.



GOIENKARIA

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

EKAINEKO SARI NAGUSIA
Zu izan zara irabazlea, zorionak!



ANNE LOPEZ ZUBIA (Bergara)
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN
BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA

Uztaileko zozketa

DVD-a
EROSKI zurekin


KAMISETA+POLTSA
skunkfunk


KAMISETA+ALPARGATAK+CD-ak
karrikiri


SARI NAGUSIA:
HONDARRIBIKO LANDETXE BATEAN GAU BAT

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

## gure artekoak

**DACIA LOGAN** > Logan Break autoaren ezaugarri azpimarragarriena prezioa da. Renault autoen motorra eta karrozeria bera dute Dacia autoek. Arrasateko Autoberriko Txaro Cifuentesek eman ditu azalpenak.

**Txaro Cifuentes** > Autoberri Renault etxeko saltzailea

# "Auto apala da; ekipamendu txikiarekin, prestazio ona du"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Logan Break autoaren ezaugarri bereziena zein den galdetuta, alde ekonomikoa dela esan du Txaro Cifuente Autoberriko saltzaileak. Izan ere, 11.500 eurotik hasita, auto egokia eskaintzen du Dacia etxeak.

Cifuentesen berbetan, prezioa da azpimarragarriena: "Gainera, hiru urteko bermea eskaintzen du", gaineratu du. "Bigarren eskuko auto batek beste balio du, baina auto berria da, norberak estreinatzen du", dio.

Gainera, Renault etxeko autoen motor eta karrozeria bera dute Logan etxeko autoek. Hortaz, kalitatea bermatua dago. "Auto apala da; ekipamendu txikiarekin prestazio asko eskaintzen duena", azaldu du Cifuentesek.

**EKAINEKO ESKAINTZA**

Aire girotua doan izango da ekainean: "Hileko eskaintza da. Ekainean autoa erosten duenak doan izango du aire girotua", azaldu du Cifuentesek.

Bestalde, ekipamenduari dagokionez, sabaiko luzetarako barrak ditu autoak, egokiak hainbat traste eramateko. "Oso egokia da, bestalde, atzeko atea. Aldetara irekitzen den ate bikoitza dauka autoak; oso erosoa da tresnak maletategian sartzeko", dio.



Txaro Cifuentes eta Aintzane Urrutia, Logan Break autoarekin. ARANTZAZU EZKIBEL

### Logan Break 1.6 90 ZP ambience

| | |
|---|---|
| Prezioa | 11.500 euro |
| Luzera | 4,45 metro |
| Zabalera | 1,97 metro |
| Maletategia | 575 litro(1) |
| Kontsumoa | 7,8 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 167 km/h(3) |
| Otik 100era | 13,4 seg. |
| CO2 isurketak | 184 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**MOTORRAK**

Gasolinazko motor bi daude: 1.6, 105 ZP eta 1.6, 90 ZP. Dieselezko motorrak ere bi dira: 70 eta 85 zaldi potentziakoak, hain zuzen ere. Aldaketa kaxa bost martxakoa da.

Bestalde, aukeran dago bost edo zazpi plazako autoa izatea.

Segurtasunari dagokionez, zerbitzu zabala eskaintzen du autoak: ABS, bi aire poltsa, lagunduriko direkzio hidraulikoa eta beste hainbat segurtasun sistema. Gainera, atzealdeko hiru aulkiek buru-euskarria dute bidaiarien segurtasunerako.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

# Quo vadis, Real Sociedad?

Urte askotan noraezean. Zer zaren eta zer izan nahi duzun ezin asmatu. Lotsabako edo traketsenen gidaritzapean. Norbere probetxurako zutaz baliatzen dabiltzanen eskuetan. Hedabide lokalen arteko guda interesatuaren erdian. Etorkizunari aurre zelan egin jakin barik…

Fuentes eta De la Peñaren agintaldi tristearen ostean, salbatzaile gisa aurkeztu zuen bere burua Badiolak. Baina gezurretan oinarritu zuen diskurtsoa; ilusio faltsuetan. Eta esperantzari kondenatuta zegoen zalego gizajoak haren jardun populistari heldu zion. Haize freskoa zekarrela sinistuta, Realeko akziodunek nabarmenki babestu zuten.

Sei hilabete nahikoa izan da kreditua hutsean lagatzeko. Esandako bat ere ez du bete. Aurrekoek egindakoa okertu du, kluba kinka larrian utziz. Hori gutxi ez eta forma zitalenak baliatu ditu haren eta honen aurka egiteko, bazter guztietan *lagunak* eginez.

> **"Hori gutxi ez eta forma zitalenak baliatu ditu haren eta honen aurka egiteko"**

Orain? Jokalariei ordaintzeko dirurik ez. Langileak kalera bota nahian. Entrenatzaile eta kiroleko arduradun barik. Zubietako teknikari gehienak kalean… Beste urtebetez infernuan!. Nora zoaz, Reala? Nork salbatuko zaitu?

**> Euskaraz** jarduteko **gauza izango zela esan zion Badiolak Ana Ramos kazetariari urte hasieran ETBn. Ekainean euskaraz egin ahal izango ziola elkarrizketa. Zain gaude… Ez genion sinistu.**

**> Bozeramailea izendatzea izan da Badiolak egin duen azkenetakoa. Zer eta bozeramaile elebakarra txuri-urdinek. Martitzeneko akziodunen batzarrean, ostera, esaldi bat bera ere ez euskaraz…**

## begi-bistan



**Apurtutako piboteak (Oñati) 2008/06/10**

**Argazkia:** Arantzazu Ezkibel.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Oñatin, Maiatzaren Bata plazan, apurtutako piboteak daude. Irudian ikusten denez, zikinkeria pilatzen da han. Gainera, ume txikiak samur iristeko moduko altuera dute piboteek.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Jose Jabier Barkero**
FUTBOLARIA

Jose Jabier Barkero Aretxabaletako futbol jokalariak lehenengo mailan jokatuko du datorren denboraldian; izan ere, Numantziak fitxatu du. Soriako taldeak egin duen lehenengo fitxaketa izan da. Azken bi urteetan, Albaceten jokatu du Barkerok.



**Aitor Arregi**
ZINEMA ZUZENDARIA

Zinemagile oñatiarrak zuzendutako *Lucio* dokumentala saritu dute Bolonian. Biografilm jaialdiko sail ofizialeko sari nagusia irabazi du. Lucio Urtubia anarkista nafarraren bizitza kontatzen da *Lucio* dokumentalean. 2007an estreinatu zuten filma.



**Ines Osinaga**
ABESLARIA

Gose taldeko abeslaria da Osinaga arrasatearra; bada, gaur Donostiako Doka salan kontzertua egingo du Arrasateko Gose taldeak. 21:15ean izango da kontzertua.

Bestalde, atzo Gironako Etnibal 08 jaialdian jo zuten arrasatearrek. Agenda betea dute!

Eneko Oregi bergarararrak beste sei kiderekin parte hartu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta egin duten Oinarrizko Txostenaren eraketan. Euskararen erabilera nolakoa den aztertu dute, eta txostenetan, etorkizunari begira kontuan hartu beharreko pausoak aztertu dituzte. Herritarren ekarpenak jasotzeko blog bat zabaldu dute.

**Eneko Oregi** > HAEEko kidea

# "Euskararen erabilera eta herritarren atxikimenduak indartu behar ditugu"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Eneko Oregi (Bergara) HAEEko (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua da, eta Gasteizen bizi da. Oinarrizko Txostenaren eta erakundearen 25. urteurrenaren inguruan egin dugu berba harekin.**



Eneko Oregi bergararra. GOIENKARIA

**Zertan datza, zehatz-mehatz, egin duzuen txostena?**

Hiru probintziotako Autonomia Erkidegoan, 1979an, Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna ezarri zuen. 1982an, berriz, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zuen Legebiltzarrak talde ia guztien babesarekin, eta lege horren arrastoan beste hainbat etorri dira, gizarteko arloetan euskara sartzeko eta bultzatzeko balio izan dutenak: irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan eta kulturgintzan, besteak beste. Urte hauetan euskarak aurrerapen handia egin du, bai ezagutzan eta baita zenbait erabilera-eremutan ere.

Baina urte hauetako gizartearen eta politikagintzaren ibiliak, alde batetik, hasierako adostasun zabal hura higatu egin du, eta desadostasunak eta salaketak gero eta ugariagoak dira; eta, beste alde batetik, euskararen erabilera, hainbat arlotan loratu bada ere, makal eta eskas jarraitu du beste hainbatetan, ezagutzaren areagotzearekin lotura zuzenik izan gabe.

Horregatik guztiagatik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gogoeta beharra ikusi zuen. Hori da, hain zuzen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz egin dugun Oinarrizko Txostenaren arrazoia.

**Zenbat lagunek hartu duzue parte txostenean?**

Oinarrizko Txostena lantzen zazpi lagun ibili gara: Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzako kide Patxi Baztarrika eta Erramun Osa, bateragile gisa, eta bost lankide: Pello Salaburu, Euskara katedradun eta EHUko errektore ohia; Alberto Lopez Basaguren, Zuzenbideko katedraduna; Aureli Arkotxa, idazlea eta irakaslea; Lore Erriondo, irakaslea eta Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria; eta ni neu.

**Ze ondorio atera dituzue?**

Oinarrizko Txostenak hiru zati nagusi ditu: lehenengoan, sarreran, dokumentuaren zergatia eta nondik norakoak zehazten dira, eta kritikaren eta eztabaida demokratikoaren egokitasuna eta beharra defenditzen dira, besteak beste gizarte-adostasuna eraiki eta indarberritzeko. Gainera, hizkuntza-politikaren mugak eta helburuak lortzeko beharra azpimarratu dugu.

Bigarren zatian, euskararen egungo egoeraren ezaugarri nagusiak marraztu nahi izan ditugu. Hain zuzen ere, euskarak gizartean izan duen aurrerakada, lege-esparruak zer dioen, eta, azkenik, euskararen aurrerakadak izan dituen alderdi txarrak zehazten ditugu.

Hirugarren zatian, datozen urteetarako hizkuntza-politikak zertan oinarritu beharko lukeen, eta zein erronkari egin beharko dion aurre hausnartu nahi izan dugu. Gure ustez, euskararen erabilera areagotzea da erronka nagusietako bat, eta, beste zentzu batean, herritarren atxikimendua lantzea eta indartzea. Honela dio Txostenak: "Erabilera da giltzarria, eta herritarrak dira, gara, protagonistak".

HELBURUA

**"Txostenaren helburua da eztabaidari hasiera ematea, behin betiko dokumentua osatzeko"**

BLOGA

**"Ekarpenak egin gura dituzten herritarrendako bloga, jarri dugu martxan"**

SORRERA

**"HAEE erakudea duela 25 urte sortu zen Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean"**

**Noiz hasiko zarete txostena aplikatzen?**

Esan bezala, Oinarrizko Txostenaren helburua da eztabaidari hasiera ematea. Hortaz, bertan jorratzen diren ikuspegiak, iritziak eta printzipioak ez dira behin betikoak. Oinarrizko Txostena apirilaren 29an kaleratu genuen, eta maiatzaren 30era arte batzordeetako kideek ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Horren harira, ekarpen horiek guztiak ekainaren erdialderako argitaratuko dira Euskara21 orrian. Hortik aurrera, eztabaidari eta elkarrizketari ekingo diegu, dokumentu bat adosteko asmoarekin. Horretarako jarri da martxan Euskara21 ekimena eta bloga; eztabaida zabala eta mugagabea izateaz gain, gardena ere izan dadin. Gure ustez, elkarrizketa eta eztabaida zintzo eta jatorrak ezin dio euskarari kalterik egin; alderantziz, gizarte honetan dauden iritziak eta sentimenduak, proposamen eta jarrerak plazaratu, uztartzeak, datozen urteetarako herritarren arteko adostasuna eta balio partekatuak indarberritzea ekar dezake.Informazio guztia dago *www.euskadi.net/euskara21* gunean.

**HAEE duela 25 urte sortu zen Oñatin. Zein da urte hauetako balorazioa?**

HAEE garatuz eta osatuz joan da 25 urte hauetan, beti ere hiru arlo nagusitan: administrazioko langileak hautatzen eta prestatzen, administrazioan euskara normalizatzen eta administrazioaren inguruko aholkularitzan eta ikerlanean.

HAEEren lanari esker, funtzionarioen hautaketa, laneskaintza publikoak eta oposizioak berme guztiekin egiten dira, besteak beste. Era berean, euskal administrazioa gero eta hobeto prestatua dago herritarrei kalitatezko zerbitzua emateko. Gainera, hizkuntza-eskakizunei esker eta HAEEren euskalduntze-programei esker administrazioan euskaraz jardutea ohikoa da, gaur egun. Horregatik guztiagatik, balorazioa positiboa dela esan dezakegu. Bestalde, HAEEren barruan datozen urteetarako proiektuak lantzen ari gara dagoeneko, gure bokazioaren ildotik, herritarren zerbitzua, kalitatea eta berrikuntza uztartuz.

**Oñatiko egoitzan zer egin dute?**

HAEE erakundea sortu zenean egoitza bakarra zuen. Hain justu ere, Oñatiko Unibertsitatean zegoena. Dena den, urteak joan ahala, beste hainbat egoitza zabaldu ditugu: Gasteizen dugu egoitza nagusia, eta Donostian eta Bilbon ere badugu bi egoitza. Gainera, beste hainbat tokitan ekintzak eta jarduerak egiten ditugu.

Dena den, ez dugu ahazten gure sorlekua Oñatiko Unibertsitatea izan zela, eta bertan lanean jarraitzen dute hiru lankidek: Pili Artzuagak, Begoña Alberdik eta Xabier Blancok. Egun, argitalpen zerbitzua bakarrik dago Oñatin. HAEEra bidaltzen dituzten tesietako batzuk argitaratzen ditugu. Urtean, 40 liburu kaleratzen ditugu.



zabalik

**Arantxa Jaka**

# Ondarea

Astebete batean bi albiste irakurri ditut, XX. mende erdialdean Arrasaten hasi zen mugimenduari buruz. Lehenengoa horren sortzaileari buruz mintzo zen; eta bigarrenak kooperatiben egoera agertzen zuen, aurrera begira, batez ere. Batak honako izenburua zeukan: *On Jose Maria, sarean*; besteak: *kooperatiben egoera krisiaren aurrean*. Bi artikuluak gogoz irakurri nituen.

Sarean Arizmendiarrietaren idazkiak jartzeak mugimendua eta mende horretako Euskal Herriko historiaren zati handi bat hobeto ulertzen lagunduko omen du. Horren zalantzarik ez daukat; baina, uste dut bereziki lagundu beharko lukeela horren guztiaren txinparta zein den hobeto ulertzeko, sorrera garbi baitago: eskuz idatzitako 6.100 fitxetan kristau espiritualitateari buruzko bere barru-barruko gogoetak agertzen dira eta espiritualitate horretan oinarritu zuen bere hezkuntza bizi-proiektua eta, gero, kooperatiboa. Neure buruari galdetzen diot gaur egun non ote dagoen oinarri hori.

> **"Arizmendiarrietak Jesusen baloreetan oinarritu zuen bere proiektua"**
>
> **"Adierazi nahi zuen gizakia ez dela ogitik bakarrik bizi; behar fisiko batzuk baino gehiago zela"**

Kontua ez da kristau izatea edo ez izatea, baizik eta pertsona bere dimentsio osoan hartzea. Beraz, baita dimentsio espirituala ere. Uste dut Arizmendiarrietak bere proiektua Jesusen Berrionean oinarrituz hauxe azaldu nahi zuela: gizakia ez dela ogitik (ekonomiatik) bakarrik bizi; pertsona behar fisiko batzuen multzo bat baino norbait gehiago dela… Berak ez zuen bere eginkizuna edozein baloreetan errotu, baizik eta Nazaret-eko Jesusen baloreetan. Hau da, gizakia egiazko gizaki egiten duten baloreetan. Gaurko kooperatibak (irakaskuntzan, ikerketan, produkzioan…) oinarrizko ondare hau nola gaurkotzen du? Erronkatzat ote dauka? Ekonomiari begira estrategiak hartu dira, internazionalizatzeko bideak ireki, I+G alderdia bultzatu… Baina berdin bultzatzen al da pertsonaren izate osoa? Gure bailara honek aditua izan beharko luke, baina oso herren sumatzen dut. Zergatik ote?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## AURTEN EGINGO DUTE MUSIKAIRE JAIALDIA?

**Irakurle batek hauxe galdetu digu: "Udan, Elorrioko Musikaire jaialdira joaten naiz gustura. Aurtengo antolatu dute?"**

Bai: Musikaire jaialdia bihar, zapatua, hasiko da Elorrion, eta, uztailaren 28ra bitartean, 17 emanaldi egongo dira. Bihar, VIII. Azoka Kulturala egingo dute plazan: antzinako auto eta motorrak, liburuak, numismatika, filatelia, mineralak, diskoak… eta, bestetik, Cuarteto para el fin de los tiempos taldeak kontzertua egingo du San Agustin Etxeberria elizan, 22:30ean. Programazio osoa *www.musikaire.com* webgunean dago.

## OBRA ZARATATSUEK BADUTE MUGA ORDURIK?

**Arrasaten izandako gertakizunaren –ustez, bizilagun batek aizkoraz mehatxatu zituen langile batzuk, zaratek siesta egiten ez ziotelako uzten– harira, irakurle batek hauxe jakin nahi du: "Kalean zaratak eragiten dituzten obretarako badago ordutegirik?"**

Arrasateko Udal Hirigintza saileko Manolo Añibarro arkitekto teknikoak hauxe erantzun digu: "Legea oso nahasia da horren inguruan, eta ez du modu garbian gai hori arautzen. Arau orokor moduan, norberaren atseden orduak 22:00etatik 08:00etara direla ulertzen da; ordutegi horren barruan, bai, legea oso gogorra da zaratak eragiten dituztenekin. Egunez, ordea, permisiboagoa da. Hala, lanek eragiten dituzten zaratak "ezohikotzat" edo "berezitzat" jotzen ditu; hau da, noizean behin denok jasan beharreko zaratak direla ulertzen da, egun bateko edo biko kontua".

> **Galdera egiteko:**
> Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
> - Telefonoz: 943 25 05 05
> - Faxez: 943 25 05 12
> - Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
> - Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## AGORROSIN ZELAIAK BADU ORDUTEGIRIK?

**Bergarako irakurle batek hauxe galdetu digu: "Agorrosingo futbol zelaian jende askok paseatzen du, baina azkenaldian itxita dago. Zelaia irekitzearen ardura norbaitek duen eta ordutegiren bat bete behar duten jakin nahiko nuke".**

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuko Unai Azurmendik eman digu erantzuna: "Oraingoz, ez dago irekitzeko ordutegirik; zelaiko belarra mozten dabiltzanean, irekita egoten da, eta bestela, itxita". Argitzen du zelaia Bergara Kirol Elkartearen jabegokoa dela eta elkarte horrek kudeatzen duela, baina, gure irakurleak bezala, "jende askok agertu duenez" kezka hori, Udala eta Bergara Kirol Elkartea lanean hasi behar direla zelaia jendeak paseatzeko erabil ahal dezan erregulatzeko eta ordutegi bat adosteko.

marrazkiz

**Unai Busturia**




blog

# Uraren Expo(lio) Zaragoza '08

**Asel Luzarraga**
goiena.net/blogak/asel

Gaur eman diote hasiera lotsa unibertsalaren azokari.

Aurtengoa ironiaz datorkigu, gainera. Uraren azoka! Zein ur, gure mendietatik libre jaisten dena, urtegietan herriak ito(i)tzen dituena, ala Nestlek herrialde txiroenetan pribatizatu eta gure supermerkatu eta jatetxeetan botilaratuta saltzen diguna? Ez dut inoiz ulertu zertarako egiten den baliabideen xahutze unibertsal hori. Zenbat altzairu, plastiko (beraz, petrolio), porlan, argindar, eta batez ere, zenbat ur darabiltzate holako megaparke tematikoa eraikitzeko? Zeren erakusleiho da? Gure "zibilizazioaren aniztasunaren" erakusgarri? Zenbat ordaindu behar du, demagun, Etiopiak bertan bere pabilioia izan gura badu? Zenbat interes pribatu mugitzen da horren guztiaren atzean? Dena hil batzuen ostean hilda geratzeko (…).

Oraingoan, gainera, munstro horiek eraikitzeko zer leku hautatu dute? (…) Bitxia, urari eta haren ingurune naturalari lapurtutako lekua ura "omentzeko" erabiltzea.

# Irlandak ere ezetz esan dio

**Xabier Eskisabel**
goierrikohitza.info/blogak/xa2

Lisboako Hitzarmenari ezetz esan diote irlandarrek egin den galdeketan.

Irlandako alderdi nagusiak ezezkoa babesten zutenekin haserre daude, gezurretan

plazara

Arrasateko San Juan jaiak ospatuko dituzte egunotan, eta, azken urteotako ahalegina handituz, aurten hainbat herritarrek bat egin dute jaietarako ekintzak antolatu eta giro euskaldun, parte-hartzaile eta alaia sortzeko. Artikuluan, Arrasaten geratzen diren herritarrak parte hartzera animatzen dituzte, gogoraraziz, gainera, parte hartzeak saria izan dezakeela aurten.

**Beñat Irazabal ***

# San Juanetako garrak ixotuko dittu baztarrak!

San Juan jaixak ate joka datoz eta aurten gainera, sekula baino goizau, luziau eta beruau datozenan itxuria dauke. Jakina da herrittar askok egun honeik beste hegal batzuetara fateko aprobetxau ohi izeten dauiela, baina hemen geratuko garen danondako egitarau mardula eta anitza osatzen saiatu gare San Juanetako Jai Batzordien jaixok antolatzen ibili garen danok... bixer hasitta eta datorren eguenera arte, herrixa zainketan geratuko garenok Arrasateko baztar danak ixotuko dittugu gure garraz! Sei egun honeittan dana emuteko prest al zaz? Ba beroketan hasi zaittez ze maratoi politta dator...

Oin Jai Batzorde moruen aurkezten douna, aurreko urtietan jaixak antolatzeko arduria hauken txosna batzordian ondorengua dala esan leike, baina inoiz baino gogo gehixaukin gatoz.

Alde batetik, herriko hamar talde edo eragilietako kidiak arduratu gare egitarauai formia emuten, eta bestetik, herrittar morduan laguntasuna auki dou okurrirutako ekintza eta festa kontuak aurrera ataraterako orduan. Jaixak herrittar danonak dielako!

Gure helburua azken baten herrittarren parte-hartzia bultzatu eta sustatzia da eta datozen egunetarako be horren aldeko apustua ein dou. San Juanetako lemian aukeraketik hasi eta txantxikuarren aurkako karaokera, doke txapelketatik filme erotikuen bikoizketara, kuadrila arteko olinpiadetatik argazki lehiaketara, kantu poteua, herriko taldien kontzertuak, presuen aldeko bazkari herrikoia, bloga, grafitixak eitteko aukeria, bokata jana, Dragoialde txarangian animaziñua... Egitaraua hamaika berrikuntzakin dator! Hordagua botata dau, ea zenbatek heltzen dutzieun antolautako ekintza danei!



MIKEL ARROIABE

Aurten, gainera, parte-hartzaile izetiak sarixa dauke. San Juanetan dotorien ibili danak eta egitarauko ekintzetan parte hartzen dauenak urrezko dragoia jasotzeko aukeria aukiko dau eta! San Juanetako garaikur preziatuena izengo da, zalantza barik! Beraz badakitzue, bezperatik hasitta, bolie bueltaka jarten hasteko ordue da!

**"Karaokea, doke txapelketa, kuadrila arteko olinpiadak... egitaraua hamaika berrikuntzakin dator"**

**"Egitarauko ekintzetan parte hartzen dauenak urrezko dragoia jasotzeko aukeria eukiko dau"**

Txosnagunia izengo da San Juanetako garraz ixotukoun eremu nagusixena, bertan burututko die eta antolatutako ekintza gehixenak. Pregoia irakurri eta txupinazua botaten dan momentutik, Monterron azpiko zelaixoi gure territorio libre eingou! Gune libria izengo da harreman askiak, parekidiak eta elkartasunien oinarrittakuak landu gure dittugulako; euskalduna, gaztia eta ingurua errespetauko dauena izengo dalako. Eta batez be, erdiguneko txoko hau jai elegante batzuk ospatzeko leku ezin hobia dalako...

Ez dau, beraz, aitzakixaik. San Juan jaixak indartsu datoz eta espero daigun herrittar danok gogotsu egongo garela! Beste lekuren batera alde eingo dozuenoi, ohartxo bat: imajinau be ezin dozue ein zelako jai egunak galdu biher dittuzuen San Juan honeittan! Eta hemen geratuko zarienoi, esandakua, jai elegantiak izengo die aurtenguak! Eta danok parte hartuz gero ondiokan gehixau, gu gare eta baztar danak ixotuko dittuen San Juanetako garra!

Besterik ez, Jai Batzordian izenien ondo-ondo pasau datozen egunak, gaiztuak izen eta batez be, egitarauan antolatutako ekintzetan parte hartu... danok ez gazen arren, gure territorio libre horretan ixotutako sua inguruko baztar danetara heldu-ko da ta!

*San Juanetako Jai Batzordeko partaidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Ados zaude 65 orduko lan astearekin?

| | |
|---|---|
| BAI | %28,6 |
| EZ | %71,4 |

**> EUREK LEHENENGO**
Astakeria hau bururatu zaien goi-karguei ere aplikatuko zaizkie 65 orduak? Proba dezatela eurek lehenengo.
**Jokin**

**> HAINBATEN ESKAERA DA**
Hainbat gremiok eskatutako neurria da: adibidez, medikuek, askotan 48 edo, zer esanik ez, 35 ordu baino gehiago egiten dituztenak. Eskaera badago, esan nahi du premia ere badagoela.
**Martxelo**

**> ZAPATEROK, AMORE**
Europa neoliberal honetako asmakizuna da langileriaren esakerak eta lorpenak zanpatzeko. Zapaterok ere amore emango du, estatu horiekin ondo konpondu nahi duelako.
**Elene**

**> 24 ORDU LAN**
Orain badago egunero 12 ordu lan egiten duten pertsonak ere. Lege berri horrekin zer egingo dute, 24 ordu lan ala?
**Xabier**

**DATORREN ASTEKOA: 'Biharamuneko pilula' doan ematearekin, ados?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

jardutea egotzitzen diete, ezinezkoa dena prometitzeaz eta Lisboako Hitzarmenak europear burokraziari ematen dizkion botereak artifizialki handitzeaz.

Europako iritzi publiko gehienek Europear Batasuneko elite politiko, periodistiko eta enpresarialek eraman nahi gaituzten paradisu europearrari mesfidantzaz begiratzen diogula ere jakitun izan beharko lukete.

Europear Batasuna barne funtzionamendu ez-demokratikoez baliatzen dela irlandarrak ez dira hori pentsatzen duten bakarrak.

Agintariek ikaragarrizko garrantzia (beraien ustean) duten itun konstituzionalak sinatzen dituzte, baina herritarrok oso une konkretuetan dugu beraiei buruz gure iritzia emateko aukera.

Europaz ezin dugula paso egin esaten digute, erabaki potoloak Bruselan hartzen baidira, baina "legebiltzar" izena mereziko duenik ez da han, alegia, Bruselako burokraziari edo/eta ahalguztiduna den gobernu bati eskua sartuko dionik ez da, ikus bestela zein den bertara alderdi politikoek bidaltzen duten politikarien maila: Iturgaiz, Rosa Diez… Ortuondo? Non dabil gure Ortuondo?

Europar Batasunaren aurrerapenak eta lorpenak saltzeko garaian "pedagogia" falta izan dela diote agintariek, herritarrok adin txikikoak garelakoan daude hauek, ez dakigula zer nahi dugun gure etorkizunarentzat.

65 lanorduko asteak baimentzeko azkeneko erabakiak, Europako agintari neoliberalei zenbat eta botere gehiago eman, gure pentsakerarekin bat ez datozen ideiak babesteko erabiliko dutela agerian uzten du (…). Euzkadi-Europa? *Are you fucking kidding me?*

koplak

**Irati Agirreazaldegi**

## Kirol aukera, modaren arabera

Spinning-a, korrika,
muskulazioa.
Askorentzat kirola
a zer pasioa!

Pasiotik pausoan,
pasa biziora.
Bizikleta hartuta
maldan segi gora.

Aldapa nahi duenak
han ez dago gutxi.
Quebrantahuesos egin
ta hezurrak hautsi.

Hezurrekin nahiko ez
ta hautsi nahi marka.
Badaezpada, paretik
guztiak aparta.

Aparta bizikleta
ta, noski, mallota.
Modara joanez gero,
ez dio inporta.

Kirola nekea zen
orain, berriz, moda,
husten duna sakela
ta kendu denbora.

# Defentsa legitimoa eta biolentzia legitimoa

**Iñaki Arriola Irizar**
Bergara

Ez da erraza izaten biolentziaren legitimitatea marrazten duen muga non dagoen bereiztea, eta beraz, biolentzia hau defentsa legitimo gisa ulertu ahal izatea. Gogoan dut duela 40 urte, Franco garaiko diktaduraren baitan, ETAren izenean hildako lehenengo hilotza ezagutu genueneko egun hura... asko ginen hilketa hori gizartearen erresistentzia beharraren izenean legitimatua genuenak. Egoera jakin honetan, zaila da Txabi Etxebarrieta, hilketa honen eragilea, terroristatzat jotzea, nahiz eta oraindik ere Madrildik hala sinestarazi nahi diguten.

Euskal Herriko mugetatik haratago, biolentzia kasu hura diktadorearen aurkako erresistentzia gisa ulertu zuten espainiar askok. Beste kontu bat da biolentzia hau erresistentzia neurri inteligentea (Marina filosofoak ulertzen duen eran) dela esatea. Nik ezetz esango nuke, besteak beste, biolentzia horrek ondorio larriak baitakartza. Non marraztu genezake muga?, *(¿De aquellos polvos estos lodos?)*. Nork du biolentzia egoerak ekiditeko autoritatea? Eta boterea?

Gaur egun, ETAren atentatu baten ondoren, Euskal Herriaren erresistentzia egoera justifikatzen duten argudioak entzuten jarraitzen dugu. Baina, ezin dugu ahaztu gaur egun Franco ez dugula aurrez aurre eta gaur egun ETAk erraildakoa gure teilatu berean bizi den aldamenekoa izaten dela. Legitimoak al dira hilketa hauek Euskal Herriaren defentsan? Nire bizilagunak ez al dira euskal herritarrak?

Eman dezagun lan istripu baten aurrean aurkitzen garela... zer esango zuten sindikatu guztiek erakunde ofizial batek egoera hau kondenatuko ez balu? Eta gainera egoera sozio laboral hau justifikatzen saiatuko balitz, herentzian jaso dugun egoera baten ondorio dela esanaz, azterketa sakon bat eskatzen duen egoera dela argudiatuz eta kondenak ez duela ezer konponduko esanaz.

Eman dezagun emakume bat bere senarraren eskuetan bortxatua eta eraila izan dela... zer esango zuten partidu politiko guztiek erakunde ofizial batek egoera hau kondenatuko ez balu? Eta gainera egoera hau justifikatzen saiatuko balitz maskulinitatearen pedagogia berri baten beharra aldarrikatuz edota orain artekoak modelo zaharrak gizonaren barnean modelu biolento bat sortu duela esanaz?

Eman dezagun alkoholaren eraginpean gidatzen doan pertsona batek txirrindulari gazte bat aurrean harrapatzen duela... zer esango genuke guztiok erakunde ofizial batek egoera hau justifikatuko balu gizarteak alkoholaren kontsumoan duen jarrera tolerantearen ondorio dela argudiatuz?

Ziur nago honako egoera hauen aurrean euskaldun guztiok sutuko ("eskandalizatuko") ginatekeela. Eta espero dut, berandu baino lehenago, ETAren hilketek ere, era beretsuan sutuko gaituztela guztiok, euskal gizartea guztiz degradatu baino lehen.

Eta arrazoi etiko hauegatik ez bada ere, inteligentziaz (Marina filosofoak ulertzen zuen eran...) jokatu dezagun gure helburuak lortzeko orduan.

Nire ustez, Francok euskal naziotasunaren indar berritzean eragin zuen bezala (kanpotik etorritako herritarrak tartean, hauetako asko ETAko militanteak ere izanak –Paredes Manot *Txiki*; Lopez *Kubati*...) ETAren biolentziak ere euskal herritar asko Konstituzioaren aldera bultzatu ditu. Hau al da ETAk lortu nahi duen helburua?

## Ankurrerako eta Sahararako diru ugari, umeen poza nabari

**Maria Luisa Llona** (Arizmendi ikastola, Ferixalekuko ikasleak)
> Arrasate

Joan zen zapatuan, ekainak 14, Elkartasun Eguna ospatu zen Arrasateko Seber Altube plazan, eta bertan parte hartuz, Ferixalekuko ikasleok euro lasterketa antolatu genuen.

Dirutza ederra lortu zen hara hurbildu zinetenon esku zabaltasunari esker, eta guk bi helburu garrantzitsutarako erabiliko dugu: alde batetik, aurreko urteetan bezala, Ankur deituriko Indiako nesken ikastetxera bidaltzeko; eta bestetik, Saharako umeak kanpamentuetara ekartzeko.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun horretan parte hartu zenuten herritar guztioi, eta jakin ezazue 415 euro eskuratu ditugunez, bi leku hauetara joango direla zuzenean.

Espero dugu datorren urtean ere ondoan izango zaituztegula; gu behintzat han izango gara.

# Aprobetxatu uda euskara sakontzeko!

**Amaia Arana**
(Arrasateko Udal Euskaltegiko zuzendaria)
Arrasate

San Juanak gainean ditugu eta horrekin batera opor usaina, jai giroa, eta, nola ez, ikasturtearen bukaera.

Gure ikasleek oporrak hartuko dituzte, bi hilabeteko atsedenaldia, baina, ez dezatela euskara alde batera utzi; hori izango litzateke guk herritar guztiei, eta, batez ere, gure ikasleei, euskara ikasteko eta sakontzeko hainbesteko esfortzua egiten duten guztiei, transmititu nahi diegun mezua.

Eta ez ahaztu: "Ikas ezazue euskaraz bizitzen!"

Dena dela, jakin ezazue Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasleok uztailean ere hemen gaudela; ikasleen premiei eta nahiei erantzuteko prest.

EGA (Euskara Gaitasun Agiria) atera behar dutenak, euskara sakondu nahiko luketenak, euskalkiaren zirrikituak ezagutu nahi dituztenak... denok etor zaitezkete, denontzat aurkituko dugu irtenbideren bat.

Eta, egon seguru, ondo pasatuko duzue gurekin euskara ikasten.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA** | **Telefonoa: 943 25 05 05** | **Faxa: 943 25 05 12** | **Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**

ZAHARRAK BERRI SAIOA

zaharrak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak**, **erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu GOITBn

Aste honetan:

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean



**NOIZ: ekainak 25 eta 26.**

**NOR: Larraitz Ugarte. Bitart abokatu bulegoa.**

**GAIA: Genero indarkeria**

Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar
**943 00 08 34** telefonora

Babeslea:
kutxa URREZKO ZERBITZUA


Kutxa Inbertsio-Irtenbideak
Kutxan telekomunikazioetako inbertsioa beti gorantz doa.
Telekos gordailu berria. Igo zaitez.
Inberti ezazu telekomunikazioen sektoreko Europako 3 enpresa garrantzitsuenetan (Telefónica, France Telecom eta Deutsche Telekom). Inbertsioak zure kapitalaren %100 bermatu eta %2,5eko gutxieneko errentagarritasun segurua (%1,660ko UTB) eskainiko dizu. Ez itxaron gehiago eta kontrata ezazu abuztuaren 8a baino lehen. Zure inbertsioa %12raino igo daiteke (%7,848ko UTB).
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
Eusko jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 080209 espediente zk.-duna.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA
www.debagoiena.net

**Lanbide profilak**

**Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:**

1. maila
- Instalazio Elektrikoen Langilea
- Iturgintzako Langilea

2. maila
- Mekanizatuko Langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

**MATRIKULAZIOA**

**Ekainaren 30etik Uztailaren 11ra**

**09:00etatik 12:30era**

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
Nafarroa Etorbidea, 21 Pk: 237 20500 Arrasate
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com
Telf: 943 792890




Arizmendi ikastola

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA Nafarroa etorbidea, 21 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890

OPEL CHEVROLET SAAB

**0 Km-aren jaia**

**6.500€tik aurrera**

**Eskaintza hoberenak:**
- 0 Km-etan
- la berrietan
- Direkzio autoetan

**Giauto**
Kontzesionario ofizialak

**GIAUTO OPEL**
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 Salmentak
Tel. 902 345 125 Tailerra
www.giauto.es
clientes@giauto.es

**GIAUTO CHEVROLET**
EIBAR · OLABERRIA
Tel. 902 345 225
www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es

**GIAUTO SAAB**
BERGARA
Tel. 943 763 347
www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es

**Arrasate** > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > **33**
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Mesedeetako Andra Mari ikastetxea itxi egingo dute **> 19**



**> BERGARA**
Asteleheneko euri jasa bortitzak arazoak sortu zituen **> 24**



**> ESKORIATZA**
Errekan Gora jaialdia antolatu dute uztaileko zapatuetarako **> 34**



**> LEINTZ-GATZAGA**
Baserrietara doazen bideak zabaldu nahi ditu Udalak **> 39**



**MERKATARITZA ETXE IREKIA** Kanpaina horrekin, herriko dendek merkataritza etxe ireki gisa funtzionatzea nahi dute. NEREA MENOR

**ARRASATE** > MERKATARITZA

# Ibai-Artek txartel berezia kaleratuko du bezeroen leialtasunari eusteko

**ABANTAILA ASKO**
Beherapenak, opariak, finantzaketa bereziak eta beste hainbat gauza eskainiko ditu

**TXARTEL BERRIA**
Irailean hasita erabiltzen hasiko da, eta eskatzen duenari oparia emango zaio

**NEREA MENOR** > ARRASATE

Joan zen astelehenean, leialtasun edo fidelitate proiektua aurkeztu zuen Ibai-Artek dendari-bazkideen aurrean. Arrasateko dendarien eta bezeroen mesederako txartel berezi bat aterako dute laster.

Txartelaren bitartez, bezeroei opari, promozio, beherapen, finantzaketa berezi, zozketetan parte hartzea ahalbidetuko dien puntu sistema eta beste hainbat abantaila eskainiko zaie.

Uztailean, abuztuan eta irailean, nahi duenak Ibai-Arte txartela eska dezake elkartean dauden dendetan edo Rural Kutxaren bulegoan. Eskatzen duten bezeroei oparia emango zaie. Txartela irailean hasiko da erabiltzen. Aurrera begira, dendetan ez ezik, gasolindegi eta aparkalekuetan ere erabili ahal izatea da nahia.

**TXARTELAREN EZAUGARRIAK**
Txartelarekin erosten duten bezeroek abantaila asko izango dituzte. Aurretik aipatutako zerbitzuez gain, ondorengo ezaugarriak izango ditu txartelak: doakoa izango da, hileroko muga 1.200 euro izango da, hiru hilabetean ordaintzeko aukera egongo da (inolako interesik gabe) eta martxan jarriko diren eskaintza guztietan parte hartu ahal izango du bezeroak.

Merkataritza etxe handiak ugaritu egin dira –Eibarren, El Corte Ingles irekiko dute laster. Merkataritza etxeen gertutasuna, hiriburuak bertatik bertara izatea eta hainbeste entzuten den krisiari, AP-1 autobidearen irekiera batzen badiogu, herriko merkatariak mehatxu handien aurrean aurkitzen direla uste dute. Egoerari aurre egiteko fidelizazio egitasmo horrek helburu anitzak ditu: Arrasateko dendarien arteko elkarlotura izatea eta elkartasuna bultzatzea; herriko denda txikien garapena sustatzea eta erosketetan finantzaketa egokia eskaintzea, besteak beste. Horrela, elkartearen laguntzaz, herriko denda guztiek merkataritza etxe ireki gisa funtzionatu ahal izango dute.

## Bergarako eta Oñatiko merkatari elkarteek aspaldi jarri zuten martxan txartel berezia

Duela hiru urte aurkeztu zuen txartela Bergarako Bedelkar elkarteak, Rural Kutxa zabaldu zutenean. "Bezero berriak lortzeko asmotan-edo, merkatarien aldeko apustua egin zuen Ruralek, eta herriko merkatariekin batera txartelaren egitasmoa atera zen", dio Bedelkarrek. Ibai-Arteko txartelak dituen abantailak ditu horrek ere, baina ez da askorik erabiltzen. "Jendeak txartel asko dauzka, gurearekin %0,8ko beherapena lortzen dute, baina beste txartel batzuek ere deskontuak egiten dituzte".
Bergaran txartela aurkeztu zutenean, Oñatin bazen Txanda txartela martxan, Rural Kutxarekin elkarlanean baita ere. Dendaren arabera, gehiago edo gutxiago erabiltzen dela dio Txandak, eta "beherapen garrantzitsuagoak daudenean edo promozio kanpainetan erabilera asko gehitzen da".

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 22 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 23 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 24 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 25 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 26 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 27 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 22 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 23 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 24 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 25 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 26 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 27 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 22 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 23 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 24 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 25 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 26 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 27 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 23 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 24 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 25 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 26 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 27 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 21**

Zerua hodei gutxirekin egongo da orokorrean, baina bero hodeiak sortzeko arriskua egongo da arratsaldean.Tenperaturak gutxi igoko dira.



**Domeka, 22**

Zerua hodeiguneekin egongo da. Arratsaldean hodeiak uguritu egingo dira eta egunaren bukaeran euria egingo du.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan, giro dotorea eta termometroa 26-30ºC-ren artean. Egun eguzkitsua, tarteka hodei makalen batek itzal eginez. Arratsaldean zehar, berolainoak garatzen joango dira. Domekan, tenperaturak mantenduko dira. Hodeiak ugarituko dira eta egunaren bukaeran oso hodeitsu egongo da.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 14 — **11 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 15 — **24 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **69,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 11** | 20 ºC | 15 ºC | 0,1 l/m² |
| **Eguena, 12** | 23 ºC | 17 ºC | 0,4 l/m² |
| **Egubakoitza, 13** | 17 ºC | 14 ºC | 4,1 l/m² |
| **Zapatua, 14** | 22 ºC | 11 ºC | 0,1 l/m² |
| **Domeka, 15** | 24 ºC | 12 ºC | 6,3 l/m² |
| **Astelehena, 16** | 23 ºC | 15 ºC | 58,6 l/m² |
| **Martitzena, 17** | 19 ºC | 14 ºC | 0,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA EKAINEAN

| Ilberri | Ilgora | Ilbete | Ilbehera |
|---|---|---|---|
| **3** | **10** | **18** | **26** |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 'Askatasun sexuala' delako hitzaldia**
*Askatasun sexuala* delako hitzaldia egingo du EHGAM elkarteko kide batek eguaztenean, hilak 25, udaletxean, 19:00etan. Ekainaren 28an Sexu Askapenerako Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute.

ARRASATE
**> Udal Euskaltegian matrikula egiteko**
Udal Euskaltegiaren udako ikastaroetako matrikulazio epea zabalik dago. EGA agiria atera, euskara sakondu, euskalkia hobeto ezagutu… gura duenak horretarako aukera du. Argibideak: 943 79 70 77.

BERGARA
**> Udarako irteerak 12-18 urte artekoendako**
Honako irteerak antolatu ditu Udalak: Ebro ibaian *rafting*-a (13-18 urte), Arcachongo Aquaparkera (12-18 urte) eta kanoa zeharkaldia Urdaibain (12-18 urte). Izenemate epea zabalik dago.Argibideak: 943 77 91 00.

ARETXABALETA
**> Yoga ikastaroa emango du Aredhanak**
Aredhana yoga eta psikoterapia eskolak yoga ikastaroa emango du uztaileko martitzenetan eta eguenetan, 20:00etan. Hasiberriendako ere egokia da. Argibideak: 616 96 57 95.

ARRASATE
**> Thai masaje eta meditazio tailerra**
Masaje tailandiar eta meditazio tailerra emango du Arrasate Yoga Elkarteak bihar, zapatua, 10:00etatik 14:00etara. Hasiberriek ere egin dezakete. Argibideak, 616 96 57 95 telefonoan.

BERGARA
**> Txalaparta ikastaroa egongo da uztailean**
Jardun euskara elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du uztaileko lehenengo bi asteetarako, martitzen eta eguenetarako. Arrizuriagan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 943 76 36 61.

ARRASATE
**> Udarako, bi ikastaro trinko dago AEK-n**
Udarako, bi euskara ikastaro trinko antolatu ditu AEK euskaltegiak, 16 urtetik gorakoendako. Uztailean eta irailean izango dira, hilabete bakoitzean hiru astean, egunero hiru orduan. Argibide gehiago, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aek.org* posta elektronikoan.

ANTZUOLA
**> 1967 eta 1968an jaiotakoen ospakizuna**
1967an eta 1968an jaiotako antzuolarrek batera afaltzeko aukera izango dute hilaren 28an Ongi Etorri jatetxean. Izena emateko, deitu 600 67 66 01 telefonora (Iñigo) edo joan Aixa frutategira edo Peli okela dendara.

ARRASATE
**> 1958an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxean. Parte hartzeko, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

ESKORIATZA
**> San Pedroetako Euskal Jai eguneko herri bazkarirako txartelak erosteko aukera**
Euskal Jai egunean, herri bazkaria egongo da, honako menuarekin: entsalada, txuletak parrillan, intxaurrak, gazta eta irasagarra, kafea eta patarra. Txartelak Goxotxiki, Inkernu eta Aldatz tabernetan salduko dituzte ekainaren 26a arte, 18 eurotan. Lekua gorde daiteke 943 71 46 88 telefonora deituta.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

OÑATI
**> 1964an jaiotakoek bazkaria izango dute**
1964an jaiotako oñatiarrek batera bazkaltzeko aukera dute uztailaren 19an, Etxe Aundi jatetxean. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko kutxako 3035 0005 36 0050044096 kontuan.

OÑATI
**> Bidegorri sarea eskatzeko bizikleta martxa**
Txirrinka bizikletazale elkarteak bidegorrien aldeko hileko bizikleta martxa egingo du gaur, egubakoitza. Herriko plazan batuko dira, 18:30ean, eta, herriko kale nagusiak zeharkatu eta gero, berriz plazara joango dira.

BERGARA
**> Lehen Hezkuntzako umeendako udalekuak**
Antxintxika izeneko udalekuak antolatu ditu Jardunek. Irailaren 1etik 4ra izango dira, Hondarribian. Bergarako Lehen Hezkuntzako edozein umek eman dezake izena.

ANTZUOLA
**> Larrain dantza egiteko entseguak**
Antzuolako jaietako domeka iluntzean, uztailaren 20an, 20:15ean, Larrain dantza egingo dute. Hori ikasteko entseguak egiten hasi dira. Herriko eskolan batzen dira. Antolatzaileek parte hartzera animatzen dituzte herritarrak.

kale inkesta

# Pentsatu duzu oporretara nora joango zaren?



**Ainara Muxika**
Langilea
Bergara

Momentuz, ez dugu ezer pentsatu. Ume txikia ere badaukagu, eta martxaren arabera aukeratuko dugu nora joan. Hala ere, mendira –Errioxa, Pirinioak– eta hondartza aldera joango gara.



**Christian eta Eli Rodriguez**
Ikasleak
Bergara

Bai, dagoeneko erabakita daukagu nora joango garen udako oporretan. Kanpinera Bañaresera (Errioxa) joango gara gurasoekin abuztuan. Hondartzara joatea ere gustatzen zaigu.



**Puri Bakaikoa**
Etxekoandrea
Bergara

Duela gutxi gelditu naiz alargun, eta gogo gutxi daukat norabait joateko. Senarra Kordobakoa zen, eta egun batzuetan haraxe joango naiz. Bestela, herrian bertan igerilekuetan ere ibiliko naiz.



**Benito Cantero**
Langilea
Bergara

Erabakita daukagu nora joan. Uztail amaieran Dolomitetara joango gara lagun batzuekin, eta ondoren, emaztearekin batera Portugal aldera, baina zehazki ez dugu erabaki zein lekutara.



**Abdelouahab Bouabsa**
Langilea
Bergara

Ez dut erabaki, azken momenturako uzten ditut halako gauzak. Seguru aski Espainiako hegoaldera joango naiz, Andaluziara, hango txokoak ezagutzera eta eguzkia hartzera.

txistuak



GOIENKARIA

# Non daude argiak pasabidean?

Bergarako irakurle batek bidali digu aste honetan kexa. Herritar horrek zera salatu nahi du: autobus geltokiaren atzean dagoen pasabidean –lehengo trenbide zaharra pasatzen zen tunela–, batzuetan bertako argiak ez direla piztuta egoten. Gainera, bide horretatik paseoan jende asko ibiltzen da egunero, eta oso arriskutsua izan daiteke.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 5.500

Hori izango da Arrasateko ikastetxeetan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako gaztetxoen artean banatuko duten informazioa emateko pergamino kopurua. Urtero egiten dute ikasturte amaierako sari banaketa ikasleen artean. Aurten, Pedro Biteriren bizitzaren gaineko pergaminoak banatuko dituzte.

usteak uste

Jasone Zabala

# Reala baino errealagoa da bizitza

Badakit asko idatzi dela egunotan futbol kontuetaz, eta noski, nola ez, Realaz ere bai. Ekainaren 15ean izugarriko ezustea hartuko genuen batek baino gehiagok. Zenbat sufriarazten diguten txuri-urdinek... Aste osoan, askoren lan jardunean ez da beste hizketa gairik egon, aurpegi goibelak martitzena arte... Asko eta asko, ezin sinisturik. Realaren lekua lehen maila dela, urtebete gehiago ezin daitekeelea taldea bigarren mailan egon... Baina errealitateak erakutsi digu gure gogo eta nahiak zapuztuta gelditu zirela pasa den domekan. Diru kantitate itzelak bueltaka ligako azken jardunaldietan, akusazioak bueltaka Xixondik Malagara eta handik Donostia aldera. Baina azkenean, erregulartasunak– eta zorte pixka batek ere bai– eramaten du talde bat lehen mailara, eta gure taldeak ez du hori erakutsi azken jardunaldietan. Horrek ez du kentzen baina, Xixongo Sporting taldeko jokalarien jarrera onartezina. Onartu ezin daitezkeen hitz zatar asko esan zizkioten igoera ospatu zuten egunean Badiolari. Errealitatea beti izaten da krudela. Aurrera jarraitzen du baina, Reala baino errealagoa den horrek, bizitza berak.

5 galdera...

# Edith Eguren

Iratxo mertzeria
Bergara

**1. Uda ate joka dago. Bainujantzia ezinbestekoa izaten da. Jendea hasi da bainujantziak erosten ala uztail edo abuztura arte itxaroten du?**

Jendea lasai dabil oraindik bainujantziak erosteko orduan. Gainera, aurten, eguraldiak ez du oraindik batere lagundu, eta jendea oraindik ez da animatu. Eguraldi ona egiten duenean animatzen da jendea bainurako arropak erostera.

**2. Bainujantzietan ere egoten dira modak emakume eta gizonen artean?**

Modari dagokionez, mutil gazteek nahiago izaten dituzte bainujantzi luzeak, belauna baino pixka bat beherago gelditzen direnak; gizonek, berriz, belaunetik gorakoak gelditzen direnak. Emakumeetan zailagoa izaten da moda kontuetan asmatzea, bai koloreetan eta baita modeloetan ere.

**3. Koloreen aldetik ere egon da aldaketarik azken urteetan. Zeintzuk dira azken urteetako koloreak?**

Guretzako lehenengo urtea da hau, baina, orain arte ikusitakoarekin, esan daiteke gehien eramaten dena kolore bizi eta ilunak nahastea dela, eta, beti bezala, jendeak asko eskatzen du beltza, modaz pasatzen ez den kolorea delako.

**4. Jendeak zer erosten du gehiago, bainujantzia ala bikinia?**

Gehienbat bikinia saltzen da neska gazte eta adin ertaineko emakumeen artean. Bainujantzia, berriz, gehienbat emakume nagusiek erosten dute.

**5. Bainujantzi bat erostera goazenean, zer izan behar dugu kontuan?**

Kontuan izan behar dena, batez ere, bainujantzi mota eta neurria da. Jantzita dugula eroso sentitu behar dugu bainujantzi edo bikiniarekin, baina batez ere erosotasuna kontuan izan behar da bikinietan.






Arrasateko pertsona ezagun asko elkartu zen Ino Udaletxera ekimenaren aurkezpen ekitaldian, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, martitzenean. UBANE MADERA

## Sinadurendako eguna eta ordua

**Ekainaren 20an**
19:00-21:00 Portaloian eta Arimazubin

**Ekainaren 21ean**
12:00-14:30 Portaloian
19:00-21:00 Portaloian

**Ekainaren 22an**
12:00-14:30 Ziorla taberna inguruan (Musakola auzoan)

**Ekainaren 23an**
19:00-22:30 Portaloian

**Ekainaren 24an**
20:30-22:00 Herriko Plazan

**Ekainaren 25ean**
18:15-21:00 Monterron parkearen aurrean

**Ekainaren 27an**
19:00-21:00 Portaloian eta Arimazubin

**Ekainaren 28 eta 29an**
Musakolako kiroldegiko igerilekuetan

**Uztailean**
Arrasateko lantegietan jardungo dute sinadurak batzen

**POLITIKA** > INO UDALETXERA EKIMENA

# Ino Udaletxera ekimena, alkatearen askatasuna exijitzeko mugimendua

### Asteon aurkeztu dute Ino Udaletxera ekimena; 70 herritar inguruk horrekin bat egin du

### Sinadurak batzen hasi dira eta, ekainaren 29ra arte, ia egunero ipiniko dute mahaia

**UBANE MADERA**> ARRASATE

"Inoren kartzelaratzea bidezkoa ez izateaz gainera, basakeria hutsa izan da. Ez da bidezkoa, batere kulparik ez duen pertsona bat kartzelaratu dutelako. Eta basakeria izan zen, egin zuten moduarengatik: prentsaren bidez jakin zuen hark Auzitegi Nazionalera deitu zutela eta, hark dioen moduan, hor hasi zen amesgaiztoa. Pentsatuz deklarazio huts batzuk egitera zihoala, denok dakizue zeintzuk izan diren ondorioak".

Berba horiekin deskribatu zuten Ino Galparsoro Arrasateko alkatearen kartzelaratzea, Ino Udaletxera izeneko ekimenaren aurkezpen ekitaldian. Eta azaldu zuten kartzelaratze "onartezin" hori salatzeko eta "dagokion lekuan" Arrasateko alkatearen "askatasuna aldarrikatzeko eta exijitzeko" sortu dutela, hain zuzen, ekimen hori.

Azpimarratu gura izan zuten, baita ere, zabalik dagoela Ino Udaletxera ekimena arrasatear guztiendako: "Herritar guztien gizalegezko eskari baten oihartzun bihurtu nahi dugu Ino Udaletxera ekimena. Hemen elkartu gara kolore guztietako pertsonak: dendari, politikari, sindikalista... kolore anitza eman gura izan diogu ekimen honi".

Kolore ugari horien adibide izan ziren udaletxeko areto nagusian elkartu ziren aurpegi ezagunak. Politikarien artean, Isidor Solupe EAJko Uri Buru Batzarreko arduraduna, Amaia Larrañaga EAko zuzendaria Arrasaten, Joxe Etxeberria Aralarko bozeramailea, Julia Monje Zutik alderdiko ordezkaria eta Ander Rodriguez EBko bozeramailea, besteak beste. Enpresaburuen artean, Jose Mari Ormaetxea Arrasateko Mugimendu Kooperatibistaren sortzaileetako bat; eta musikarien artean, Ines Osinaga (Gose) eta Oier Beitia (Des-Kontrol) abeslariak. Han izan ez arren, beste ezagun askok eman dute atxikimendua; adibidez, Lopez Rekarte anaia futbolariek, Mikel Gonzalez Realeko jokalariak, Maria Jose Gil korrikalariak eta Josemari Velez de Mendizabal historiagileak.

**ALKATEA, "INDARTSU"**

Ino Galparsorori dagokionez, oraingo astean izan du familiaren bisita eta, haiek kontatutakoaren arabera, "ondo eta indartsu" dago. Soto del Real kartzelan segitzen du, "ez dakigu noiz arte, halakoak ezin izaten ditugu-eta jakin", dio familiak. Erregimen normalean dago, "bestelako euskal presoekin"; horrek esan gura du astero izan ditzakeela bisitak eta hilean behin, berriz, bisean biseko bisitak. Bestalde, familiak esandakoaren arabera, dagoeneko hasi da herrikideen gutunak jasotzen. Horren harira, San Juan jaietako egitarauan alkatearen helbidea ipini dute, gura duenak idatz diezaion: Ino Galparsoro Markaide, Centro Penitenciario Madrid V (modulo 12), carretera comarcal 611, Soto del Real 28791 Madrid. Horrez gain, bloga ere sortu dute: *aurrerabolie.org* da beronen helbidea. Galparsororen aldeko mural bat ere egin zuten.

Bestalde, aurrera jarraitzen du alkatearen kartzelaratzearen kontra defentsak aurkeztutako errekurtsoak. Garzonek hura ez onartu eta gero, dagokion bidea jarraitu eta Auzitegi Nazionaleko Zigor-Arloko Salan dago orain. Defentsak azaldu duenez, eskatu dute beste bista bat egiteko, Galparsororen askatasunari buruz, eta momentu honetan data ipintzeko erantzunaren zain daude.

EKAINAREN 30EAN, BI HILABETE ALKATEA ATXILOTU ZUTELA

## Deklaratzera joan, eta kartzelan geratu

Baltasar Garzon epaileak apirilaren 30erako deitu zuen deklaratzera Ino Galparsoro. Zitazioak zioen "agintari judizialari desobedientzia" egin ziola eta Auzitegi Nazionalera joan behar zuela inputatu gisa. Ezohiko osoko bilkura batean PSE-EEk eta EAJk elkarrekin aurkeztutako *mozio etikoari* udalbatzarrak ezetza eman eta biharamunean erabaki zuen epaileak Galparsoro deklaratzera deitzea. Arrasateko alkateak komunikabideen bidez jakin zuen hori. Deklaratu ostean, Auzitegi Nazionaleko ziegetara eraman eta gauean kartzelaratzeko agindua eman zuen epaileak.

Harrezkero makina bat ekimen egin da Galparsororen alde. Arrasateri dagokionez, kartzelaratu eta egunean bertan elkarretaratzea egin zuten, hiru egun geroago manifestazioa eta maiatzaren 8an greba orokorra. Erakundeetara begiratuta, Mankomunitateko batzordeak aho batez onartuta dauka kartzelaratzearen kontrako adierazpena; baita udal langileek eta udal gobernuko kideek ere.



Ume talde bat Biteri plazan Galparsororen aldeko murala margotzen. GOIENKARIA

**HEZKUNTZA** > MESEDEETAKO ANDRA MARI IKASTETXEA

# Ikasturtea bukatuta, Mesedeetako Andra Mari ikastetxea betiko itxita

Ikastetxea itxi arren, Mesedeetako elkartekideak –gaur egun, 12 moja dira– Arrasaten geratuko dira; 1892az geroztik daude udalerrian

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, itxiko dituzte ateak Arrasateko ikastetxeek, irailera arte oporrak hartuta. Baina, oraingo honetan, ikastetxe bat nabarmendu beharra dago; izan ere, Mesedeetako Andra Mari ikastetxearen kasuan, betiko itxiko ditu ateak, eskolak emateari utzi egin behar diote-eta mojek –oraingo uztailean, baina, haurtzaindegi zerbitzua izango du.

Eskolak emateari uzteaz gainera, ikastetxean duten elizan, Mesedeetako elizan, aurrerantzean ez dituzte meza gehiago esango, edo, termino zehatza erabilita, gurtza-zentro moduan itxi egin dute. Hain zuzen ere, joan den domekan esan zuten gurtzazentroa ixteko meza.

Ikastetxea ixtearen arrazoia ekonomikoa da. 2006ko irailean jakinarazi zuten Mesedeetako elkartekideek egoera okerrean zegoela ikastetxea eta, beste irtenbiderik ezean, itxi egingo zutela. Bada, iritsi da egun hori.



Argazkian, Andra Mari ikastetxearen patioa, eskola-irteera orduan, eguaztenean. UBANE MADERA

**IRAKASLEAK KALEAN**

Orain, ikastetxean lanean diharduten 20 langile inguru (irakasle eta garbitzaileak) kalean geratuko dira. "Abuztuaren 31ra arte dugu kontratua, baina gero kalean geratuko gara. Orain kalteordainak-eta negoziatzen gabiltza, baina, momentuz, ez dugu adostasunik lortu", jakinarazi dute. Kontatu dute, baita ere, badirela irakasle batzuk 20 urte baino gehiago daramatzatena Mesedeetako Andra Mari ikastetxean beharrean. Jakina, zentroko ikasleek ere –0tik 16 urtera artekoak; orain 160 ikasle inguru geratzen ziren– beste ikastetxe batzuk aukeratu behar izan dituzte datorren ikasturteari begira: "Gela batzuk osorik publikora doaz; beste ikasle batzuk, berriz, bestelako ikastetxe batzuetara joango dira".

**MOJAK GERATU EGINGO DIRA**

Mojei dagokienez, berriz, gaur egun 12 elkartekide ditu Arrasateko Mesedeetako erlijio-elkarteak. 1892az geroztik daude Arrasaten, eurek esandako moduan, "herriaren mesedean lanean, gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzen dispentsarioan, eta gure eskolarekin". Hain justu, San Frantzisko parrokiako klaustroetan –gaur egungo Kulturateko klaustroetan– hasi ziren eskolak ematen neskei, eta 1969an hasi ziren Jose Luis Iñarra kalean, gaur egun dauden lekuan; eraikin berria egin zuten horretarako, besteak beste, Santamaina baserria zegoen lekuan.

Orain, eskola itxi arren Arrasaten segituko dutela jakinarazi dute: "Zer gertatuko litzateke bestela eraikinarekin? Ez, ez. Gu hemen geratuko gara".

**EZINGO DUTE ESPEKULATU**

Horren harira, eraikinaren harira, alegia, aurrerantzean ez dute eskola moduan erabiliko, eta bestelako erabileraren bat emango dioten edo ez, hori ez dute jakinarazi mojek. Hori bai, segurua dena da ezin izango dutela saldu orube hartan etxeak eraikitzeko. Izan ere, ikastetxea ixteko arriskuaren aurrean eta lursail horrekin espekulaziorik ez gertatzeko, udalbatzarrak erabaki zuen zerbitzuen erabilerarako kalifikazioa ematea; modu horretan, ezin izango da etxerik eraiki.

**HIRIGINTZA** > URIBARRIKO ETXEAK

# Kutxaren errekonozimendua, etxeei

**TXOMIN MADINA**> ARRASATE

Garaiaren parean eraikitzen dabiltzan 40 etxebizitzek Kutxaren errekonozimendu berezia jaso dute. Hain zuzen, Kutxak aurten lehenengo aldiz eman duen Hipoteka Berdea errekonozimendua jaso dute. Hala, horietako etxebizitzetako bat erosi eta hura ordaintzeko Kutxaren hipoteka kontratatu dutenei 1.000 euro jaitsiko diete hipoteka.

Etxebizitza horietan energia era egokienean erabiltzeko eta aprobetxatzeko egin duten ahalegina eta ekimenak baloratu dituzte Kutxako teknikariek banketxeko errekonozimendua emateko orduan.

Hain zuzen ere, Uribarrin eraikitzen dabiltzan 20 etxebizitzako bi blokek jaso dute errekonozimendua. Etxeon obrak ia bukatuta dituzte eta etxebizitza horien giltzak San Juanetarako jabeei ematea espero dute. Horrez gainera, beste 40 etxebizitza eraikitzen dabiltza, datorren urtean bukatzeko, eta, aurreikuspenen arabera, beste 35 eraikiko dituzte. Horiez gainera, babes ofizialeko beste 44 etxebizitza ere eraikiko dituzte. Uribarri enpresa elkartea dabil obra hori egiten, Sukia eta Gedi enpresek osatutako enpresa elkartea.

Jose Manuel Egañak, Uribarriko kudeatzaileak, esan duenez, asmoa da etxebizitza guztiak izatea errekonozimendua jaso dutenaren modukoak.



Argazkian, errekonozimendua jaso duten Uribarriko etxeak. SUKIA



GOIENKARIA

# Museko lehen saria, Oñatira

Hara hemen XII. San Juan Jaietako Mus Txapelketako lehiaketako irabazleak, poz-pozik, saria jasotzen. Oraingo honetan Oñatira joan da txapela, Julian Albizu eta Juan Martinek osatutako bikoteak irabazi zuenｅta Doke kafetegian joan den asteburuan jokatutako lehiaketako lehen saria. Bigarren saria, berriz, Eskoriatzara joan da, Harkaitz Idigoras eta Unai Armendarizen eskuetara, kasu horretan.

Guztira, 32 bikotek parte hartu dute aurtengo txapelketan. Irabazleei sariak entregatzen (argazkian) Viki eta Martha ahizpak ageri dira, Dokeko ugazabak.

**HEZKUNTZA** > UDALA ETA IKASTETXEAK

# Pedro Biteri gogoratzeko ekimena, abian

## Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 5.500 pergamino banatu dituzte ikasleendako

Arrasateko eta Gipuzkoako herri hezkuntzaren sustatzailearen heriotzaren mendeurrena da

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Herriko ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eta euren gurasoek Pedro Biteri zenaren bizitzaren gaineko pergaminoa jaso dute egunotan. Udaleko Hezkuntza Sailak eta ikastetxeek paper informatzaile horiek egin dituzte, Arrasateko eta Gipuzkoako herri hezkuntzaren sustatzaile izan zenaren heriotzaren mendeurrenean bere ibilbidea gogora ekartzeko. Guztira, 5.550 pergamino banatu dituzte.

Ekimena eguaztenean aurkeztu zuten udaletxeko bilkura aretoan. Hezkuntza zinegotzi Oihana Aranbururekin eta Hezkuntza teknikari Juanito Garberarekin batera, Arizmendi ikastolako zuzendari Txaro Iraeta, Mesedeetako zuzendari Amaia Larrañaga eta Herri Eskolako zuzendari Josune Etxabe izan ziren esandako ekitaldian.

**BITERI ESKOLAK BULTZATUAK**

Aranburuk gogora ekarri zuen Udala aspalditik duela ikasturte amaieran ikasleei sariak emateko ohitura. Aurten, Biteri hil zeneko mendeurrena dela aintzat hartuta, haren ekarpenak jasotzen dituen ekimena abian jartzea erabaki zutela azaldu zuen. Are gehiago, sari banaketa horiek Biteri eskolak bere garaian sortuak izan zirela kontuan izanda.



Pergaminoa aurkeztu zuten eguaztenean udaletxean. MIRIAN BITERI

Garberak aipatu zuen pergaminoak Biteriren ibilbidearen hainbat "zertzelada" jasotzen dituela. Arrasatear horren figura gogoratzearekin batera, Arrasateko eskolako irakasle Felix Aranoren eta Biteriren emazte eta irakasle Teresa Gartziaren gaineko informazioa ere ematen du.

"Idatzi honen bidez, Udalak nahi du, batetik, ikasleei eta gurasoei ezagutaraztea Biteri hezkuntzaren alde egindako ekarpena, eta, bestetik, hiru maisu-maistren figurak gogoratzea eta omentzea", dio, besteak beste, pergaminoak. Idatziaren bukaeran, arrasatearren esker ona helarazi gura izan dute ondoko oharraren bidez: "Ahazten ez zaituzten Arrasateko herriak eta ikasleek, esker onez".

Garberak jakinarazi zuen pergaminoa soka batekin lotuta eman zaiela ikasle nahiz gurasoei, ikastetxeetan. Ekimen horren bidez, Biteri inguruko informazioa "Arrasateko biztanleriaren laurdenari" helarazi zaiola esan zuen.

> MUSIKA

### Tigger Travis, Küm eta Seventhate izango dira gaur 3.60 aretoan

Astero bezala, kontzertuak izango dira gaur, egubakoitza, gauean 3.60 aretoan. Lehenik eta behin, Tigger Travis, Küm eta Seventhate taldeak igoko dira agertokira. Musika emanaldiei 22:30ean emango diete hasiera. Sarrerak zortzi euro balio du.

Jarraian, 04:00 aldean, Rare Wiri Rec party jaialdi elektronikoaren txanda iritsiko da 3.60 aretoan, Fernando Pineda & Alainen emanaldiaren bidez.

> MUSIKA

### Arrasate Musikalek kurtso bukaerako kontzertua du gaur

Lanpetuta dabiltza egunotan Arrasate Musikalekoak, astebete daramate-eta kontzertuak eskaintzen, eta oraindik ez dute aurreikusitako egitarauarekin amaitu. Gaur, egubakoitza, musika emanaldia eskainiko dute aurtengo ikasturteari amaiera emateko. Kurtso bukaerako kontzertu moduan ezagutzen da gaurkoa. Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia Amaia antzokian izango da, 18:30ean.



5urte

kalitateko egunkaria egiten




*Euskaldun guztiengana iristea da gure erronka*

Eskuratu **berria**

berria
luzatu bostekoa

**ARETO FUTBOLA** > ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

# Lasagabasterrek eta Ciprisek jokatuko dute bihar finala, 18:00etan

Aurtengo Zaldibarko Txapelketako irabazleak lehenengoz eskuratuko du ligako titulua; faboritoak bidean geratu dira


HLB 108 eta Irizturen arteko norgehiagokako une bat, liga erregularrean. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Zaldibarko Txapelketako finala jokatuko dute bihar Lasagabasterrek eta Ciprisek. Bi talde horiek sorpresa eman dute txapelketan, hasieran gutxik sartuko lituzketelako faboritoen zerrendan. Faborito izan barik, kantxan erakutsitako gogo, jarrera eta futbol mailagatik daude hor; finalera inor ez da kasualitatez iristen.

Finalerdietan Lasagabasterrek penaltietan kanporatu zuen ordura arte txapelketa biribila egiten zebilen McAwen Dauen taldea –liga erregularreko talde onena izan da azken hori, partidu bakarra baino ez dutelako galdu–. Beste finalerdian aurten debuta egin duen talde batek egin zuen aurrera: Ciprisek. Hain zuzen, Kopako finalera iritsi ziren Dribling eta Cipris izan ziren finalerdian aurrez aurre. Orain dela hilabete jokatutako final hartan Dribling gailendu zen, baina zapatuan Ciprisek errebantxa hartu zuen (4-1). Egia da Driblingeko hainbat jokalari min hartuta egon direla, eta talde hori gura baino jokalari gutxiagorekin azaldu zela partidura. Finalerdian, baina, Ciprisek partidu biribila jokatu zuen; gehiago izan ziren eskoriatzarrak.

**3. ETA 4. POSTUAK ERE JOKOAN**
Finala 18:0etan jokatuko badute ere, 16:30ean hasita lehiatuko dira Dribling eta McAwen Dauen hirugarren sailkatzeko. Eta, ondoren etorriko da final handia. Partidu ondoren, berriz, antolatzaileek sari banaketa egingo dute, eta txapeldunak eta finaleko jokalari onenak saritzearekin batera, txapelketa osoko jokalari onenei ere saria emango diete. Hauek dira aurten nabarmendu diren jokalariak: Oscar Sanchez *Pecho* (Dublin), Joseba Errasti (Cipris), Iker Leibar (McAwen), Juan Pablo Morillo (Betrayer), Ronald Blanco (Lasag.), eta Asier Manso (Dribling). Goleatzaile onenaren saria, berriz, Julen Ribasendako izan da (McAwen).

**TXAPELKETA, ONDO**
Finalaren atarian, antolatzaileei txapelketaren balorazioa eskatu diegu: "Orokorrean txukun joan da txapelketa. Hori bai, datorren urtera begira eskaera bat: talde bat osatzen dutenek har dezatela urte osorako konpromisoa, ez dezatela zortzi laguneko taldetxo bat egin, ea zer gertatzen den ikusteko". Horrekin batera, antolatzaileek hausnarketa egingo dute taldeei noiz jokatu erabakitzeko eman zaien aukeraren gainean: "Jendeak ze ordutan jokatu gura duen ere eskatzen du, eta hori larregikoa da, eromena guretako".

**KIROLDEGIA** > UDA KANPAINA

# Ekainaren 27a, izena emateko azken eguna

Aukeak gertu du aurtengo 'Udan mugi zaitez!' kanpaina; dagoeneko hasi dira izenak hartzen

**X.U.** > ARRASATE
Urtero moduan, aurten udako kirol kanpainak ere bi txanda izango ditu, eta Aukean dagoeneko hasi dira txanda horietarako izenak hartzen. Hala, ekainaren 27a da lehenengo txandan izena emateko azken eguna, eta uztailaren 10ean amaituko da bigarren txandarako izenemate epea.

**URETAKO KIROLAK**
Piraguismoa da Arrasateko kirol instalazioetatik kanpo egingo duten jarduera bakarra. Hala ere, uda sasoian eskaintza erakargarrienetako bat izaten da. Lehenengo txandan ekainaren 30etik uztailaren 4ra arte egingo dute ikastaro hori. 8-12 urte bitartekoek 10:00etatik 12:00etara egingo dute jarduera hori, 12-16 urte bitartekoek 16:00etatik 18:00ak arte, eta helduek 18:00etatik 20:00ak arte (abonatuek 21 euro, gainontzekoek 28 euro).

Bigarren txandan ere ordutegiak berdinak izango dira, eta uztailaren 7tik 11ra egingo dute txanda hori.

Piraguismoarekin batera, honako ikastaroak ere izango dituzte erabiltzaileek eskura: patinajea ekainaren 30etik uztailaren 11ra arte egingo dute lehenengo txandan, eta uztailaren 14tik 28ra bigarrenean. 20-16 urte bitartekoek 18:30etik 19:30era egingo dute ikastaroa, eta helduek 19:30etik 20:30era (abonatuek 21 euro, gainontzekoek 28 euro). Hala, patinajeaz gain skate ikastaroa egingo dute, egun, ordutegi eta prezio berean.

**ESKAINTZA GEHIAGO**
Aipatutako ikastaroez gain, aukeran daude, baita ere, tenisa (goiz eta arratsalde, ordu beteko saioak dira), padela (goiz eta arratsalde, abonatuek 37 euro, eta gainontzekoek 44 euro), batuka gaztea (goizetan bakarrik, gazteei zuzendutakoa da-eta. Abonatuek 19 euro, eta gainontzekoek 26 euro), hasiberriendako pilatesa (martitzenetan eta eguenetan 18:30ean hasita, abonatuek 15,5 euro, eta gainontzekoek 25,5 euro).

**GIMNASIA TERAPEUTIKOA**
Amaitzeko, kirola osasuntsua dela erakusten duten bi ikastaro. Batetik, hirugarren adinekoendako gimnasia saioak egingo dituzte martitzen eta eguenetan, 10:30ean (abonatuek 11,40 euro, gainontzekoek 16,40 euro). Eta bestetik, gimnasia terapeutikoa egingo dute astelehen eta eguaztenetan, 10:15ean (abonatuek 23 euro, gainontzekoek 28 euro). Informazio gehiago, 943 77 16 77.

> ATLETISMOA

### Maialen Axpe urrezko dominarekin itzuli da Murtziatik

Joan den asteburuan egin zuten Espainiako Lurraldekako Txapelketa, eta Euskadiko Selekzioa ordezkatzen urrezko domina eskuratu zuen Maialen Axpek, pertika jauzian (3,25 metro). Bestalde, Jonathan Perezek ere urrea jantzi zuen Durangon egin zituzten Euskadiko Txapelketetan (4,80 metro).

Asteburuan, berriz, Arrasateko atletak Ordizian izango dira, han egingo duten *Challenge*-ean esku hartzen.

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
• Bainujantziak
• Sandaliak neurrira egindako plantillekin
• Gurpil-aulki elektrikoak eta eskailerak igotzeko aulki igogailuak
• Oheak eta abar.
Ondo ibili nahi duzu? Zu laguntzeko gaude
Etorri guregana
Kontzeziño 2 • Arrasate • Tel.: 943 79 89 34

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

arrasatearrak kanpoan

**Amaia Mallabiabarrena** > Diseinatzailea
Bartzelonan bizi da

# "Katalana ulertzeko erraza den arren, espainolez egiten dut"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Amaia Mallabiabarrena 2003ko irailean joan zen Bartzelona aldera diseinu eta moda ikasketak egitera. Bost urte pasa dira, eta gustura dago bertan, Antonio Mirorekin lanean.**

Amaia Mallabiabarrenak bost urte daramatza Bartzelonan eta pozik dagoela esan digu. Bere asmoa Euskal Herrira itzultzea da, baina "momentuz, Arrasate inguruan ez dago aukera handirik moda munduan lan egiteko". Diseinu eta moda ikasketak amaitu ondoren, Antonio Mirorekin hasi zen lanean, eta oinetakoen ikastaro bat ere egiten ari da. Mallabiabarrena Guell parketikitik gertu bizi da. "Goizeko seietan jaiki eta askotan –ikastaroa izanez gero– 21:00ak arte ez naiz etxera itzultzen. Ahal dudanean, baina, deskonektatzeko bada ere gimnasiora joaten naiz". Kataluniarrak orokorrean

**"Asteburuetan lanik ez dudanean, lagunekin irteten naiz afaltzera, festaren batera, zinemara, hondartzara..."**



Amaia Mallabiabarrena.

"jatorrak" direla adierazi digu Amaiak: "Hiri handia denez, toki askotako jendea ezagutzeko aukera izaten da". Eguraldiaz ere ez du kexarik; normalean ona egiten duela esan digu. Mallabiabarrena Aretxabaletako bi lagunekin dago etxean, eta bertan euskaraz egiten dute. Hala eta guztiz ere, "katalana ulertzen nahiko erraza da, baina hitz egin, oraindik ere espainolez egiten dut", adierazi digu.

**GAUZA ASKO IKUSTEKO**

Bartzelona hiri handia da eta gauza mordo bat daude ikusteko, hala nola, kontzertuak, kaleko ikuskizunak, museoak…

Asteburuetan, "lanik ez dudanean, lagunekin irteten naiz afaltzera, festaren batera, zinemara, hondartzara… aukera asko daude". Orokorrean, esperientzia polita izaten ari da Katalunia aldekoa, baina, hala eta guztiz ere, lagunak, familia eta herriko giroa orokorrean igartzen ditu faltan Mallabiabarrenak.

txutxu-mutxua



BESAIDE

## Belatetik Urkiagara, Besaidekoen mendi ibilaldia

**Joan den domekan Besaide elkarteko 43 lagunek mendi irteera egin zuten Belatetik Urkiagara. Goizean, Arrasatetik atera ziren 07:30ean. Belatera 09:30ean heldu ziren eta ibilbideari ekin zioten. Okolin (1.362 metro) gailurra pasa eta gero Saioa (1.418 metro) tontorrera joan ziren. Horren ondoren, Artesiana eta Araongo Harria ere pasa zituzten. Urkiaga mendatera 15:45ean heldu ziren. Hau bazkaldu zuten, eta bazkaldu ondorengo kafea hartzeko Eugin gelditu ziren. Handik autobusa hartu eta berriz ere Arrasatera bueltatu ziren 18:30erako, egun ederra pasatu ondoren.**

bere ustez



Jose Riviere

# Foru Aldundiaren sentsibilitatea

Joan den ekainaren 12ko *El Diario Vasco* egunkarian irakurri nuen Loiu eta Donostia lotuko dituen autobus linea berri bat martxan jarriko dutela. Gainera, orduro egingo ditu joan-etorriak. Oso ondo iruditzen zait jendearendako hobekuntza suposatzen duen guztia aurrera eramatea.

Lurralde antolamenduko eta mugikortasuneko foru diputatu Arantza Tapiak adierazi du Aldundiak eta Donostiako Udalak kontutan hartu dutela, halako zerbitzu bat jartzeko eskaera aspaldikoa zen-eta. Baina nik ondorengo galdera egiten diot Arantza Tapia andreari: zergatik ez duzue sentsibilitate bera erakutsi zuk eta Aldundiak Debagoienean, garraio publikoaren eta hauen salneurrien hobekuntzan erretiratuek egindako eskaeren aurrean? Hobekuntza batzuk egon dira, bai, baina oraindik ere beste asko falta dira egiteko: Arrasate-Bilbo eta alderantzizko zerbitzua, Debagoieneko ospitalean geralekua duen autobus zerbitzua, udan kostaldera joatekoa…

**"Hobekuntza batzuk egon dira, bai, baina oraindik ere beste asko falta dira egiteko"**

Badirudi, Donostiako Udalarekin ez bezala, kontu horretan oraindik ez zaretela akordio batera iritsi Debagoieneko Mankomunitatearekin.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74


Martzial Agirre, Angiozar, San Martzial eta San Juan dira ur handiak sortu ziren herriko lekuetako batzuk. JOXEAN IÑARRA ETA BERGARAKO UDALTZAINGOA

**EGURALDIA** > UR HANDIAK

# Arazoak sortu zituen euri jasa bortitzak astelehenean

Ur handiak sortu ziren Uberan, Angiozarren, San Martzialen, Aranen eta Martzial Agirre kalean, batik bat

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Astelehenko euri zaparrada bortitzek arazoak sortu zituzten erreka ondoetan, etxabe eta garajeetan, baserrietan, kaminoetan, e.a. Arazoak izan ziren, batez ere, Deba ibaira doazen hainbat errekak gainezka egin zutelako eta hainbat ubide taponatu egin zituztelako harriek eta arbola arramek. Ur handiak ez ezik, luiziak ere izan ziren, Bergaratik Elosurako bidean, esaterako. Arazo handienak sortu ziren Uberan, Angiozarren, Elosun, Aranen eta Martzial Agirre kalean, San Martzialerako bidean.

**TARTE LABURREAN**

Astelehen arratsaldean, 16:00 aldera hasi ziren lehen arazoak. Denbora laburrean euri asko egin zuen, eta horrek sortu zituen buruhausteak. Udaltzainak jo eta ke aritu ziren. Martzial Agirre kalean, belaunerainoko ur baltsak sortu ziren. Aparkatuta zeuden autoak, hala ere, ez zituzten apenas kaltetu, ura ez zelako motorreraino heldu. Larriago ibili ziren Uberan, plazako etxeetan eta beste baserri batzuetan ere, eta berdin Angiozarren. Uberako Agirrezezeaga baserrira doan pistan, luiziak kaminoa oztopatu egin zuen eta Angiozartik Munabe baserrira doan pista erreka bihurtu zen une batez, lokatz, harri eta arbola arramaz josita. Araneko Ineltsolan ere arazoak eta kalteak sortu zituen ur handiak, eta San Martzialeko ermitara ura eta lokatza sartu ziren, barruraino. Hainbat etxabe eta garajetan ere gauza bera gertatu zen.

**KALTE HANDIRIK EZ**

Oro har, kalteak ez ziren oso handiak izan, luzaroan ez zuelako bota, baina euri jasa bortitza izan zen oso tarte laburrean. Luis Mari Agirre San Juango Narbaizabolukoak emandako datuen arabera, astelehenean 58,6 litro euri egin zuen metro koadroko, gehiena arratsalde hasieran, pare bat orduz. Udaberriko egunik euritsuenetakoa izan zen, udaberri bereziki euritsu honetan.

DATUA

**58,6**

LITRO METRO KOADROKO

Udaberri euritsuari agur esateko 58,6 litro euri egin zuen, gehiena oso tarte laburrean; asteko beste egunetan, 11,2 litro guztira.

**JAIAK**

## San Martzial egunerako mahaiak alokatzeko epea, zabalik

**E.A.** > BERGARA

San Martzialeko erromeriarako –uztailaren 6an– mahaiak eta aulkiak hartzeko epea zabalik dago eguaztenera arte, hilaren 25era arte, astegunetan, kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro da eta mahai bakoitzeko gehienez ere zortzi aulki eskatu ahal izango dira. Eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da. Era berean, eskatzaile bakoitzak ezingo du bost mahai baino gehiago eskatu. Egindako eskaerarekin agiri bat emango zaio eskatzaileari. Agirian alokatutako materiala zein den jarriko du. Alokatutako mahaiak eta aulkiak uztailaren 5ean, zapatuan, 17:00etatik 20:00etara San Martzialgo kantina ondoan hartuko dira.

Erromeriaren ondoren mahaiak eta aulkiak jasotzeko puntu konkretu bat jarriko da San Martzialgo kantina ondoan (pankartekin ongi seinaleztatuko da puntu hori). Mahaiak eta aulkiak 19:00etatik 21:30era entregatu ahal izango dira. Materiala entregatzen duenari Udaleko seilua jarriko zaio. Materialaren eskatzaile bakoitzak kultura etxean eskaera egiterakoan eman zitzaion orria eraman beharko du materiala entregatzerakoan, han jarriko diotelako seilua. Gero, kultura etxean fidantza jasotzeko aukera du seilua duen orria entregatzen duenak, uztailaren 8tik 14ra, astegunetan, 18:00etatik 21:00etara.

**KANTINA HARTZEKO**

Bestalde, erromerian kantina eta txosna hartu nahi dutenek izena eman behar dute udaletxean eguaztena, eguerdiko ordu bata baino lehen. Bergarako irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek egin dezakete eskaera.

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Lokal klimatizatua
Egunero zabalik
WI-FI GUNEA
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

**AISIALDIA** > UDAL LIBURUTEGIA

# Igerilekuetan ere emango du zerbitzua udan Udal Liburutegiak

Uztail eta abuztuan 15:00etatik 17:00etara emango du zerbitzua Agorrosingo igerilekuetako berdegunean; 300 bat liburu egongo dira

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Udal liburutegiak igerilekuetan emango du zerbitzua uztail eta abuztuan. Hala, Errotalde kultura etxean ez ezik, Agorrosinen ere irakurri ahal izango dira liburuak. Ez hori bakarrik, kultura etxeak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk ere, DVD, liburu edo musika diskoen mailegua, esaterako, eskainiko dira Agorrosingo igerilekuetan ere.

Uztailean 08:30etik 20:30era, 12 orduz jarraian, izango da zabalik liburutegia Errotalden, eta Agorrosinen, 15:00etatik 17:00etara. Abuztuan, ostera, goizez egongo da zabalik Errotalden, 08:30etik 20:30era, eta Agorrosinen, 15:00etatik 17:00etara. Zerbitzua emateko, liburutegiko langileez gain, Xipizaro ludotekako beste begirale bat izango da igerilekuetan uztailaren 14tik aurrera.

**ZERBITZUA OSATU**

"Liburuaren egunean-eta San Martin plazara irteten garen moduan, udan igerilekuetara joango gara, jendea dagoen tokira, zerbitzu hobea emate aldera", dio Mila Agirrezabal Udal Liburutegiko arduradunak. Uda sasoian jende gutxiago ibiltzen da liburutegian eta, bestalde, ordutegia ere murritzagoa da; hala, zerbitzua osatzeko, arratsaldez igerilekuetan egongo da liburutegia.

Berdegunean, iturriaren ondoan, jarriko dituzte liburuok. Horretarako, apalategi, erakustoki eta mahaiak jarriko dituzte, eta baita ordenagailua ere, maileguak egiteko. "Hasiera batean, 300 bat liburu jarriko ditugu, eta gero, behar baldin bada, joango gara osatzen", dio Agirrezabalek. Jende gaztearendako, batik bat, baina baita helduendako ere egongo dira liburuak, propio aukeratutakoak.

**TABERNA ERE BAI**

Agorrosingo igerilekuetan kanpoko berdegunea astelehenetik zabalik dago. Liburutegi zerbitzuaz gain, aurten taberna ere jarriko dute, edariak, kafea eta litxarreriak saltzeko. Izozkien kioskoa jartzen duten ondoan egongo da.

## 'Euskaraz bai' adierazpenari bai, herritarrek

Euskararen egoeraz, etorkizunaz, Kontseiluak egindakoaz, horren erronkez... halakoez jardun zuen eguaztenean Urko Aierbe Euskararen Kontseilukoak, udaletxean. *Euskaraz bai* astearen barruan antolatutako berbaldia izan zen, Kontseiluaren 10. urteurrenean. Erakusketa ere badago udaletxean; gaur itxiko dute. Atzo arratsaldean, bestalde, kale ekimena izan zen Muniben. Besteak beste, *Euskaraz bai* logotipo erraldoia osatu zen jendearekin. Gaur, azkenik, adierazpenari atxikimendua eman nahi diotenak udaletxean batuko dira 19:30ean.




ENEKO AZKARATE

**EUSKARA** > 'BERGARAKO AHOTSAK'

# Herritarren ahotsak sarean jarriko dituzte kontsultarako

Azken 25 urteotan egindako lanetarako, 140 herritarri egindako grabazioak jaso dira

E.A. > BERGARA

*Bergarako Ahotsak* proiektua aurkeztuko dute datorren egubakoitzean, gaur zortzi, bergarako udaletxeko Pleno aretoan. Bergarako Ahotsak bildumak azkeneko 25 urteetan Bergarako euskara jaso eta lantzeko egin diren grabazioak jasotzen ditu.

Guztira 140 inguru herritarri egindako grabazioak jasotzen ditu. Izan ere, asko dira azken urteetan Bergarako euskara jaso eta lantzeko egin diren lanak: *Bergarako Euskera* liburua, *Bergara aldeko langintza zaharrak* bilduma, Bergara aldeko hiztegia, Bergarako leku-izenen bilketa, Debarroko ahotsak grabazio-bilketa...

**AURKEZPENA, GAUR ZORTZI**

Lan horietarako egin diren grabazioen zatiak Internet bidez kontsultatzeko moduan jarri dira, interesa duten guztiek erabil ditzaten. Mende eta laurdeneko historia protagonisten berbetan jasota.

Proiektuaren aurkezpena esan bezala, ekainaren 27an, egubakoitza, arratsaldeko 7etan egingo da, Udaletxean.

> JENDARTEA

### Berbaldia eta zine emanaldia eguaztenean, Gay eta Lesbianen Nazioarteko eguna dela-eta

Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna da ekainaren 28a. Hori dela-eta, ekainaren 25ean, eguaztena, berbaldia emango du EGHAM taldeko kide batek udaletxeko Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Berbaldi aren ostean, 21:30ean, *La memoria de los peces,* Liz Gillena emango dute gaztetxean.

> ISTRIPUA

### Urdangarin kalean auto batek emakume bat harrapatu zuela-eta, lekukoen bila dabiltza

Ekainaren 5ean, Urdangarin ibiltokian auto gris batek emakume nagusi bat harrapatu zuela-eta, lekukoen eta auto gidariaren bila dabiltza familiakoak. Honako telefono hauetara deitzea eta Joxe Lazkanorengatik galdetzea eskatu dute: 943 76 27 13 eta 617 60 84 24.

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Raizabal gozotegia
100 urte zuekin
eskerrik asko guztioi
Artekale 9 Tel.: 943 76 11 83 / Bidekurutzeta 20-22 Tel.: 943 76 12 19

Guisasola burdindegia "Erratzu"
Zerbitzu berria
labanak eta guraizeak zorrozten ditugu
San Pedro 8 Tel. / Faxa: 943 76 27 70
20570 BERGARA (GIPUZKOA)




Pasa den urtean ere egin zuten kurtso amaierako jaia, eta ederki pasa zuten umeek. JARDUN

**EUSKARA** > JARDUN

# Jardun elkarteak jaialdia eginda amaituko du ikasturtea gaur

Irailerako antolatu diren Antxintxika izeneko udalekuetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dute Lehen Hezkuntzako umeek

**JAIONE ZABALA** > BERGARA

Gaurko, Munibe plazan 18:00etan kurtso amaierako jaialdia antolatu du Jardun euskara elkarteak.

Bertan, urtean zehar Jarduneko egitasmo desberdinetan parte hartzen ibili diren haurrak egongo dira: trikiti eskolakoak, euskara errefortzuetakoak eta aisialdi taldekoak, besteak beste. Taldeka, mota desberdinetako erakustaldiak egingo dituzte: kantatu, dantzatu, antzerkia, trikiti piezak... Amaieran, merienda egongo da ume guztiendako.

**ANTXINTXIKA UDALEKUAK**

Bestalde, Jardunek irailerako Antxintxika izeneko udalekuak antolatu ditu. Udaleku horiek irailaren 1etik 4ra izango dira, Hondarribian. Udalekuok Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta daude eta bertan, Bergarako edozein haurrek eman dezake izena. Udalekuen prezioa 52 euro da; Jarduneko bazkideendako, berriz, 49 euro. Izenemate epea ekainaren 27 arte dago zabalik.

Gainera, datorren ekainaren 27an, 19:00etan, Jardun euskara elkarteak antolatuta, Kultur Errota egitasmoaren barruan, Bihotz Bakartien Klubak (BBK) *Katamalo* ikuskizuna aurkeztuko du Espoloiko kioskoan.

## Jaso dute saria argazki rallyko bi irabazleek

Javier Vicente eta Maddi Iñarra izan dira aurtengo Mendekoste jaietako argazki rallyko irabazleak. Guztira, bi lan baino ez ziren aurkeztu, Vicenterena eta Iñarrarena. Sari banaketa pasa den ekainaren 16an egin zuten kultura etxean. Horrela, Javier Vicentek, lehiaketako bilduma onenagatik, 200 euroko saria eskuratu zuen, eta Maddi Iñarrak, berriz, 100 euroko saria argazki onenagatik. Kultura teknikari Maider Osaren eskutik jaso zuten saria bi irabazleek.




LEIRE KORTABARRIA

**ERAKUSKETA** > MARGOLANAK

# Akizuren lanak ikusgai daude Herraiz arte-galerian

Uztailaren 10a bitartean, 34 lanen erakusketa du bergararrak Madrilen

**J.Z.** > BERGARA

Juan Jose Altuna Akizu margolari bergararrak pasa den ekainaren 10ean Madrilgo Herraiz arte-galerian inauguratu zuen margolanen erakusketa.

**GUZTIRA, 34 LAN**

Madrilera 34 margolan eraman ditu eta datorren uztailaren 10era arte ikusgai izango dira. Bertan ikusgai dagoen lan bildumaren izena *Construccion de Espacios* da, eta izenak berak adierazi digunaren arabera, "espazio ezberdinekin jokatuz irudi ezberdinak margotu ditut", adierazi digu Akizuk. "Nire lanak ikustean, norberak ikusten duen hori irudikatzen du bere buruan, eta noski, guztiok ez dugu gauza bera ikusten, bakoitzak ikusten duen horren espazioa eraikitzen du".

Akizuri Madrilen erakusketa egitearen zergatia galdetuta, ondorengoa esan digu: "Aukera ezin hobea sortu zitzaidan Madrilen, arte-galeriakoei lan batzuk erakutsi nizkien. Gustatu egin zitzaizkien nik bidalitako lan horiek eta erakusketa egitea proposatu zidaten; alde batera utzi ezin zitekeen aukera izan da Madrilgoa".

**MUSIKA** > HAINBAT KONTZERTU

# Musika eskolak diploma banaketa egingo du gaur

Gaberok, Orfeoi Txikiak eta Orfeoiak kontzertua eskainiko dute asteburuan

**J.Z.** > BERGARA

Gaur, 19:00etan, musika eskolan, diploma banaketa eta diplomatuen kontzertu emanaldia egongo da.

Guztira 22 ikaslek bigarren mailako diploma jasoko dute gaur, besteak beste, instrumentuan sei urte egin dutenek, bost urte hizkuntza musikala egin dutenek eta koralean bi urtetan zehar egon direnek, hain zuzen ere. Diplomak banatu ondoren, guztiek kontzertua eskainiko dute. Denera, hamabost pieza joko dituzte; 15 pieza hauetan 12 instrumentu ezberdinekin arituko dira, besteak beste, pianoa, trikitia, panderoa, flauta, klarinetea, biolina, biola, oboea, txeloa, akordeoia, tronpeta eta saxoa. Joko dituzten lanen artean, berriz, Benito Lertxundiren *Erribera*, edota *Ikusi Mendizaleak* kanta herrikoia daude.

**BI KONTZERTU GEHIAGO**

Diplomatuen kontzertuaz gain, Gabero eta Orfeoi Txikiko abesbatzak gaur kontzertua eskainiko dute arratsaldeko zortzietan Mariaren Lagundiko elizan. Domekan, berriz, Orfeoiaren kontzertua egongo da, hori ere Mariaren Lagundiko elizan, arratsaldeko zortzietan.

> IKASTAROA

**Jardun euskara elkarteak txalaparta ikastaro trinkoa antolatuko du uztailean zehar**

Jardun euskara elkarteak zortzi orduko txalaparta ikastaroa prestatu du. Saioak uztailaren 1, 3, 8 eta 10ean izango dira, Arrizuriagako jauregian, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Matrikulak 18 euroko prezioa izango du; 15 eurokoa Jarduneko bazkideendako. Izena eman nahi duenak 943 76 36 61 telefonora deitu behar du.

> PINTURA

**Beartek artelanak sortzeko antolatu duen ikastaroan izen emateko epea amaitzear dago**

Beart arte elkarteak artelanen prozesu sortzailea erakusteko ikastaroa antolatu du uztailaren 1, 2, 8 eta 9rako Bearteko lokalean. Ikastaroa Luis Laskurain bergararrak emango du, eta monografikoa izango da. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute; gainontzekoek, berriz, 30 euro. Izena emateko azken eguna ekainaren 26a izango da.

Oihulari Klown
aurkezten du

La espera



Maider Galarza "Pupila"
eta Anduriña Zurutuza "Puxika"-ren eskutik
Gidoia eta zuzendaritza: Virginia Imaz

ekainak 26
ostirala
22:30ean

Pol-Pol Tabernan

SAN JUANAK 2008 GOITB-N

**SAIO BEREZIAK**
Eguaztenean, ekainak 25ean, 21:47ean
Eguenean, ekainak 26an, 14:15ean
Egubakoitzean, ekainak 27an, 18:15ean

**Babeslea: Citroën Chapime**



Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**FUTBITOA** > 16 URTETIK GORAKOEI ZUZENDUTA

# San Martzialetan, 24 orduko futbito txapelketa

Uztailaren 4an, egubakoitzean hasiko da BTLSk antolatutako txapelketa Udal Pilotalekuan, 19:00etan, eta finala zapatuan jokatuko da, iluntze aldera

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

BTLS Kirol Elkarteak 24 orduko futbito txapelketa iragarri du San Martzial jaietarako. Hain zuzen ere, txapelketa egubakoitzetik zapatura bitartean jokatuko da, uztailaren 4an eta 5ean. Egubakoitzean, 19:00etan hasiko da txapelketa eta zapatuan, iluntze aldera amaituko da.

Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, txapelketa 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta partiduak Udal Pilotalekuan jokatuko dira. Kantxan lau jokalari eta atezaina izango dira. Hortik aurrera, talde bakoitzean, gehienez, hamar lagunek eman dezakete izena. Talde bakoitzean lau federatu egon ahal izango dira eta jokoan, gehienez, bi federatuk jokatuko dute aldi berean. Aldaketak nahi beste egin ahal izango dira partiduan zehar.

Talde bakoitzak, gutxienez, bi partidu jokatuko ditu eta antolatzaileek dei egiten diete herritarrei parte hartzeko.

**IZENEMATEA, HILAREN 27RA ARTE**

Izena emateko epea datorren egubakoitzera arte, ekainaren 27ra arte izango da zabalik. Zapatuan, ekainaren 28an, talde bakoitzeko arduradunekin bilera egingo dute Agorrosin Ekintza Gunean, 13:00etan. Bertara eraman behar ko da izena emateko diru-kopurua (80 euro taldeko).



Kantxara atezaina eta lau jokalari aterako dira. Aulkian beste sei lagun egon ahal izango dira. GOIENKARIA



BERGARA KE

## Gipuzkoako txapeldunordeak

Bergara KEko infantil mailako taldeak denboraldi borobila burutu du. Gipuzkoako eskolarteko txapelketan euren multzoko txapeldunak izan ziren mahoneroak, denboraldi bikaina egin eta gero. Finalean, berriz, ezin izan zuten txapeldunen kopa eskuratu: Usurbilgo Udarregi Ikastolaren aurka galdu zuten finala, 5-1, Donostian, Matigoxotegin. Markel Manuelek egin zuen bergararren gol bakarra. Argazkian, Bergarako taldea, Andoni Gomez eta Jon Garitano taldeko entrenatzaileekin.

> GAZTEAK

### Ebro ibaian 'rafting'-a uztailaren 9an, Udalaren eskutik

Bergarako Udalak, Diputazioaren laguntzaz, uztailaren 19rako Ebro ibaian *rafting* egiteko irteera antolatu du, 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Izena emateko epea eguaztenera arte, ekainaren 25era arte dago zabalik. Bestalde, uztailaren 23an Arcachoneko aquaparkera irteera egingo da. Izenematea kultura etxean, 943 77 91 60 telefono zenbakian.

> TXIRRINDULARITZA

### Txirrinduzaleen irteera Hondarribiara uztailaren 20an

Bergarako txirrinduzaleek Hondarribiara irteera egingo dute datorren uztailaren 19an. Aipatutako egunean 07:00etan aterako dira San Martin plazatik, eta 120 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute (itzulera autobusean izango da, 18:00ak aldera). Bazkaria sagardotegi baten egingo dute. Izenematea i2 eta Igartua bizikleta dendetan, uztailaren 12ra arte.

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

**LANBIDE ETORKIZUNAK:**

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

**AURREMATRIKULA:**
ekainaren 2tik 13ra (biak barne)

**MATRIKULA EGITEKO EPEA:**
ekainaren 30etik uztailaren 4ra (biak barne)



**J.M.IPARRAGIRRE B.H.I**
Santa Barbara bidea z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
*www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es*

Goienkaria

Martitzena / 2008ko ekainaren 17a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**




ARGAZKILARIA: JOSETXO ARANZABAL




2008ko SAN JUANAK
INO gabeko jai zorINOtsuak
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

kale inkesta

# San Juanetan kanpora joateko ohiturarik baduzu?



**Julia Nuñez**
Erretiratua

Nik herrian geratzeko ohitura daukat. Urtean behin izaten dira herriko jai nagusiak eta aprobetxatu egin behar da. Orain, baina, gazte askok kanpora joateko erabakia hartzen dute.



**Juan Mari Urrutia**
Erretiratua

Bai, badaukat kanpora joateko ohitura. Errioxara joaten nahiz. Aurten, ordea, oraindik ez dut erabaki San Juanetan zer egingo dudan. Agian danborrada ikusi eta Errioxara joango gara.



**Julen Altuna**
Ikaslea

Herrian geratu izan naiz baina aukera daukadanean lagunekin edo familiarekin kanpora joateko aprobetxatzen dut. Aurten, ikasi eta lan egin behar dudanez, hemen gelditukо naiz.



**Maite Berezibar**
Ikaslea

Oporrak ditut eta aprobetxatu egingo dut herriko jaiak lagun kuadrilarekin disfrutatzeko. Lehen txikitan kanpora irteten nintzen familiarekin. Orain herrian geratzen naiz.



**Marisol Irasuegi**
Langilea

Aurreko urtetan Saloura edota Benidormera joan izan naiz. Aurten, ordea, herrian geratuko naiz San Juan jaien giroa aprobetxatzeko, giro paregabea egoten da-eta.



**Jose Heriz**
Erretiratua

San Juanetan beti herrian geratu izan naiz herriko jaiak aprobetxatzeko giro bikaina egoten da eta gustatzen zait jaiekin disfrutatzea. Kanpora joateko abuztuan daukat ohitura.

**AURKIBIDEA**

**Inkesta** > 03
**Egitaraua** > 04-05
**Jai zinegotzia** > 06
**Errementari dantza** > 07
**Dragoi jana** > 09
**Pilota** > 10
**Koadrilak** > 13
**Eguzki Laru** > 15
**Pirritx eta Porrotx** > 16
**Tapeplas** > 18
**Margo lehiaketa** > 20
**Su artifizialak** > 22
**Trial Bike** > 24
**Elkarrizketa** > 25
**Capoeira** > 26
**Zahir zirkoa** > 29
**Istonio** > 30
**Arku tiroa** > 32
**Kontzertuak** > 34-35
**Musika banda** > 36
**Nagusien eguna** > 37
**Goitb eta irratia** > 38

argazki zaharra

# 1998eko San Juan jaietako kronika

Kexati ziren orain dela 10 urteko danborradan jende gutxi ibili zelako kaleetatik. Danborrada egin zen azkenean, irudietan duzue *kantinera* nagusia, eta kontua da munduko futbol txapelketa zela egun haietan eta, antza, jende asko etxean geratu zen. Giro aparta egin ei zuen San Juan bezperan eta alkateak, Loiti zen orduan, ez zuen aurreskua dantzatu. Haren ordez, txistularien bandako kide batek dantzatu zuen aurreskua herritarrentzat. Arreta guztia 1998 urtean, baina, dragoian egon zen, ze aurreko urtean erre egin zen. Ba 1998an ere gaizto ibili zen Muru mendiko herensugea. Sua pizteko arazoak zeudela-eta, dragoiarengana gerturatu zen Porru udailtzainburua eta gasolina bota eta besoa erre zitzaion. Anbulantzian eroan zuten larrialdietara.

Dragoi janari dagokionez, 500 lagunek jan zuten herriko plazan eta ostean Maixa eta Ixiarrek dantzaldia eskaini zieten jatunei. Begi bistan dago, larregi ez dira aldatu ordutik San Juanak.

**Argazkia:** Arrasate Press



Goienkaria
**Argiraratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Xabier Urtzelai, Mirian Biteri, Irati Agirreazaldegi, Jasone Zabala, Arantzazu Ezkibel, Jokin Bereziartua, Nerea Menor, Jon Berezibar, Maider Arregi, Mireia Bikuña **Maketazioa** Oxel Arrieta **Publizitatea arduraduna** Mireia Larrañaga **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIABERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatilaTel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13 Posta-e: goienkaria@goiena.com
**ORDEZKARITZAK ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatilaTel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 79 22 93 Posta-e: publi@goiena.com
**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 Tel.: 943 25 05 05 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 7.000 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
LAGUNTZAILEAK
Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko udala



EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 20

**19:00** Amaia Udal Antzokian ARRASATEKO MUSIKA ESKOLAko ikasturte bukaerako kontzertua.
**22:30** CAPOEIRA erakustaldia Monterron parkean, Senzala Euskadi Taldeak antolatuta.



ERRALDOIEK KALEJIRA EGINGO DUTE.

## Zapatua 21

Goiz osoan Alde Zaharrean IV. Herensugea PINTURA LEHIAKETA, Arrasate Margo Taldeak antolatuta.
**10:00** Uarkapen BOULDER herri txapelketa.
**11:00** ARDO eta GAZTA EGUNA. Dastatzea eta salmenta.
**12:00** Txosna gunean TXUPINAZOA eta txosnaren irekiera.
**12:10** DOKE txapelketa (Beijinerako sailkapena) txosna gunean.
**13:30** Txosna gunetik hasita, Dragoialde txarangarekin poteoa.
**15:00** Bokata jana txosna gunean.
**16:30** Txosna gunean Amalurraren aldeko koadrilen arteko HERRI OLINPIADAK.
**17:00** XAKE norgehiagoka Biteri plazan. Leintz bailarako selekzioaren eta Donostiako selekzioaren arteko neurketa .
**18:00** Harresi aretoan PINTURA lehiaketaren SARI BANAKETA.
**19:00** Herriko Plazan ISTONIOren "En la pista" ikuskizuna.
**19:00** Txosna gunean KARAOKEA: Arrasate vs. Oñati.
**22:30** Monterron parkean BERTSO SAIOA. Bertsolariak: Jon Maia, Manex Agire, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Kolina. Gai jartzaile: Josu Goikoetxea. AEDk antolatuta.



ENTZIERROAK ZALE ASKO DITU.

## Domeka 22

**17:00** Uarkape pilotalekuan, profesionalen arteko pilota partiduak. Partidu nagusia: Titin III-Ibarrola eta Gonzalez-Laskurain.

CANAS - ESTEBAN
ERAIKUNTZAK
San Juan jai zoriontsuak arrasatear guztioi!
Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxa: 943 79 81 80

EGITARAUA

**18:00** Gaztetxean FILM LABURRAK eta TXOKOLATE JANA.
**18:00** Zaldibar pilotalekuan ARKU TIROKO LEHIAKETA. Arku tiroa praktikatzeko aukera ere izango da.
**19:00** Herriko plazan TXANOGORRITXU ROCK.

## Martitzena 24

**08:30** DIANA Arrasateko gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Fererias kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazako zezen plazan bukatuko da; gero, zaleentzat bigantxak zezen plazan.
**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokin, MEZA NAGUSIA.
**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien KONPARTSAren kalejira.
**11:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDArekin kalejira. 11:15ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta Musika Banda.
**12:00** Herriko plazan ohorezko aurreskua eta San Juan zortzikoa dantzatuko dute.
**12:30** Abaroan OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO nagusiei.
**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREN eskutik.
**17:00** Graffiti erakustaldia. Malabarekin girotua, Biteri plazan.
**19:00** Zaldibarko frontoian SHOW BIKE TRIAL, Iker Lezeta eta Alberto Gomezen eskutik.
**19:00** Txosna gunean KONTZERTUAK: AMPOLLA EN LA POLLA, CHAOS KIDS eta THE CONVICTS.
**19:30** Zezen plazan zezen jaialdia ERREKORTADOREekin eta beste ikuskizun batzuekin.
**20:00** MexikotiK VIVA JALISCO kalejira Jalisco estatuko ballet folklorikoaren eskutik.
**21:00** Herriko plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.
**22:00** Gaztetxean MUSKARIA eta HESIAN taldeen kontzertua.
**23:00** Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak. Astondoa pirotekniaren eskutik.
**23:30** Herriko plazan ERROMERIA, LAIOTZ taldearekin.



KOADRILEK JASOKO DUTE MAKALA.

**23:30** Monterron parkean "Monkeys" ikuskizuna TAPEPLAS taldearen eskutik.

## Eguaztena 25

**08:30** DIANA Arrasateko gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidetik; gero, zaleentzat bigantxak zezen plazan.
**09:30** Haurrak eta gaztetxoak iratzartzeko, herrian zehar diana egongo da.
**10:30** Biteri plazan haurrek eta gaztetxoek, herriko trikitilariekin batera, ongi etorria egingo diote Eguzki Laruri eta kalejiran Zaldibar frontoira gerturatuko dira. Jolas parkea 13:30ak artre.
**12:00** Txosna gunetik hasita BERTSO POTEOA.
**12:30** Mexikotik VIVA JALISCO kalejira Jalisco estatuko ballet folklorikoaren eskutik.
**13:30** APAR JOLASA Biteri plazan. Bainu jantziak ekarri eta igerilekura, apar artean jolastera.
**14:30** Txosna gunean HERRI BAZKARIA.
**16:30-18:30** Zaldibarren Eguzki Laruren jolas parkea irekiko da berriro, merienda eta zurrupaki tropikalarekin.
**17:30** Txosna gunetik abiatuta, GINKANA.
**18:00** Errekortadoreen ESKOLA, gaztetxoentzat zezen plazan.
**18:30** Haurren kalejira Zaldibartik Monterronera.
**19:00** PIRRITX eta PORROTX pailazoek "Maite zaitut" ikuskizuna aurkeztuko dute Monterron parkean. Gero, Eguzki Laruri agurra.
**19:00** Arrasateko gaiteroak eta Arrasate Musikaleko taldeen irteera.
**20:00** Herriko plazan LARRAIN DANTZA.
**20:00** Seber Altube plazan TRAPU ZAHARRA taldeak "El concursazo" izeneko ANTZEZLANA aurkeztuko du.
**22:00** Txosna gunean KONTZERTUA: THE MOTHERFUCKERS eta GOVERNORS taldeak.
**22.30** Herriko plazan DANTZALDIA, Nuevo Talisman orkestrak alaituta.

## Eguena 26

**08:30** DIANA Arrasateko gaiteroekin.
**09:00** ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen plazan, eta LOS INCANSABLES txaranga egongo da ikuskizuna girotzen.
**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.
**12:00** Arrasateko trikitilarien eskutik, kalejira.
**12:00** "Segway" ibilgailu dibertigarria erabiltzeko aukera Biteri plazan.
**12:00-14:30** Herriko plazan eta Eusko Labelen eskutik HEGALUZEA eta ATUNGORRIA dastatzea, GOIKOBALU abesbatzaren laguntzarekin.
**18:00** Seber Altuben ZAHIR CIRCO taldeak bere ikuskizuna eskainiko du.
**19:00** Txosna gunean AIN_1 taldearen kontzertua.
**19:30** Herriko plazan SOKA DANTZA.
**20:00** Herriko plazan ERDIZKA LAUETAN taldearekin dantzaldia. Dantza errazak ikasi eta dantzatzeko aukera ezin hobea.
**22:00** Txosna gunean EMON taldearen kontzertua.
**00:00** Txosna gunea SARI BANAKETA: Urrezko dragoia eta argazki lehiaketako irabazleak.
**00:30** DJak txosna gunean: DJ Mutxin eta DJ Indautx L S.

## Egubakoitza27

**22:30** Arrasate Musikaleko BIG BAND taldearen kontzertua Monterron parkean.



SAN JUAN SUA DA JAIAREN ARDATZA.




très Bonn.

Trés Bonn hitz gutxitan Citroen C5-ak zer adierazi nahi duen esateko era da. Azken xehetasun txikieneraino kalkulatutako elegantzia eta teknologiaren nahasketa da.
Benetako luxua zein den adierazten duen espresio adimentsua : Beste ezer baino lehen kalitatea. Egundoko kotxea, ondo pentsatua, ondo eginikoa…. aleman izaeradun azken berrikuntzei benetako frantses izpiritua gaineratua. Bi hitzetan “Trés Bonn”.

**Citroen C5 berria. Izaera alemana. Izpiritu frantsesa.**

• Motorizazioak: Gasolina DIN 215 zp rainokoa eta diesela DIN 208 zp rainokoa • Bi suspentsio mota aukeran: Suspentsio hidraktiko III + esku-freno automatiko eta elektronikoa eta maldetan irtetzeko laguntza edo suspentsio metalikoa • Bi-xenon faro autodirekzionalak • Alboetako ijetzitako kristal intsonorizatuak • Gidariaren eserleku abegigarri eta masaje funtzioduna • Aurreko eserlekuek 6 doikuntza elektriko dituzte (bizkarraldeko goikaldearen inklinazioa barne) • Nahi gabeko bide aldaketa alerta • ESP • 9 aire-poltsa • Bi lekutako aire-girogailu automatikoa • 7” ko pantaila duen NAVIDRIVE telematika sistema, GSM telefonoa, europear kartografia , 30 Gb dun disko gogorra eta CITROEN larrialdi zerbitzua.

**CITROËN C5 BERRIA**

Talleres Chapime, S.C.L
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

**ONDO PASA JAIETAN!**

**ELKARRIZKETA** IZADI MONDRAGON JAIETAKO ZINEGOTZIA

# "Jaietan dagoen alkate bariko herri bat gara"

IKER BARANDIARAN

**Aurtengo San Juanetan berrikuntzak daude antolakuntzan eta esku-hartzean. Horren gainean galdetu diogu Jaietako zinegotzi Izadi Mondragoni.**

**Zergatik aukeratu zintuzten jaietako zinegotzi, edo zer dela-eta hartu zenuen ardura hori?**

Gaztea izanda, jaiak beste modu baten ikusten ditugu; horrek zeresana izan zuen. Gainera, Kultura batzordeko kidea ere banaiz.

**Zelako jaien alde lan egiten zabiltza?**

Ezinbestekoa da jaia herrikoia izatea, eta herritarrek esku hartzea; lan hori Udalak bakarrik ez egitea. Saiatu naiz herritarrak motibatzen antolaketara batzeko. Gainera, kultura talde askok Udalean gaudenok baino askoz eskarmentu handiagoa daukate. Are gehiago, taldeek jakinarazi didate pozik daudela herritar gehiagok esku hartzen dutelako.

**Aurten jai batzorde bat eratu da, txosna batzordea, koadrilak eta beste batzen dituena...**

Bai, txosna batzordetik irten zen ideia. Pentsatu zuten gazteek eta herritarrek gehiago esku hartzeko halako batzorde bat sortu beharra zegoela. Udaleko ordezkariak ere batzar horietan izan gara eta babesa eman diegu. Indarrak batuta, gauza gehiago lor daitezke. Adibidez, koadrilek Arrasaten indar gutxi daukate, eta bada hori areagotzeko modu bat.

**"Herritarrek esku hartu behar dute, eta Udalak, lagundu"**

**"Jai batzordea gazteak eta herritarrak batzeko sortu dute"**

**Aurten ez duzue Monterronen kontzerturik egingo...**

Ez. Monterron bestelako ikuskizunetarako utzi dugu eta kontzertuak txosna gunean egitea erabaki dugu, hara jende gehiago hurbil dadin.

**Zein ekitaldi nabarmenduko zenuke?**

Udal egitaraua aurreko urtekoen antzerakoa da. 21eko eguna indartu dugu, eta jaiak hilaren 26ra arte iraungo du. Bestalde, pilota partidu esanguratsua ekarriko dugu; Pirritx eta Porrotx Monterronera eramatea oso pozgarria da; eta oro har kale ikuskizunak oso onak dira. Lasai asko esan dezakegu jai egun guztietan uneoro dagoela ekintzaren bat; ez dagoela egitarauan inolako hutsunerik.



Izadi Mondragonek azaldu digu oso gustuko duela jaietan esku hartzea. IKER BARANDIARAN

**Noiz hasi zineten jaiak prestatzen?**

Kultura teknikariak lanean aurretik hasi ziren arren, herrian eta Udalean izandako gorabeherek eta Inoren espetxeratzeak inoiz baino beranduago ekitea ekarri dute.

**Zerbait esatea gurako zenuke?**

Bai, herritarrei esan gura diet jaietan esku hartzeko, horretarako ahalegin berezia egin dugu-eta. Eta ez ahazteko alkatea espetxean dugun herri bat garela.

LANDALUZE
HARATEGIA-URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

lentzeria
Bea
Iturriotz kalea 4
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05

eya
Ondo pasatu San Juanak
estilo guztietako lanparak
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

MENDIZABAL OKINDEGIA

ONDO PASAU SAN JUANETAN!
Sebero Altube 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 60


Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
San Juan jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

ERREMENTARI DANTZA

# San Juan bezperan, herriko dantzariak aukeran

## Herriko Plazan polkak, ingurutxoa eta San Juan dantza eskainiko dituzte kalejiraren ostean

Kalean eta plazan

**Astelehena 21:30**

Herriko dantzariek eta musikariek euskal dantzak eta doinuak eskainiko dituzte.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Jose Ramon Vitoriak bultzatu eta 1993an estreinakoz egindako Errementari Dantza egingo dute San Juan bezperan herriko dantzariek.**


Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeetako neska-mutilek egingo dute dantza. GOIENKARIA

Ohiturari jarraituz ekainaren 23an Errementari Dantza egingo dute Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariek.

Maalan abiatu eta Portaloian dantza egin ostean, Iturriotz kaletik joan ostean, egonaldi labur bat egingo dute aurrerago. Ondoren, Erdiko kalean barrena Herriko Plazara jaitsiko dira eta han dantzatuko dituzte polkak, ingurutxoa eta azkenik San Juan dantza. Gero Portaloira joango dira berriz.

**DANTZARIAK ETA MUSIKARIAK**

Talde bakoitzeko 20-25 bikotek hartzen dute parte. Musikarien aurretik joaten da talde bat eta atzetik bestea.

Musika Eskolako musikariak izaten dituzte lagun, 50etik gora lagun; baita lau erraldoi ere. Azken horiek Portaloiko eta Seber Altubeko geldiuneetan eta plazan egiten dute dantza.

**"Dantzariok eta musikariok pozik egoteko moduan gaude jendeari gustatzen zaiolako gure ikuskizuna"**

Urteroko kontua izanik batzuk ez dute entsegu askorik behar, baina prestatzen ez direnik ezin da esan: "Umeen taldeetatik nagusietara pasatzen direnek, lehen aldiz dantzatzen dutenek entsegu asko egiten dituzte. Urte askoan dantza hau egiten dihardutenek ez dute hainbesteko premiarik izaten, baina elkartzen dira aurrez dantzako pausoak errepasatzeko", esan digu Lore Gazteak taldeko Xeli Arregik.

Herritarrek ikusmin handiz jarraitzen dute Errementari dantza. "Aurten astelehena izanik eta jende askok aste guztian jai duela kontuan hartuta ez dakigu jende asko etorriko den, baina gehienetan, asteburuan tokatzen denean batik bat, herritarrak ez ezik bailaratik ere jende asko gerturatzen da. Dantzariok eta musikariok pozik egoteko moduan gaude, ikusten baitugu jendeari gustatzen zaiola gure ikuskizuna", azaldu digu Xeli Arregik.

Errementarien burdinaren eta dragoiaren kondairan oinarritutako dantzarekin gozatu nahi dutenek herriko kaleetara eta gero plazara egin beharko dute jira astelehen gauean suaren bueltan musika lagun dantzariak ikusteko.




0 Km-aren jaia
OPEL
CHEVROLET
SAAB
Eskaintza hoberenak:
·0 Km-etan
·Ia berrietan
·Direkzio autoetan
6.500€tik aurrera
Giauto
Kontzesionario ofizialak
GIAUTO OPEL
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA
Tel. 902 345 123 Salmentak
Tel. 902 345 125 Tailerra
www.giauto.es
clientes@giauto.es
GIAUTO CHEVROLET
EIBAR · OLABERRIA
Tel. 902 345 225
www.red-chevrolet.com
clientes@giauto.es
GIAUTO SAAB
BERGARA
Tel. 943 763 347
www.giauto.redsaab.com
clientes@giauto.es

DRAGOI JANA

# Dragoi txuleta erreak dastatzeko ordua iritsi da

Herriko Plaza
**Martitzena 21:00**
Dragoi txuletak jateko helburuarekin plazan bilduko dira herritarrak.

**Jendetza handia biltzen duen ospakizuna izanda, oihartzun handia du herritarren artean**

NEREA MENOR

**Antolatzaileak festari azken ukituak ematen dabiltzan bitartean, afarirako txartelak salgai jarri dira Arrasaten. Sardexkak prestatzen eta labanak zorrozten hasi dira herritarrak.**

Urtero legez San Juan egunean Dragoi Jana egingo da aurten ere Herriko Plazan. AEK eta AED elkarteek elkarlanean antolatzen duten ospakizunean jendetza handia elkartzen da: "400 edo 500 pertsona inguruk hartzen dute parte", dio AEDk. Partaide asko eta giro ezin hobea herriarekin horren harreman estua duen dragoiaren txuletak dastatzeko.

Urteetan ekitaldi arrakastatsua izan da, jaietako egitarauan pisu handia hartu duena. Duela 13 urte inguru ospatzen hasi zela esan digu AEDko Jon Azkoagak: "Jaiak euskalduntzeko asmoarekin hasiko zela pentsatzen dut, eta, bide batez, afaria plazan eginda, kutsu herrikoia eman zaio ospakizunari".

**"SORPRESATXOAK" AFARIAN**

Antzerkiek, bertsoek eta kantuek afariko giroa alaitu dute urtero eta aurten ere horrela izango dela jakinarazi dute. Oraindik berezitasunik egongo den ez dakite, baina "sorpresatxoak" egongo direla aurreratu digute. Boluntario kopuru finkoak laguntzen du ospakizuna aurrera eramaten, "baina sekula ez dator gaizki jende berria etortzea. Norbait laguntzeko prest badago, AEDra dei dezake".

**Afaria 21:00etan hasiko da, plazan; euria eginez gero, Uarkapera aldatuko da**


400-500 lagun inguru elkartzen dira urtero Dragoi Jana ospatzeko. GOIENKARIA

## Txartelak salgai Dragoi Janerako

**Joan den egubakoitzean jarri ziren salgai Dragoi Janerako txartelak. Monte eta Irati tabernetan eros daitezke, eta baita AED eta AEK elkarteetan ere. 12 euroko prezioa dute eta menua ohikoa izango da.**

**Dragoi txuleta izango da menuan eta piperrekin batera jan ahal izango da. Dragoi haragiarekin bete ez direnentzat postrea egongo da eta edaririk ere ez da faltako.**

**21:00etan batuko dira arrasatearrak Herriko Plazan eta amaitzeko ordu zehatzik ez egon arren, 23:00 aldean bukatuko da. Giro onean afaldu eta gero, jaiaz gozatzen jarraitzeko ordu bikaina.**




Urteko asteburu guztietan eskaintza berezia logela bikoitzean:
51, 40 euro + BEZ-a.

Ondo pasau San Juanak!

Biteri Etorbidea 16. ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 Faxa: 943 71 23 43
www.hotelmondragon.com
posta-e: hotelmondragon@hotelmondragon.com

HOTEL MONDRAGÓN

PILOTA JAIALDIA

# Mikel Goñi eta Titin III.a aurrez aurre, berriro, sanjuanetan

## Bi pilotari horiek inauguratu zuten Uarkape, 9 urte dela

XABIER URTZELAI

**Arrasateko pilotalekua inauguratu zuten bi pilotariek jokatuko dute elkarren kontra San Juan jaietarako antolatu duten jaialdian, hilaren 22an, 17:00etan.**

Ezer idazten hasi aurretik, barkamena Abel Barriolari. Besteak beste, aurtengo buruz buruko finalera iritsi den pilotaria Arrasaten egongo dela jakinda –finala jokatu aurretik idatzitako artikulua da hau–, ez da zuzena Mikel Goñiren izena izenburuan azpimarratzea. Zuzena ez, ia-ia bekatua da, bi pilotari horien palmaresaren artean dagoen aldea sekulakoa da-eta. Eta, hala ere, Mikel Goñiren –azkenaldian formal ei dabil– eta Titinen arteko zeingehiagoka azpimarratu dugu hemen. Bai, atzean izango dira Abel Barriola eta Nalda III.a, esan barik doa bikote bakoitza non den indartsu.

**Mikel Goñik eta Titinek abuztutik ez dute elkarren kontra jokatu**

**Sarrerek joan den urteko prezio bera izango dute: 15 euro**

Bederatzi urte igaro dira Titin III.ak eta Mikel Goñik Uarkapeko inaugurazioan jokatu zutenetik. Orduan, Oronozkoak Zezeagarekin jokatu zuen, eta errioxarrak Elkoro izan zuen bikotekide. Partidu hartan Titin III.a eta Elkoro gailendu ziren, 22-11.

Horren atzera joan barik, Mikel Goñik eta Titinek elkarren kontra azkenekoz jokatu zutenetik 10 hilabete igaro dira. 2007ko abuztuan, Goñi Aspek emandako hamaikagarren aukera aprobetxatzeko ahaleginetan zebilen, eta Titin hirugarren gaztetasunaz gozatzen. Partidu hartan ere Triciokoa izan zen onena (22-8) eta handik gutxira, Mikel Goñi sasoi baterako kantxetatik kanpo uztea erabaki zuen Eibarko enpresak; beste pilotariak, berriz, lau t'erdiko txapela jantzi zuen. San Juanetan, horrenbestez, kirol ibilbide erabat ezberdinak izan dituzten bi pilotari izango dira aurrez aurre: biak trebeak, biak ezkertiarrak, biak odol berokoak; baina biak erabat ezberdinak.


Titin atzean Gonzalez duela. GOIENKARIA

**SARRERAK 15 EUROTAN**

Sanjuanetako pilota jaialdiko sarrerek joan den urteko prezio bera izango dute: 15 euro. Eta jaialdia hasi baino apur bat lehenago erosi ahal izango dira, Uarkapen bertan. Gainera, aipatutako pilota partidu nagusiaren aurretik beste partidu bat ere antolatu dute Aspe enpresako arduradunek. Hor, Galartza V.ak eta Apeztegiak Berasaluze IX.aren eta Galartza VI.aren kontra neurtuko dituzte indarrak.

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA
Jai goxo-goxoak izateko
Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34 Ondo pasau San Juanak!



Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11
"la Caixa"

OMU
KERAMIKAK

zeramika
•
bainuak
•
eraikuntzarako
materiala



BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 •Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20

ONDO IBILI SAN JUAN JAIETAN!




Ondo pasa San Juanak !!
KOOP. E.
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com
1979urtetik
zure zerbitzura
EGUZKiGRAF
inprimategia


UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak
K21
Ondo pasa
San Juanetan!!
altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30
erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

TXOSNAK

# Txosnek parte hartzea indartu gura dute

**'San Juanetako garrak ixotuko dittu baztarrak' lelopean egitarau berriztatua antolatu du Txosna batzordeak; gustu guztietarako ekitaldiak daude horretan**



Txosna batzordeak makalaren igoera antolatu du astelehenerako. GOIENKARIA

MIRIAN BITERI

**Txosna batzordeak ahalegin berezia egin du aurtengo jaiei begira, arrasatearren parte-hartzea bultzatzeko asmoz.**

Berrikuntza askorekin dator aurtengo jaietako txosnetako egitaraua. Txosna batzordeko kide Joseba Iglesiasek horien guztien berri eman digu. Zapatuan, esaterako, arrasatearrak eta oñatiarrak karaokean neurtuko dira. Egun berean, gainera, boulder txapelketa izango da goizean. Orain arte Santamasetan baino ez da egin.

**FILM PORNOEN LEHIAKETA**

Domekan, berriz, film pornografikoen bikoizketa lehiaketa egingo dute txosnagunean, lehenengoz. Astelehenean Koadrila Eguna egingo dute, eta, hori behar bezala ospatzeko, bazkaria antolatu dute gaztetxean. Gainera, aurtengo jaietako parrandazale handienak Urrezko Dragoia saria jasoko du. Bi hilabete eman ditu batzordeak egitaraua prestatzen.

## Ekimenez beteriko sei egun prestatu ditu Txosna batzordeak

**ZAPATUA**

Amalurraren eguna. **10:00**etarako, boulder txapelketa antolatu dute; 12:00etan, txupinazioa eta txosnaren irekiera egingo dute eta jarraian, doke txapelketa; 13:30ean, Dragoialde txarangarekin poteoan ibiliko dira; 15:00etan, bokata janaren txanda iritsiko da txosnagunera; 16:30ean, koadrilen arteko herri olinpiadak egingo dituzte; 19:00etan, Arrasate eta Oñati karaokean lehiatuko dira.

**DOMEKA**

Aurreberoketia leloko eguna. **18:00**etan, film laburrak eta txokolate-jana izango dira; eta ondoren, film pornografikoen bikoizketa lehiaketa.

**ASTELEHENA**

Koadrilen Eguna. Eguerdian emango diote hasiera asteleheneko egitarauari. **12:00**etan, kantu poteoan ibiliko dira; 14:30ean, koadrilekin bazkaria izango da gaztetxean; 17:00etan, Makalaren igoerari hasiera emango diote, Dragoialde txarangarekin girotuta; eta **01:00**etan, euskal presoen etxeratzera aldarrikatzeko manifestazioa egingo dute herriko kaleetatik.

**MARTITZENA**

Gazte Eguna. **10:00**etan, txaranga kaleak alaitzeaz arduratuko da; 17:00etan, grafiti erakusketa izango da, malabarekin girotuta; 19:00etan, bestalde, kontzertuei eta gazte ekitaldiari hasiera emango diete.

**EGUAZTENA**

Askatasun Eguna egingo dute eguaztenean. **12:00**etan, bertso poteoari hasiera emango diote; **14:30**ean, txosna gunean bazkaria izango da; **17:00**etan, preso eta iheslarien senideei omenaldia egingo zaie; eta 17:30ean, Ginkana izango dute.

**EGUENA**

Azken egunean, Sorgin Gaua ospatuko dute. Egun horretako ekimenak arratsaldean hasiko dira. **19:00**etan, musika taldeak agertoki gainera igoko dira. **00:00**etan, berriz, Urrezko Dragoiaren eta argazki lehiaketaren irabazleen izenak ezagutuko dira eta sari banaketak egingo dira; jaiei amaiera emateko, azken traka izango da.

Aldape Taberna Jatetxea
(Batzokia)
ONDO PASAU SAN JUANETAN!
Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.
Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69


Calcinor
QUÍMICA NATURAL

Grupo Amantegi

Kanpazar
Kobate
— harrobiak —

*Ondo pasau San Juanetako jaixetan*

**ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK**

**KANPANZAR HARROBIA S.A.**
Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

**KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**
Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



UMEEN EGUNA

# Eguzkilaru umeekin egongo da goizean haur parkean

**Txatxilipurdik hainbat ekitaldi antolatu ditu hilaren 25ean ospatuko den Umeen Egunerako**

Garibai eta Zaldibar

**Eguaztena, egun osoan**

10:30ean egingo diote ongietorria Eguzkilaruri eta 19:00etan, agurtu

MIREIA BIKUÑA

**Egitarau osoa prestatu du Txatxilipurdi elkarteak Umeen Egunerako. Eguzkilaruren bisita ere espero dute neska-mutikoek.**

Herriko txikienak izango dira protagonista hilaren 25ean; hain zuzen, Umeen Egunean. Hainbat ekitaldi iragarri ditu Txatxilipurdik, baina, duda barik, Eguzkilaruren bisita izango da garrantzitsuena neska-mutikoendako. Urteroko zitari hutsik egin barik, Eguzkilaru 10:30ean iritsiko da Garibai plazara. Bertan egongo dira giroa alaitzen herriko trikitilariak. Gero, guztiak elkarrekin Zaldibar pilotalekura joango dira kalejiran, eta hara heldu bezain laster emango dio jaiari hasiera Eguzkilaruk. Iaz bezala, aurten ere herriko neska-mutikoekin geratuko da Eguzkilaru tailerretan parte hartzen.



Eguzkilaru 10:30ean iritsiko da Garibai plazara. GOIENKARIA

**HAUR PARKEA ETA APAR JAIA**

Zaldibarko pilotalekuan egongo da haur parkea 13:30ak arte. Askotariko jolas eta tailerrak prestatu ditu Txatxilipurdik; besteak beste, kart autoak, gaztelu mugikorra, fantasiazko txirrista puzgarria, futboleko atea, ludoteka, granja etxetxoa eta konbo puzgarria egongo dira haur parkean. Bestalde, eskulan txokoan egingo dituzte Eguzkilaruko abanikoak, tatuajeak, aurpegiak, ilea eta azazkalak margotu eta sorkuntza txokoa. Bertan ikus ahal izango dira ekainean zehar Okendoko, Santa Marinako eta Usaetxeko ludoteketako haurrek materiala birziklatuz eta sormena landuz egindako apainketak.

**Bigarren urtez, Eguzkilaru neska-mutikoekin geratuko da haur parkeko tailerretan esku hartzen**

Goiz parteko jaia bukatzeko, apar jaia egingo dute Garibai plazan. Txatxilipurdik gomendatzen du bainujantzia eroatea apar jaian parte hartu ahal izateko.

**ARRATSALDEAN, GEHIAGO**

Arratsalderako ere plan polita antolatu dute Txatxilipurdikoek. 16:30etik 18:30era jolasparkea eta eskulan txokoak martxan jarriko dituzte berriro ere. Gainera, merienda eta zurrupaki trokipakala egiteko aukera izango dute gaztetxoenek. 18:30etik 19:00etara, txaranga txikiarekin batera, Monterron parkera kalejiran egingo dute, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Eskerrik asko* saioa ikusteko.

Uarkape
jatetxea
San Juan zoriontsuak !
Plater konbinatuak, bokatak,
eguneko menuak, karta
Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
Jai zoriontsuak!!!
KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua
Maalako Errabala 6, ARRASATE Tel.: 943.79.04.34


Sikol
LENTZERIA
Olarte 31 Arrasate
Tel.: 943 79 89 32

Tapiceria AINUR

Tapizatu lanak
Sofak,
Besaulkiak,
Aulkiak,
...
Kontsulta gaitzazu:
680 826 555 - 943 791 943 telefonoetan

ELKARRIZKETA | PIRRITX ETA PORROTX | PAILAZOAK

# "Piraten abenturak biziko ditugu haurrekin"



Pirritx eta Porrotx piraten bandera eskuan dutela. KATXIPORRETA

MIREIA BIKUÑA

**Euskal Herriko pailazorik ezagunenak datoz San Juan jaietan, Pirritx eta Porrotx. Haiekin egin dugu berba, Arrasatera ekarriko duten ikuskizunaz.**

***Eskerrik asko* ikuskizuna egingo duzue San Juan jaietan, baina, zer da *Eskerrik asko*?**

Herririk herri darabilgun ikuskizunean, gure lagun Mari Motots da protagonista. Dituen mototsengatik ezagutzen duten neska-mutikoek, baina, oraingo honetan, ez ditu mototsak, gaixo dago-eta. Hain zuzen, minbizia du. Ospitalean dago eta sendatzen den artean, Pirritx eta biok bisita egitera joango gara, eta gura badute, Arrasateko neska-mutikoak ere gurekin etor daitezke ospitalera.

Gainera, Mari Mototsekin batera, beste hainbat pertsonaia ezagutzeko aukera izango dugu: Joxe aitona zaharra, Mari Mototsen amatxo, Nagore sendagilea eta zaindaria. Guztiekin batera, abestiak kantatuko ditugu, eta Joxe zaharrarekin eta Mari Mototsekin piraten abenturak biziko ditugu.

**Hortaz, Arrasateko eta inguruko neska-mutiko guztiak daude gonbidatuta?**

Bai horixe! Ordu eta erdiz elkarrekin egoteko aukera izango dugu, eta minbiziari buruzko gauza asko ikasiko ditugu Nagore sendagilearekin. Suhiltzaileen bisita ere izango dugu, eta bukeran, guztiondako marrubizko muxuak banatuko ditugu.

**Nolakoak dira Debagoieneko haurrak?**

Hainbat herritan egin ditugu ikuskizunak, Oñatin, Bergaran, Eskoriatzan... eta guztietan oso ondo pasa dugu. Porrotx eta biok oso gustura joaten gara zuen ibarrera. Zortea dute Debagoieneko umeek, 30 herritan Mari Mototsen abenturak ezagutu barik geratu dira-eta.

> "Bukaeran marrubizko muxuak banatuko ditugu"

> "Maite zaitut abestiak muga guztiak apurtu ditu"

**Gurasoak ere joaten dira zuen ikuskizunak ikustera.**

Pailazoak ez dira umeendako bakarrik. *Maite zaitut* abestiak erakutsi du pailazoak ez direla bakarrik ume txikiendako. Kanta horrek muga guztiak apurtu ditu. TAUk eta Bartzelonak, Palaun jokatutako finaleko norgehiagokaren atsedenean, *Maite zaitut*-en euskarazko bertsioa jarri zuten, eta Anoetan, Reala eta Salamancaren arteko partiduan ere bai.

**Noiz arte jarraituko duzue *Eskerrik Asko* ikuskizunarekin?**

Azken emanaldia azaroaren 15ean egingo dugu Kursaalean. Diskoa egiten lagundu diguten lagunek parte hartuko dute, eta Euskal Herriko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteko (Aspanovas) kideek ere parte hartuko dute.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

ZABALA
oinetakoak
60 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun San Juanak!
Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27

Jose Antonio
ile apaindegia

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

ARPE
Ile apaindegirako artikuluak
Kontzeziño 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09


100 urte
• Arrasaten,
• Arrasaterekin,
• Arrasaterentzat.
Casa Ceciaga
Maalako Errabala, 3 · 20500 ARRASATE
Telf-Faxa: 943 791262
Jai zoriontsuak opa dizkizugu!

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

EZ DAGO EZER **EROSKETAK** EGITERA JOAN NAHI ETA **DENA ITXITA** AURKITZEA BEZALAKORIK

**Hogei minutu baino gehiagoko ibilaldia egin duzu. «Gaur erosketa egun tipikoa izango da»** pentsatu duzu, atera baino lehen. Izan ere, azkenean harrapatu duzu egun libre bat, eta aprobetxatu nahi duzu. Gona zeuretzat, urtebetetzeko oparia semearentzat, eta gerrikoa senarrarentzat. Ez dago ezer, erosketak egitera joan nahi eta dena itxita aurkitzea bezalakorik. Zeure asmoetatik aldentzen zaituzten pertsianak, eta aitzakia bat: jaieguna da.

**Egiozu mesedea zeure buruari, eta ez etorri Donibane jai hauetan... beharbada gustatu egingo zaizu eta!**




el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
www.el-boulevard.com

**TAPEPLAS**

# Bartzelonatik Arrasatera 'Monkeys' ikuskizunarekin

### Dantza eta erritmoa oinarri duen ordubeteko ikuskizuna eskainiko dute Monterron parkean

Monterron parkean
**Martitzena 23:30ean**
Ekainaren 24an San Juan egunean, Tapeplasek ikuskizuna eskainiko du.

JASONE ZABALA

**Tapeplas taldeak egoitza Bartzelonan izan arren, zuzendariak Israelgoak dira. Debagoienera datozen lehen aldia da. *Monkeys* ikuskizuna eskainiko dute.**

Gure artean ez da ezaguna talde kataluniarra, baina Euskal Herrian egon dira emanaldiak egiten; adibidez, Santurtzin, *Boom Bach* (2005) lehen eta arrakasta handien izan zuten ikuskizunarekin. Ikuskizun hark ateak zabaldu zizkien mundura, eta Espainia eta atzerrian zehar ibili dira emanaldiak eskainiz bi urtean zehar.

**TALDEAREN HASIERA**

Tapeplas taldearen oinarria Israelen dago, 1999. urtean, baina proiektua 2002. urtean jarri zen martxan Bartzelonan, Sharon Lavi eta Yaron Engleren eskutik –taldearen zuzendariak.

Taldea zortzi pertsonak osatzen dute gaur egun. 2007an Tapeplas sortu zuten, eta horrekin batera formatu handiko *Monkeys* izeneko ikuskizuna.

**Musikan islatzen den dantza eta erritmoa du oinarri**

*Kexev Kezev* du izena euren beste ikuskizun batek, baina hura umeei zuzenduta dago.

**'MONKEYS' IKUSKIZUNA**

San Juan egunean, ekainaren 24an, eskainiko duten ikuskizunak, *Monkeys*-ek, musikan islatzen den dantza eta erritmoa du oinarri, eta bi horiek adierazpenerako tresna gisa erabiltzen dituzte. Ezarian sortu eta itzulkorra den mundu bat sortzen du ikuskizunak, eta *Monkeys* hitzaren esanahia hortik datorrela diote. Hain zuzen ere, ikuskizuna ikusle guztiei dago zuzenduta, baina batez ere ikusle gazteei. Ikuskizunak ordubeteko iraupena dauka, gutxi gorabehera, eta haren funtsa, aurrez esan bezala, erritmoan dauka.



Tapeplas taldeak *Monkeys* ikuskizuna eskainiko du Arrasaten. TAPEPLAS

AENOR
Empresa Erregistratua
ER-0238/2/97
ferrovial
CESPA
ISO 14001 GESTION AMBIENTAL SGS

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88
mondragon_cespa@cespa.es

# SAN JUANETAN EZ GAZ DANOK!




# ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Iturriotz, Irati, Iluntz, Ekaitz, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Taupa, Dat.**

MARGO LEHIAKETA

# Margoek zeresana izango dute jaietan


Maila handia izaten dute parte-hartzaileek, eta parekatsu egoten da lehiaketa. GOIENKARIA

**Urtero bezala, aurten ere margo lehiaketa egingo da kaleetan zehar, herritarrentzat eta kanpotarrentzat**

NEREA MENOR

**Aurreko urteetan baino partaidetza handiagoa espero da; informazio handia banatu dute margolarien artean, eta sari bat gehiago emango dute aurten.**

Ekainaren 21ean egingo da margo lehiaketa. Parte hartu nahi duenak 08:30 eta 10:00ak artean Tamayo dendan aurkeztu beharko du, Olarte kalean, izena emateko eta oinarrien kontrolerako. Gazteen kategorian oinarria librea izango da, baina nagusien atalean ez. Haientzat, oinarriaren neurria 20F izango da; hau da, 73x60. Hain zuzen, 14:30ak baino lehenago Harresi aretora eraman beharko dira lanak sinatuta. 18:00etan epaimahaiaren erabakia jakinarazi eta sariak banatuko dituzte.

Hiru talde egongo dira: nagusiena, 17 urtera arteko gazteena eta 13 urtera artekona; bakoitzean hainbat sari banatuko dituzte. Nagusien kategoriako lehenengo saria txapela eta 1.500 euro izango dira. Gainerakoetan, pintura kaxa eta erosketa txartela eskuratuko ditu irabazleak.

ELKARRIZKETA FELIX AIALA MARGOLARIA

## "Jendeak margolanei buruz berba egitea nahi dugu"


Felix Aiala.

N.M.

**Felix Aiala, aire zabaleko margo lehiaketaren antolatzaileetako bat izateaz gain, margolaria ere bada.**

**Nola datoz gazteak?**

Arte Ederretatik irten eta pintura oso modernoa egiten dute; horrelako lanak epaitzea zaila egiten zait niri, baina maila handiko jendea da.

**Margolari onak daude inguruan?**

Bai, badaude. Horietako bat, Luis Laskurain bergararra. Pintura oso erlatiboa da; niri lan errazak gustatzen zaizkit, lehenengo begiradan zer dagoen ikustea dut gustuko, baina hori nire ikuspuntua da. Lehiaketako epaimahaian hiru margolari daude. Bat oso modernoa, bestea oso klasikoa eta azkenekoa margolari-eskultorea da.

**Horrelako lehiaketa gehiago behar dira?**

Gaur egun herri askotan daude margo lehiaketak, baina irizpideak oso ezberdinak izaten dira batean eta bestean. Jendeak margolanei buruz berba egitea nahi dugu guk. Margolarien lanak begiratu eta haien gainean berriketan aritzea izango litzateke gure helburua.

Hilarion
Hilarion jatetxea-taberna
Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Talde gazteendako prezio bereziak
Larrea plaza 5 Tel.: 943 77 01 69


PATRICIA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
LUCIANO BARACHINI
GEORGES
PETUSCO
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BELEN MAIZTEGI
• Teleordainketa
• Enkarguak hartzen dira.
Ondo pasa jaixak!
LORAK
MARKOZTATZEAK


Aitor Belardenda
• Produktu dietetikoak
• Sendabelarrak
• Elikadura naturala
• Kosmetika naturala
• Dieta pertsonalizatuak
•••
ONDO PASA JAIAK!
Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

Zatoz zuregatik egin dezakeguna ezagutzera

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09



• Aurpegiko tratamenduak:
-Hidratazioa, tonifikazioa, zimurren aurkakoa, aknea.
-Elektroestimulazioa, Vacumterapia, elektroporazioa

• Gorputzeko tratamenduak:
-Zelulitisa, azal erlaxamendua
-Physiorelax masajea
-Elektroterapia, Vacumterapia, Ultrasoinuak
-Hydroterapia

• Depilazioa:
-Laserra (I.P.L - Alejandrita)
-Elektrikoa (Blend sistema)
-Argizaria: epela / tradizionala

• Solariuma; (homologatua)
• Mikropigmentazioa (homologatua)
• Makillaje iraunkorra: begiak, ezpainak eta bekainak
• Manikura, pedikura eta makillajea
• Kontsulta medikoa (kolegiatu zbkia. 6073)
• Dieta pertsonalizatua, aurpegiko eta gorputzeko mesoterapia, betegarriak, botoxa

R.P.S zbkia.297/ 05

ONDO PASAU JAIXAK!

Zeu irabazle!

Orain, 3€ bakarrik ordainduta

eskuratu Trioa Zuntz Optikoarekin
[Despega 6M + TB Digitala 70 + Deiak]

Finkoetarako Deiak, 24 orduan
TBko 70 kanal
Banda Zabala mugagabea, 6 Mb/s
Haririk gabeko modema DOAN
Sarbide-kuota sartzen da
Alta eta instalazioa DOAN



ROUTER COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15, Eibar
☎ 943 700 369

Biteri Plaza, 4, Arrasate
☎ 943 71 27 81



Eta, gainera, eskuratu
Alcatel OT 230 hau opari!

Banatzaile Ofiziala

euskaltel

Sustapen honek 2008/07/31ra arte iraungo du, eta 3 hilabetean aplikatuko da, alta ematen den egunetik. Sustapeneko kuotak: % 100eko desk. alta-kuotan (90,15 €); % 93,55eko desk. Zuntz Optikoaren hileko sarbide-kuotan (15,5 €/hil.); % 97,43ko desk. Despega 6M-ren kuotan (39 €/hil); eta % 95eko desk. TB Digital 70en kuotan (20 €/hil) edo % 96,4ko desk. TB Digital 85en (28 €/hil). Telebista produktuan, sinatzen denetik 12 hilabetez irauteko konpromisoa. 99 €-ko kargua,behar baino lehenago baja eman edo migratzeagatik.

SU ARTIFIZIALEN IKUSKIZUNA

# "Behe lainoa edo haize gutxi izatea da txarrena"

Santa Barbaratik

**Martitzena 23:00etan**

Astondoa piroteknia enpresaren eskutik su artifizial ikusgarriak izango dira.

## Areatzan dagoen Astondoa piroteknia enpresak urteak daramatza San Juanetako su artifizialen ikuskizuna egiten

XABIER URTZELAI

**Aurten ere Astondoa enpresaren eskutik su artifizialak egongo dira ikusgai martitzenean, hilaren 24an. Enpresako arduradun Izaskun Astondoak eman digu lanbide horren berri.**

Familiako enpresa da Astondoa. Zuetako askok ondo ezagutuko duzue enpresa hori, herrietako jaietako su artifizialen ikuskizunak egitearekin batera, koadrilen arteko ospakizunetarako, ezkontzetarako eta bestelako jaietarako petardo, suziri eta bestelakoak saltzen dituztelako.

San Juanetan, beste behin, ikuskizuna egingo dute. Santa Barbaratik botako dituzte su artifizialak: "Herri bakoitzak bere berezitasuna izaten du, eta horretarako teknikariak joaten dira lekua ikuskatzera. Santa Barbarako parkeak duen txarrena da zuhaitz garaiak dituela. Eta hori dela-eta, erromatar kandelak edo bolanterak ezin izaten ditugu bota".

Ondo dakigu eguraldiak goitik behera baldintza ditzakeela herriko jaiak; baita su artifizialen ikuskizuna ere: "Euria botatzea ez da horren kaltegarria. Hori bai, behe lainoa egotea da txarrena, eta baita batere haizerik ez ibiltzea ere. Komeni da haize apur bat ibiltzea, suzirien kea kentzeko. Bestela, ke larregi baldin badago ez da ezer ere ikusten.

**"Herri bakoitzak bere berezitasunak ditu; teknikariak joaten dira lekua ikuskatzera"**

### SEGURTASUN NEURRIAK

Horrelako ikuskizunen aurrean, EAEn arau zorrotzak jarraitu behar izaten dituzte: "Guk ikuskizuna saltzen diegu udalei, eta gure teknikariak joaten dira jaietara, su artifizialek botatzera. Izan ere, hori ezin dugu beste inoren esku utzi". Gainera, ikuskizuna egiterakoan segurtasun neurriak hartzen dituzte; besteak beste, babes eremu bat ezartzen dute: "Udaltzainek egiten dute lan hori, baina Santa Barbaran ez dugu aparteko arazorik izaten".



Argazkian, su artifizialen ikuskizunak prestatzen Santa Barbaran. ARRASATEKO UDALA

### EPAILE LANETAN

Astondoako lagunak hirutan izan dira Donostiako Aste Nagusian egiten duten su artifizialen txapelketan, baina egun, Izaskun Astondoa epaile lanetan ibiltzen da: "Valentziako enpresak dira gaur egun indartsuenak. Donostiako txapelketan, baina, enpresek dirua galtzen dute; azken batean, *marketing* kanpaina bat da, eta horretara bideratzen dute dirua. Nik, epaile moduan, su artifizialen koloreak, erritmoa eta berritasunen bat ote dagoen hartzen ditut kontuan".

RESUSTA
Karrikiri
Erdiko kale 38 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 01 07










OPARIAK
ETXEKO TRESNERIAK
BURDINDEGIAK
ONDO IBILI JAIETAN!

NACEX

ONDO PASAU SAN JUANETAN!




Presazko zerbait eraman edo ekarri behar duzu?
UTZI GURE ESKU - GURE LANA DA

EUSKONACEX, S.A.

SAN ANDRES AUZOA, AZERI 7, 20500 ARRASATE TEL.: 943 79 92 77 OROKORRA: 900 100 000
www.nacex.com



*Iker, zure irribarreak gurekin jarraitzen du*

ekide

**BIKE TRIALA**



Irudian Iker Lezeta jauzi ikusgarri bezain arriskutsua egiten. IKER LEZETA

# Bi horiekin ikuskizuna bermatuta dago

## Alberto Gomez eta Iker Lezeta munduko onenen erakustaldia

JOKIN BEREZIARTUA

**Munduko bike trial txapeldunak datoz aurten San Juan jaietara. Euren ohiko erakustaldia Zaldibarko frontoian egingo dute, 24an, 19:00etan**

Show Bike Trial izeneko ikuskizuna ekarri du aurten Udalak jaietarako. Zaldibarko pilotalekua, beraz, munduko trialsin onenaren lekuko izango da. Hala, Alberto Gomez eta Iker Lezeta izango dira Zaldibarren, eta euren jauzi eta akrobaziekin jendea aho bete hortz uzteko asmoarekin datoz.

Tankera horretako erakustaldietan ohikoa denez, bi kirolariak denetariko oztopo ezberdinak gainditzen saiatuko dira euren trebezia erabiliz.

**ARRISKUA ETA EMOZIOA**

Datorren martitzeneko ikuskizunera hurbiltzen denak erakustaldi arriskutsu eta emozioz beterikoaz gozatzeko aukera izango du.

Horretaz gain, bi kirolarien indar, abilezia eta doitasun maila handiaren lekuko ere izango da gertu ratzen den interesatu oro.

**MUNDUKO ONENAK**

Orain urte asko Alberto Gomez munduko txapelduna izan zen junior mailan eta oso gutxira, gorengo mailan lortu zuen munduko onena izatea. Iker Lezetaren palmaresa, bestetik, are hobea da. Donostiarra lautan izan da munduko txapeldun, hirutan Espainia mailako txapelketako irabazle eta zortzi aldiz Euskadin nagusi.

Poteoa une batez uztea merezi duen ikuskizuna izan daiteke... Zuen esku.

**Arriskuz eta emozioz beteriko ikuskizun, protagonisten indar, abilezia eta doitasun maila handiaren lekuko izango gara**

**ELKARRIZKETA** | **IKER LEZETA** | **TRIAL TXAPELDUNA**

# "Urte askotako bilakaeraren emaitza da gaur egungo Show Bike Trial ikuskizuna"

J.B.

**Iker Lezetarentzat bizikleta da bere bizitza. Munduko txapelketa lau aldiz irabazi ostean, hemengo txapelketetan zentratzea erabaki du. Jaietan emango duten ikuskizunaz aritu gara harekin.**



Aita da Iker Lezetaren entrenatzailea. I.L.

**Noiz sortu zen Show Bike Trial ikuskizuna egitearen ideia?**

Ideia ez zen data zehatz batean sortu. Urte askotako bilakaera izan da, gutxinaka-gutxinaka aurrera joan dena. Hasieran zaletasun huts moduan ikusten genuen. Gerora, eta jendeak gustuko zuela konturatu ginenean, profesionalizatzeko erabakia hartu genuen.

**Aurretik planeatu gabeko proiektua izan da, beraz.**

Bai, hala da. Hasieran egiten genuen hartatik egungo Show Bike Trialera hainbat aldaketa eta buruhauste izan ditugu. Gaur egungo erakustaldia horren guztiaren emaitza dela esango nuke.

**Zer egiten zenuten, ba, hasieran, non daude zuen *sustraiak*?**

Hasieran, auzoko jaietan lagun batzuk elkartu eta erakustaldi txiki batzuk egiten genituen. Orduan ez genuen inolako irabazi asmorik, gustuko genuelako egiten genuen, trialarekin kaleko oztopoak gainditzen ibiltzeak zoratu egiten gintuen. Baina pixkanaka, jendeari gustatu egiten zitzaiola konturatu ginenean, zerbait serioagoa egitea pentsatu genuen. Gure trialerako abilezia ikuskizun moduan planteatu genuen. Beraz, profesionalizatzeko garaia zela ikusi eta horretan hasi ginen.

**Urrats garrantzitsua. Nola joan zen profesionalizatzeko prozesua?**

Nahiko ongi. Babeslea azkar aurkitu genuen eta alde horretatik ez dugu arazo larregirik izan. Ikuskizuna borobiltzen joan gara, eta profesionalizazio prozesua gure abileziarekin batera hazten joan dela esan genezake.

**Jaio da azkenean Show Bike Trial. Noiz izan zen lehen ikuskizuna?**

Orain dela lau urte inguru eman genuen, ez dakit data zehatza, baina 2004ko udan.

**Non eta zein garaitan eskaini ohi duzue trial erakustaldi gehien?**

Normalean ikuskizunak uda partean izaten dira. Herri ezberdinetako jaietan, jaialdi berezietan... izaten gara.

**Zenbat erakustaldi eskaintzen dituzue, gutxi gorabehera, urtean?**

20-30 erakustaldi-edo. Gehienak udan izaten direnez, hiru hilabetean ematen ditugu urte osoko ikuskizun guztiak. Garai honetan jo eta ke ibiltzen gara.

**Oraindik ere izaten da beldurrik jauzi bat egin aurretik?**

Kontuz ibiltzen naiz, hori bai, baina ez da beldurra. Kontua da edozein lesiok, oso txikia izanda, ez dizula bizikletara igotzen uzten.

**"Hasieran diru asmorik gabe, gustuko genuelako, egiten genuen"**

**"Edozein lesio txikik ez dizu uzten bizikletara igotzen"**



**ELKARRIZKETA** ENERITZ TIRADOS **SAN JUANETAKO KARTEL LEHIAKETAREN IRABAZLEA**

# "Originala iruditu zait kartelerako farolen ideia"



Eneritz Tirados arrasatearra, jaietarako egin duen kartelarekin. IKER BARANDIARAN

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Herriko Plaza irudikatuz, argiaren eta ilunaren arteko kontrastea islatzen duen kartelarekin irabazi du Eneritz Tirados arrasatearrak kartel lehiaketa.**

**Nola egin duzu kartela?**

Hasi nintzen sanjuanekin zerikusia zuten elementuen bila: dragoia, sua, udaletxea… Gutxi erabilitako elementu bat eta, gainera, berezia farola zela iruditu zitzaidan. Bestalde, espiral batzuk marraztu nituen suari eusteko, baina nork bere modura interpretatu ditu. Batzuendako etxafuegoak dira, udaletxeko balkoiaren detaileak edo kantoietako arkuak besteendako…

**Buelta batzuk eman dizkiozu buruari kartela egin aurretik, ezta?**

Ordenagailuaren aurrean jarri aurretik pentsatu nuen niretzat zein esanahi duten sanjuanek, nola bereiz daitezkeen beste herri batzuetako sanjuanekin… Burura etorri zitzaidan lehen gauza, errazena, herensugea izan zen. Baina beste urte batzuetan egin izan ditut kartelak dragoiarekin, eta ez dut ezer lortu. Hortaz, Arrasateko alde zaharraren adierazle moduan farolen ideia originala iruditu zitzaidan, eta kontrastearekin jokatu dut kartela egiteko.

**"Espiralak nork bere modura interpretatu ditu"**

**"Helburua da burua martxan ipintzea eta ondo pasatzea kartela egiten"**

**Noiz hasi zinen kartela egiten?**

Aurkezteko data baino astebete lehenago. Pentsatu nuen ez nuela astirik izango, baina papera eta arkatza hartu orduko ideiak etorri zitzaizkidan, eta, azken finean, hori izaten da zailena, ideiak paperera eramatea. Ondoren, ordenagailuaren aurrean hiru edo lau ordu eman nituen marrazteko programa berezi batekin.

**Aurrez aurkeztu dituzu lanak lehiaketetara?**

Sanjuanetako kartel lehiaketara bi edo hiru aldiz aurkeztu ditut lanak, eta, astia dudanean, lehiaketaren baten berri izan eta ideiaren bat burura etorriz gero, parte hartzen dut. Helburua da burua martxan ipintzea eta ondo pasatzea, egindakoa hor geratuko da.

**Saririk irabazi duzu?**

Bergaran emakumeen aurkako indarkeria gai hartuta egiten den lehiaketa bi urtean irabazi dut. Bartzelonan kartoiarekin egin beharreko bilgarrien lehiaketa bat, CDak gordetzeko bilgarri batekin. Hiru sari eman zizkidaten, Bartzelonan lehenengo, Espainia mailan beste bat eta mundu mailan bestea.

**Baduzu beste lehiaketarik buruan?**

Astia izanez gero eta ideiak bururatzen bazaizkit, egingo dut. Santamasetan, esaterako, ez dakit denborarik ez dudalako den, baina ez dut sekula lanik aurkeztu. Hala ere, nork bere herrian irabaztea beti da pozgarria; jendea animatu nahi dut parte hartzera.




ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

CAPOEIRA ERAKUSTALDIA

# Munduko irakasle onenak Monterronen izango dira

Monterron
**Egubakoitza 22:30ean**
Europan capoeira irakasten duten hamar bat irakasle izango dira.

## Aste bukaeran nazioarteko topagunea izango da Zarautzen eta hango irakasleek erakustaldia eskainiko dute Arrasaten

MIRIAN BITERI

**Capoeira erakustaldi bikaina ikusteko aukera izango dute egubakoitz gauean Monterronera hurbiltzen direnek. Munduko profesional onenak bilduko dira agertoki gainean.**

Joan den urtean capoeira erakustaldiak goraino bete zuen Monterron. Eta orduan izandako arrakasta errepikatu gura dute aurtengo jaietan. Hala, kapoeira ikuskizuna bigarrenik antolatzea erabaki dute. Hitzordua egubakoitz gauean jarri dute, 22:30ean, Monterronen.

Aurtengo erakustaldia berezia izango dela jakinarazi digu Senzala Euskadi taldeko irakasle eta ikuskizun horren antolatzaile Igor Ezpeletak. Eguenean Senzala Euskaldi Batizado nazioarteko topaguneari hasiera emango diote Zarautzen. Astelehenera arte iraungo du horrek. Europan zehar capoeira irakasten duten irakasle brasildar onenak bilduko dira topagune horretan. Egubakoitzean, hala ere, geldiunea egingo dute eta Arrasatera etorriko dira, erakustaldi bikaina eskaintzera.

**HAMAR PROFESIONAL**

Ezpeletak esan digunez, guztira hamar profesional igoko dira Monterrongo agertokira; tartean, Debagoieneko irakasleren bat. Eskainiko duten ikuskizunak ordu erdi eta berrogei minutu bitartean iraungo duela ere adierazi du. Erakustaldian musika tresna bereziak joko dituzte, hala nola panderoa, danborra edota *berimbau* izeneko musika tresna, besteak beste.

Ikusi gura duenak ez du ezer ordaindu beharko; doakoa da-eta Monterronen egin behar duten erakustaldia.

**Ordu erditik gora irauten duen ikuskizunean musika tresna asko erabiltzen dituzte**



Iazko jaietan ere capoeira erakustaldia izan zen Monterronen. GOIENKARIA

**MORROIEK SORTUA**

Senzala Euskadi taldeko irakasleak azaldu duenez, capoeira morroiek sortutako "ikuskizuna" da; musika eta dantza nahasten dituen mugimendu erritmikoz osatutako arte-martzial akrobatikoa da, hain zuzen. "Indarra, oreka, kirola eta kultura nahasten dituena", dio Ezpeletak.

Capoeira bi kontutan aldentzen da bestelako jardueretatik: alde batetik, Ezpeletak inprobisazioan oinarritzen dela azpimarratu du: "Inprobisazio lan horrek bizitasuna ematen dio erakustaldiari berari". Bestetik, ikuskizunetan zuzeneko musika dagoela gogorarazi du. "Horrek jendearen parte-hartzea ahalbideratzen du", aipatu du.

HORTZ KLINIKA UARKAPE
Nicolas Bermejo doktorea
Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak
Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

ONDO PASAU JAIXAK!
ARRASATE-MONDRAGON
Maalako Errebala, 31 · Tel. 943 797 011
Barceló BIDAIAK


Lore
Lurrindegia eta estetika zentroa
Olarte 10 • ARRASATE
943 79 52 50


BARRUKO GARRA ATERA...
...JAIETAN ETORRI GURERA
ONDO IBILI SAN JUANETAN!
AMETS • BENGOA • BRANKA • EDERRA • EXPRESS • IAMAI •ITZALA • MONTE • OKOROTEGI • OSTANTZ • RUMBA •TXOKO
SAN JUAN JAIAK 2008 ARRASATE




Carrascal
Caroztegia

SUKALDEKO ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

EKUTIO KALEA 4, PAB. 14-15
URIBARRI AUZOA
20500 ARRASATE
Tel/fax.: 943 79 01 82
scarrasc_@infonegocio.com

Zeure neurrira, zeure gustura






ONDO PASA SAN JUANAK!

ZAHIR CIRCO

# Oreka ikuskizun bikaina, Zahir Circo taldearekin

**Hiru kide, hiru herrialde eta oreka eta abileziak bat eginda ikusteko aukera emango dute akrobatek**

Seber Altuben

**Eguena 18:00etan**

Zahir Circok oreka eta abilezia ikuskizuna eskainiko du ekainaren 26an.

JASONE ZABALA

**Zahir Circo hiru kidek osatzen dute: Kike Aguilera, Luciano Martin eta Jordan Pudev-ek. Mota guztietako akrobaziak egiten dituzte.**


Zahir Circoko kideak emanaldi batean. ZAHIR CIRCO

Taldea sortzeko lehen harria 2001. urtean jarri zuten Aguilera eta Martinek. Nork bere ikuskizun taldea zuen, eta Tarregako nazioarteko jaialdian, nor bere taldearekin irabazle izan zen modalitate ezberdinetan. Baina Zahir Circo proiektua sortzeko beste lau urte itxaron behar izan zituzten, hau da, 2005 arte. 2008. urtean, Pudev, hirugarren kidea, gehitu zen taldera. Hiru kide taldean, eta bakoitza herrialde desberdin batekoa: Argentina, Katalunia eta Bulgaria.

**LEHEN ALDIZ DEBAGOIENEAN**

Arrasatera etorriko diren lehen aldia izango da. Taldeko kide Kike Aguilerak hauxe adierazi digu: "Debagoienera gatozen lehen aldia da; aurretik, baina, Euskal Herriko beste herri eta hiri batzuetan egon gara emanaldiak eskaintzen, hala nola Arrigorriagan, Gasteizen, Bilbon eta Irunen –ekainaren 27an egongo dira bertan–, baita inguruko beste leku batzuetan; esate baterako, Logroñon, eta Estatuko beste leku batzuetan ere".

**Oreka mantentzeko ezinezkoak diruditen ariketak egiten dituzte, modu horretan beraien abileziak erakutsiz**

**AZKEN PROIEKTUA**

Eguenean Arrasaten eskainiko duten ikuskizunak *Einstein, el atómico y el relativo* du izena, eta taldearen azken proiektua izan da. "Jendea 45 minutuan aho zabalik utziko duen ikuskizuna izango da", Aguileraren esanetan. Taldea osatzen duten hiru kideek, ikuskizun dotorea eskaintzeko, nahiko daukate gortina bezala erabiliko duten gurpil antzerako bat, mahai bat eta txatarra pila bat izatea agertoki gainean. Hiru elementu horiekin jolastu egiten dute eta nolabaiteko magia sortu: mahai soil bat agertoki bihurtzen dute. Oreka mantentzeko ezinezkoak diruditen ariketak egiten dituzte, modu horretan beraien abileziak erakutsiz. Ondoren, gortina bezala erabili duten gurpilarekin hainbat oreka saio egingo dituzte, barnera sartuta, eta, ikuskizunari amaiera emateko, burdinazko 7 metroko barrarekin akrobazia ezberdinak egingo dituzte, guztiak aho zabalik utziz.

Koro Zabaleta

Zerkaosteta 4. Arrasate. Tel.: 943 79 57 21
korozabaleta@yahoo.es

Ondo pasa jaietan!

IKUSKIZUNA

Herriko Plazan
**Ekainak 21**
**19:00etan**
Istonio *clown* argentinarraren ikuskizuna Herriko Plazan: zirkua eta musika.

# Magia, musika eta zirkua, Istonio 'clown'-aren eskutik

## Istonio argentinarrak 'En la pista' ikuskizuna eskainiko du sanjuanetan; ekainaren 11 ezkero Europan dabil Istonio

ARANTZAZU EZKIBEL

**San Juan suarekin batera, jaietako protagonista izango da aurten Istonio. *Clown* argentinarrak musika eta umorea uztartuko ditu herriko jaietan egingo duen ikuskizunean.**

Jaietan umorea beharrezkoa izaten da. Jaia eta umorea eskutik doazela esan daiteke. Hala, aurtengo San Juan jaietan umorerik ez da faltako. Horretarako hainbat ikuskizun eta ekitaldi antolatu dituzte; aipagarriena Istonio *clown* argentinarraren emanaldia izango da. Zapatuan, hilaren 21ean, izango da, 19:00etan, Herriko Plazan.

**MAGIA, MUSIKA ETA ZIRKUA**

Ramiro Miranda (1975) Argentinarra dago Istonio *clown*-aren atzealdean. Istoniok Arrasaten eskainiko duen ikuskizunak magia, musika eta zirkua uztartuko ditu. Berbarik gabeko ikuskizuna da. Istonio arrakastarik izan ez duen *clown*-a da; bi maleta besterik ez du eta horiekin bidaiatzen du alde batetik bestera. Maleta bat magikoa da; bertan, eskujokoak egiteko pilotak eta bestelakoak eramaten ditu. Beste maleta, ostera, musikala da. Koloretako kanpaiak ditu eta hainbat abesti egiten ditu ikusleen laguntzarekin. Teknika izugarria duen pailazoa da Istonio; gainera, *clown* lengoaia ezin hobeto menderatzen duela argi geratzen da ikuskizunean. Ikusleen laguntza ezinbestekoa izango du ikuskizuna aurrera eramateko.

**Adin guztietako jendeak gozatzeko moduko ikuskizuna da Istoniorena**



Ramiro Miranda -Istonio-, emanaldi batean. GOIENKARIA

Adin guztietako jendeak gozatzeko ikuskizuna da Istoniok eskainiko duena. Mikrofonoaren beharra besterik ez du clownak. Ikuskizunak 40 minutu irauten du eta agertokiak 4x4 metrotako azalera hartzen du.

**ZIRKUAN HASI ZEN**

Azken hamar urteetan antzerki eta zirku ikuskizunak egiten dabil Istonio argentinarra. Boloño anaien zirkoa eta Volante Circoko kidea izan zen, bestea beste. Baina, 2003 urtea geroztik bakarrik dabil *Istonio en la pista* ikuskizunarekin. Herririk herri dabil argentinarra magia eta musika uztartzen dituen ikuskizunarekin.

Bestalde, 2005az geroztik Garibaldi antzerkiko Buenos Aires gunearen arduraduna ere bada Ramiro Miranda.

Ekainaren 11n iritsi zen Istonio argentinarra Europara. Ordutik hainbat emanaldi eskaini ditu kontinente zaharrean. Gurean ere izango da, San Juan jaietan, hain zuzen.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI · URDAITEGIA
Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak
Olarte kalea 20
ARRASATE
Ondo pasatu San Juan jaiak!

King's
Ile apaindegia
Ondo pasau jaietan!
Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88



kuadroak eta markogintza
ARTE LENiZ
Ondo pasau jaixak!
Leintzibar 4, ARRASATE Tel.: 943 79 37 64

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

arbolapeta
arrasate
beinke


koma
hizkuntza zerbitzuak
jai zoriontsuak opa dizkizue!!!
LAN MUNDURAKO SARRERA...
Zure neurriko ikastaroekin hizkuntzarekiko trebetasuna, gaitasuna... izango dira guztion helburuak.
IKASTARO OROKORRAK ETA NEGOZIOEI ZUZENDURIKOAK...
hizkuntza guztiontzat (taldeka, pertsonalizatuak...).
UDAN... IKASTARO TRINKOAK!
Umeentzat, helduentzat, enpresetako langileentzat...
AZTERKETA OFIZIALEN PRESTAKETA:
> EUSKARA (Hizkuntza Eskakizun maila ezberdinak, EGA...)
> INGELESA, ALEMANERA, ITALIANOA, FRANTSESA.
ATZERRIAN EGONALDIAK:
> INGELESA: Irlandan, Britania Handian, Estatu Batuetan, Kanadan eta Australian.
> ALEMANERA / ITALIANOA / FRANTSESA.
Informa zaitez
Koma Vitoria-Gasteiz: Sierra de Andia, 2 - 26D bulegoa 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) Tfnoa.: 945 17 00 57
Koma Oñati: Olakua, 7 - behea 20560 Oñati (Gipuzkoa) Tfnoa.: 943 71 82 08
Koma Irun: Señor de Aranzate, 14 20304 Irun (Gipuzkoa) Tfnoa.: 943 62 86 82
Koma Bilbo: Gregorio de la Revilla, 27 - 7.solairua 48010 Bilbo (Bizkaia) Tfnoa.: 944 44 86 79
Koma Arrasate: Iturriotz, 35 - behea 20500 Arrasate (Gipuzkoa) Tfnoa.: 943 71 26 31
e-mail: info@komalingua.com · www.komalingua.com

ARKU TIROA

# Lehiaketaren ostean nahi duenak jaurti ahalko du

Zaldibarko frontoia
**Domeka, 18:00etan**
Zortzi herri ezberdinetako tiratzaileek hartuko dute parte lehiaketan.

**Hamar urte beteko du arku tiro lehiaketak aurtengo jaietan**

JOKIN BEREZIARTUA

**Robin Hood Apple deritzon txapelketa horretan herri ezberdinetako tiratzaile adituak izango dira; arku tiroketa kirol gisa ezagutzeko aukera ezin hobea izango da, beraz.**


Arku tiroak ikusmina sortzen du urtero San Juan jaietan. GOIENKARIA

Ez da Debagoieneko zaletasun edo kirol nagusia izango, baina gure ibarrean badago arku tiroa praktikatzen duen bat baino gehiago. Eta ez hori bakarrik, herritar xumea ere interesatzen da arku tiroketarekin; Robin Hood-en izpirituak oraindik bizirik ei dago. Ikusi besterik ez dago tiroketa erakustaldi edota lehiaketetara hurbiltzen den jende kopurua handia.

San Juan jaietako egitarauan hutsik egiten ez duen ekitaldia da arku tiroa. Aurten, gainera, hamargarren urteurrena ospatuko dute. Hala ere, Miguel Galvan lehiaketaren antolatzaileak jakinarazi duenez, ez dute ezer berezirik egingo: "Orain arteko errutina bera jarraituko dugu".

**Bi puxika, sagarra eta uztaitxoak izango dira gezien helburu; uztaiari jotzeak balioko du gehien**

**Tiratzaile adituek 18-20 metrora jaurtiko dute; herritarrek, ordea, gertuago egin beharko dute**

**IKUSI, ETA GERO PROBATU**

Ekitaldiak, beraz, urteroko dinamika jarraituko du. Ikusteko aukera izango da lehenik, eta gero, nahi duenak geziak jaurti ahalko ditu. Hori bai, segurtasuna bermatzeko, adituek baino distantzia laburragotik egingo dituzte hasiberriek jaurtiketak.

Hala, tiratzaile adituen lehiaketa herri ezberdinetako zortzi taldek osatuko dute. Horien artean, besteak beste, Eibar, Durango, Zornotza eta Arrasatekoak izango dira. Irabazleak dirua saria jasoko du. Adituen ostean, herritarrei helduko zaie euren pultsua egiaztatzeko aukera. Horren harira, Galvanek adierazi duenez, arku tiroketa lehiaketa "ekitaldi parte-hartzailea" da. "Arku tiroa ezagutarazi nahi dugu eta horretarako modurik onena herritarrei jaurtitzen uztea da", dio Galvanek.






GOIERA
E R A I K U N T Z A K

Zure proiektuak diseinatu eta eraikitzen ditugu

• barne - berritzeak • gremioen koordinazioa • igeltserotza
• enkofratuak • proiektuak • teilatuak •fatxadak

✆ 615 75 11 47 / 610 55 72 29

ONDO PASA SAN JUANETAN!

Udalpe kalea 12, behea 20.500 Arrasate

TXOSNETAKO KONTZERTUAK

# Kontzertu guztiak txosna gunean egingo dituzte

Txosna gunean
**Zapatutik eguenera**
Kondekuan, txosna gunean, izango dira kontzertuak gauez eta arratsaldez.

**Aurtengo San Juanetan ez dute musika kontzerturik egingo Monterronen. Txosna gunean Alemaniako, Sakanako, Bergarako, Oñatiko eta batez ere Arrasateko taldeak igoko dira agertoki gainera**

## 21 zapatua

Jaietako kontzertu garrantzitsuena izango da zapatukoa. Txosna guneko agertokira Berlingo Radio Dead Ones eta Oñatiko Golpe de Estado igoko dira. Garrantzitsuena diot, Berlingo taldeak izen handia hartu duelako Europako punk-rock zaleen artean, eta berori delako musikaren alorrean San Juanetan izango den nazioarteko bisita bakarra.

2003an sortu zuten taldea eta Berlinen lehenengo eta Alemanian gerora ezagunak egin ostean, Europara salto egin zuten taldeak. Punk-rock indartsua egiten dute Radio Dead Ones taldeko lagunek, gitarra biziekin eta, hori bai, melodiak asko zainduta. Izan ere, behin baino gehiagotan Social Distortion gogora ekartzen dute.

Horiekin batera, Oñatiko punk-rock talde beteranoena arituko da agertoki gainean. Golpe de Estadok hainbat urte darama kontzertuak egiten, aurten kaleratu duten *Mi prision* diskoa prestatzeko eta bateria jotzaile berria aurkitzeko etenaldi luze bat egin zuten arren.

*Mi prision* diskoak argi eta garbi erakusten du oñatiarrek egiten dutena: *Txirli*-k gidatzen duen taldeak 77ko punka oso gustuko du, eta poliki-poliki gitarrak indartzen joan dira. Aspaldian non-nahi kontzertuak egiten dabiltza.


Radio Dead Ones taldeak punk-rocka egiten du. GOIENKARIA

## 24 martitzena

San Juan egunean bi kontzertu egingo dituzte: bata, txosna gunean, 19:00etan; eta bestea, gaztetxean, 22:00etan.

Arratsaldean herriko taldeek esku hartuko dute. Ampolla en la polla taldea iaz sortu zuten eta Garagartzan entseatzen dute. Garagartzako jaietan esku hartu zuten Los Kedaus izenpean, eta gerora izenez aldatu dira. Eskorbuto eta RIP moduko taldeen kantuak jotzen dituzte.

Eurekin esku hartuko duen beste talde bat The Convicts da. Beste lokalik ezean Aretxabaletan entseatzen duten arren, arrasatearrak dira. Punk eta Oi! musika egiten dute, eta Gipuzkoan hainbat emanaldi egin dituzte.

Chaos Kids talde gazteagoa da. Otsailean sortu zuten eta punk-rocka egiten dute, batez ere bertsioak: Social Distortion, RIP, Ramones...

Gaztetxekoan, gauean, Sakanako Hesian taldeak esku hartuko du. Tronboia, saxoa eta tronpeta ere ibiltzen dituzte, eta emaitza rock, pop eta ska nahasketa indartsua da. 2007an *Maite dugu* diskoa autoekoiztu zuten; eta Gazte Topaguneko *Zeru gorriko egunak* abestia ere.

Arrasateko Muskaria taldea 2006koa da, eta 70eko hamarkadako rocka maite dute: Deep Purple, Black Sabbath, Led Zeppelin. Euskaraz abesten dute.


Muskariakoek 70eko hamarkadako hard-rocka maite dute. MUSKARIA

DEBAGOIENAKO ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN S.L.
Jatetxeak, Tabernak, Kafetegiak, Parkeak, Dendak, Banketxeak, Sukaldeak, Bainuak, Barrualde zein kanpoaldean BERRIKUNTZAK
Zuzendariak: Carlos Rodrigues (629 533 499)
Soraya Arquero (679 455 764)

Basabe poligonoa 4, EO-11 20550 ARETXABALETA Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 Faxa: 943 77 15 03
e-mail: construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

# 25 eguaztena

Eguaztenekoa ere oso kontzertu berezia izango da. Batetik, oso gutxitan jotzen duten The Motherfuckers taldea igoko delako agertokira; eta Juan *Sangre*-k gidatutako Governors-ek ere esku hartuko duelako.

The Motherfuckers Arrasateko musikari ezagunek osatzen dute, gehienak Oi! edo street-punk eszenakoak, gainera: Enboskada taldeko Sala, Never Surrender-eko *Harri* eta *Atxi*, Des-Kontroleko Hodei, eta Ardi Galduak taldean ibilitako *Alkor*.

Street-punka beharrean, punk-rocka egiten dute Ingalaterrako eta AEBetako punk-rockaren eragina dituena. Beste taldeekin dituzten konpromisoengatik gutxitan jotzen dute.

**ROCK GOGORRA ETA MELODIA**

Governors Arrasateko Juan Sangreren taldea da, eta berarekin batera Aitor algortarra, Beñat arrasatearra eta Heloy sorazuletarra dabiltza.

Energia handiko rocka egiten dute, punk-rock eta hard-rockaren pintzeladak dituena, eta Juanen ahotsak lagunduta, melodia eta indarraren arteko oreka perfektua lortzen dute. Iaz *Itxaron beharra ez da itxaropena* diskoa kaleratu zuten.



Oñatiko Golpe de Estado . GOIENKARIA



Governors taldeak rock indartsua eta melodia ezkontzen ditu maisuki. GOIENKARIA

# 26 eguena

Ssan Juanetako azkneko egunean ere egongo da zer ikusi eta entzun txosna gunean. Arratsaldean Arrasateko Ain_1 neska taldeak hartuko du agertokia (kideetako bat gasteiztarra da). Ohiko kontzertua baino gehiago, errezitaldi eta ikuskizun nahasketa egiten dute. Biolina eta bi gitarra bi lagun dituztela, dantzak eta proiekzioak erabiltzen dituzte taula gainean. Hala ere, San Juanetan ez dituzte proiekzioak erabiliko, emanaldia egun argiz izango delako.

Euskaraz abestu eta errezitatu egiten dituzte, taldekideek eurek idatzitako kantuak. Zer esanik ez, kontzertua akustikoa izango dela.

**BERGARAKO EMON**

Bergaratik etorritako Emon taldeak ere izango du bere aukera. Musikari gazte horiek rocka eta folka reggae eta ska ukituekin aberasten dute, eta Emon talde berria den arren, azken urtean kontzertu asko egiten dabiltza.

Rock taldeen ohiko gitarra, bateria eta baxuaz gain, trikitixa eta saxoa ere erabiltzen dituzte. Are gehiago, euren asmoa da taldera haizezko instrumentu gehiago batzea. Bost bat abesti propio dituzte, eta berriak idazten dihardute. Horrez gain, bertsio dantzagarriak ere jotzen dituzte.

Orain dela gutxi Donostiako Piraten Gipuzkoa mailako txapelketan finalerdietarako sailkatzea lortu zuten.



Emon talde bizia Bergarako musikari gazteek osatzen dute. GOIENKARIA




The Motherfuckers. GOIENKARIA

IRUROK. S. L.
Eraikuntzak
Ondo pasa San Juanak!
Meatzerreka 5-bis Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 79 78 14
Apto. 246 • ARRASATE e-posta: irurok@irurok.com



ARRASATE MUSIKALEKO BANDA

# Musika alaia eskainiko du Bandak San Juan egunean

Monterron

**Martitzena, 13:00etan**

11:15ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsa eta musika banda.

## Arrasate Musikaleko bandako kideek konpartsaren laguntza izango dute goizeko kalejiran; 11:15etan, Seber Altuben

ARANTZAZU EZKIBEL

**San Juanetako hitzordu garrantzitsuenetakoa bilakatu da, urteen joan-etorrian, Arrasate Musikaleko Bandaren emanaldia. Aurten ere ez diete hutsik egingo zaleei.**

Lana gogoz egin beharko dute SanJuan jaietan Arrasate Musikaleko lagunek. Jaietako egun handian, San Juan egunean, galdu ezineko hitzordua bilakatu den kontzertua egingo dute. Monterron parkean izango da, 13:00etan.

Iker Olazabal irundarraren zuzendaritzapean zazpi pieza joko dituzte musikariek. Obrak aukeratzeko orduan kontuan hartu dute piezen estiloa: "San Juanetako kontzertuan era guztietako musika egongo da; hasi euskal kantuetatik eta gaur egungo musikara arte", azaldu du Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko ekintza arduradunak.

**ZAZPI PIEZA**

*Aire Vascos* obrarekin hasiko dute kontzertua: "Lehengo musika da, guztiok ezagutzen dugun musika", dio Aiastuik. *Frenesi* eta *Folk Dances* doinu azkarreko obrak dira. *Frenesi* estilo amerikarreko obra da. Gainera, pelikuletan entzundako musika da; hortaz, jendearentzat ezaguna. "Metal asko dauka", azaldu du Aiastuik.

*Aitziber eta Jon* Elgoibarko Muxikak sortutako musika da. "Ezkontza baterako egindakoa obra da. Monterroneko kontzertuan, musika bandak gaitariekin batera joko du", dio Aiastuik. Bukatzeko, San Juan eguneko ereserkia joko dute.

Bestalde, gogoratu hilaren 27an Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua emango duela Monterronen.



Irudian, Arrasate Musikaleko kontzertua. GOIENKARIA

**Bandak gaitarien laguntza izango du "Aitziber *eta* Jon" obran; ezkontza baterako egindako musika da pieza hori**

### San Juan eguneko kontzertuaren egitaraua

| | |
|---|---|
| *Aires Vascos Nº2* | J. Franco |
| *El Conde de Montecristo* | O. Schwarz |
| *Folk Dances* | D. Shostakovich |
| *Frenesi* | A. Domingo |
| *Aitziber eta Jon* | T. Muxika |
| *Gora Arrasate* | J. Artzamendi |
| *San Juan* | J. Artzamendik moldatuta |

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili San Juanetan!
Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

OSORIK
PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE




Traskilon

Ile - apaindegia
Arropak
Osagarriak
Pentsuak
Ondo pasa jaiak!
Ferrerias 28, C Tel.: 943 79 96 55 Arrasate

NAGUSIEN EGUNA

# Udalak herriko nagusiak omenduko ditu hilaren 24an

## Jarduneko alkateak harrera egin ondoren luncha izango da



Guztiendako jan eta edateko nahi adina izango da Abaroan. GOIENKARIA

MAIDER ARREGI

**Aurten ere herriko nagusiei merezitako omenaldia egingo die Udalak. 80 urtetik gorako arrasatearrek San Juan egunean jasoko dute omenaldia, Abaroan.**

San Juan egunean urteroko ohitura bilakatu da 80 urtetik gorako arrasatearrak omentzea. Izan ere, sanjuanetako jai egitarauaren barruan, Udalak urtero omendu nahi ditu herriko nagusiak.

Hilaren 24an egingo zaie harrera beroa Abaroara gerturatzen direnei.

**LUNTXA ETA OPARIAK**

Ekitaldia 12:30ean hasiko da. Jarduneko alkateak, Oihana Aranburuk, agurra egingo die Abaroara gerturatutako herriko nagusiei. Hala, harrera ofizialean hitz batzuk eskainiko dizkie jarduneko alkateak eta ondoren luncha izango dute. Bazkaria ez izan arren, nahikoa jateko eta edateko izango da guztiendako. Izan ere, askok bazkari gisa hartzen dute antolatutako luntxa.

Kultura Sailetik adierazi digutenez, *catering* enpresa bat kontratatu dute luntxaz arduratzeko. Enpresa hori, ordea, ez da Arrasatekoa; izan ere, Arrasaten jaieguna da.

Omenaldian parte hartzen dutenen artean, emakumezko nagusienak eta gizonezko nagusienak omenaldi berezia jasoko dute. Hain zuzen ere, lore sorta jasoko dute udal ordezkarien eskutik nagusienek.

Aurten ere ez dira esku hutsik joango, guztiendako izango da-eta oparitxoa. Aurreko urteetan denetik oparitu diete: aterki txikiak, boligrafoak, giltzatakoak eta abar. Urteroko oparia, beraz, gerturatzen direnendako. Aurten ez digute aurreratu zein izango den oparia, eta, beraz, sorpresa izango da.

Kultura Sailak hunkigarria eta polita dela adierazi du urtero egiten zaien omenaldia. Udaletik gaineratu dute nagusi guztiei aukera ematen dietela omenaldian parte hartzeko. Aurten ere ehundik gorako esku-hartzea espero dute, iaz ere 130 bat nagusik hartu zuten parte eta.

**Arrasaten, guztira, 80 urtetik gorako 1.138 herritar daude**

**Horietatik 753 emakumezkoak dira eta 385, berriz, gizonezkoak**

**IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA**

Interesa duten guztiek BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzua) eman beharko dute izena. Bi baldintza bete behar dira, ordea: 80 urtetik gora izatea eta arrasatearra. Horretarako, Nortasun Agiria eraman beharko dute, aipatu bezala, BAZera. Izena emateko azken eguna bihar da, ekainak 18, eguaztena.



IRRATI-TELEBISTA

# Etxeetara zabalduko dute jai giroa Goienako uhinek

## Egubakoitzean hasiko dira jaietako saioekin irratian, eta telebistan eguaztenean, hilaren 25ean, egingo dute saio berezia

Programazioa
**Arrasate Irratia**
Egunero
10:30 - 12:30
**GOITB**
Eguaztena, 25
21:47

GOIENKARIA

**Jaien zelataririk finenak Arrasate Irratiko mikroak izango dira eguneroko saioan. Telebistan une eta irudirik ikusgarrienak saio berezi baten jasoko dituzte eguaztenean.**



Udan egin izan duten moduan (argazkian) Goienako kazetari eta teknikariak kalean izango dira jaietan. ARTXIBOA

Herriko jaien leku-ko zuzen eta entretenigarria izatea izango da Arrasate Irratiaren eta GOITBren helburua jaietan. FMko 107.7aren bitartez jai giroa etxeetara zabalduko dute Ubane Madera eta Jon Berezibar esatariek goizero, 10:30etik eguerdira bitartean. Eta telebistako lankideak ere ez dira gutxiago izango: jaietako une onenak eta politenak berriro ikusteko aukera egongo da eguazteneko saio berezian.

**107.7, JAIEN SEINALEA**

Arrasate Irratiak ez die hutsik egingo jaiei, inoiz baino gehiago mikrofonoak kalean egongo dira-eta. Egunero, aurreko egunaren kronika, agenda gertutik eta protagonistekin elkarrizketak jasoko ditu *Igo autobusera* saioak, 10:30ean. Jaiegunak gertutik jarraitu eta eguna ondo hasteko modu hoberik ez da egongo goizero 107.7ko seinalearekin bat egitea baino. Zozketa bereziak eta gonbidatuak egongo dira.

**SAIO BEREZIA EGUAZTENEAN**

GOITBko kamerak izango dira jaizaleen zelataririk finenak. Saio berezia datorren eguaztenean egingo dute, 21:47an: errementari dantza, San Juan sua, Dragoi Jana, Eguzki Laruri ongietorria... Hitzorduak, beraz, egunero Arrasate Irratiarekin eta eguaztenean telebistarekin.

### Berriemaileak kalean eta giroa etxean

**Festak eta lanak bat egingo dute San Juanetan Goiena Telebistan eta Arrasate Irratian. Berriemaileak jaizale eta mikrofono eta kamerak giroaren lekuko bilakatuko dira. Hala, irratiko esatariak mintzalekua utzi eta zezenetan edota salbean izango dira gertutik kronika egiteko. Irratian, saio bereziekin egubakoitzean bertan hasiko dira. Telebistari dagokionez, jarraipena eguneroko albistegian egingo diete jaiei, baina une eta irudirik ikusgarrienak eguazteneko saio berezian jasoko dituzte: besteak beste, makalaren igoera, nagusien danborrada eta errementari-dantza.**

izbar
instalaciones metálicas

RPT aluminiozko leihoen fabrikazioa, aluminio-egurra eta azken nobedadeak profiletan.

Kontraleiho errustikoak, mallorkinak eta abar.

Royal Windows
Royal Windows sistemaren banatzaile bakarra zonan

**Leihatek erakusketa:**
Okendo kalea 1, behea
Tel.: 943 79 69 91
20550 Arrasate



JUBAR ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@ euskalnet.net

DQ certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu arrasatear guztioi!




- Garajeko ateak
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak









CONSTRUCCIONES ALKESA,S.L.

ONDO PASA SAN JUANAK!

TEILATUAK (ESTALKIAK),
FATXADAK ETA EGITURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
BIRGAITZEAK
ERAIKUNTZAK
ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZA LANAK
PROMOZIOAK
IGOGAILUAK

Santa Marina 40-42 behea
20500 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 77 13 27
Mugikorra: 639 82 83 32
alkesa@infonegocio.com




Muebles
Kabía
Altzariak
www.kabiak.com
Gipuzkoa etorbidea 28
20500 ARRASATE
Tel./ Faxa: 943 79 27 70
kabiak@hotmail.com
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
BERANGO
DEKORAZIOA, SUKALDEAK ETA BAINUEN SAIL BERRIA
Tel.: 943 79 01 92
berangoal@terra.es
www.berangoaltzariak.com
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate
Gipuzkoa

mingainari tiraka

Andoni Alberdi > Embalan3ko arduraduna

# "Enbalatzearen arloa interesgarria da"

NEREA MENOR > BERGARA

**Embalan enpresa duela urtebete inguru sortu zen. Industriarako enbalatze sistema ezberdinak eskaintzen ditu, eta, enpresa gaztea izan arren, Irune, Jon eta Andoni anai-arrebak betidanik dabiltza jarduera horretan: "Gure aitak eta osabak orain 50 urte sortutako enpresa batetik gatoz", diote.**



**Interesgarria da enbalatze arloa?**
Bai; aurrerapenei esker, eta gure bezeroen esportaziorako salmenten igoeraren ondorioz, gero eta produktu interesgarri gehiago ezagutzen ari gara.

**Zertan ezberdintzen da zuen enpresa arloko besteengandik?**
Ezberdintasun garrantzitsuena da enbalatze aukera guztiak eskaintzeaz gain, neurri guztietako enbalatze integralak gure lantegian egiten ditugula. Pisu handiak manipulatzeko garabiekin, enbalatzeaz gain, logistika zerbitzua eskaintzen dugu.

**Zeintzuk dira puntako produktuak sektore honetan?**
Gaur egun, produktu mota asko dago, baina, azkenaldian, herdoilaren aurkako produktu asko ateratzen ari dira merkatura: VpCI plastikozko poltsak, e.a.

**Zer-nolako bezeroak dituzue?**
Bezero mota ezberdinak ditugu, baina torlojugintza eta makina-erreminta sektoreak dira gure bezero garrantzitsuenak.

**Pasadizo berezirik baduzue kontatzeko?**
Bezero baten makina enbalatu eta bere lekura itsasoz iritsi ondoren, kamioian kargatu eta altueraren ondorioz, zubi bat jo eta berriro bueltan enbalatu behar izan genuen, adibidez.

**Nola enbalatuko zenuke kristalezko ontzi bat?**
Guk enbalatzen ditugun produktu guztien moduan, maitasun handiz.

**Nor sartuko zenuke kartoizko kaxa batean urrun bidaltzeko?**
Politikari batzuk; denak kaxa berean, gainera.

hau be badaukogu

## Debagoieneko udal euskaltegietako ikasle etorkinak elkartu ziren Mundumiran

**Bailarako udal euskaltegietan eta Oñatiko gaztelekuan ibili dira gazte horiek euskara ikasten. Aurretik bazuten elkarren berri, Debagoieneko Mankomunitateak abian jarritako euskara errefortzuen proiektu bateratua dela-eta. Marokok, Ekuadorrek, Kolonbiak, Paraguaik eta Mexikok bat egin dute euskararen inguruan. Urte osoko elkarlan eta koordinazioari esker, Arrasatera, Oñatira eta Bergarara etorri diren gazte etorkinek elkar ezagutzeko aukera izan dute Mundumiran. "Ederki pasatu genuen ostiral arratsaldea musika entzunez, eskulanak eta mandala nola margotzen zuten ikusiz".**


ELENA SAN MARTIN

bere ustez


Iñigo Garitano

## Datorren udan negu gorria (batzuentzat)?

Azkeneko aste hauetan krisi ekonomikoan gaudela ohartzen ari gara. Bat-batekoa izan da. Espainiako hauteskundeak egin eta hurrengo egunetik hasi gara entzuten ekonomia okertu egin dela, ziklo baten bukaeran gaudela. Penduluaren beste muturrerantz abiatu gara.

Egoera honek burura ekarri dit 1992an gauza antzerakoa bizi genuela (Expoa eta Joko Olinpikoak bukatu eta hurrengo egunean, krisia).

**"Ondorioak modu ezberdinean biziko ditugu herritarrok. Eta beti bezala, ahulek, okerrago?"**

Ekonomilariek diote merkatu ekonomian bukatu berri den ziklo oparo hain luzerik ez dela ezagutu eta ezinbestekoa zela oraingora iristea. Uda hasi gabe negu gorrian sartuko omen gara. Ondorioak modu ezberdinean biziko ditugu herritarrok. Eta beti bezala, ahulenak, okerrago? Hasteko, Espainiako Gobernuak iragarri du etorkinak soberan daudela eta neurri "pizgarriak" onartuko ditu beren herrialdeetara itzul daitezen. Oparotasunean beren zerbitzuak erabili eta krisialdian, traba egiten dutenez, etxera. Zikloaren amaiera agian ezinbestekoa zen, ez dakit. Jendea merkantzia gisa erabiltzea ez da ordea ezinbestekoa. Hala, bai?

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

# Zenbaki Aholkulariak

EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland



- **Juridikoa:**
  - Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
  - Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
  - Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
  - Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
- **Laborala:**
  - Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...
- **Fiskala:**
  - Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilidadea:**
  - Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

## JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Udako ikastaroak




25 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro.
HABEko diplomak. Pertsonalizatutako ordutegiak. Bekak...

08 ikastaroa

matrikula zabalik

UDAL EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza
Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

HABEren dirulaguntzaz



## 2008 Udako euskara ikastaroak

**ESKAINTZA**
- EGA
- HABEko 1.,2. eta 3.mailak. HOMOLOGATUTA. Irailean azterketa ofizialak
- Mintzamena
- Leintzeko euskalkia
- Darabilgun euskara hobetu: okerrak zuzendu, hiztegia aberastu...
- Hitanoa

**MATRIKULA EPEA**
Ekainaren 2tik zabalik

**IKASTAROAK**
Uztaila eta irailean

**BULEGO ORDUTEGIA**
Goizez: 10:00-13:00 / Arratsaldez: 15:00-18:00

Arratsaldez:
15:00-18:00

**Beka sistema daukagu.**
**Informa zaitez Euskaltegian.**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2-4, 20.550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 21 68 / Faxa: 943 79 92 62
Intxartxueta 10, 20.540 ESKORIATZA
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



Iazko udal hauteskundeetan aukeratutako hautetsiak eta lagunak, astelehenean, prentsaurrekoa egin bitartean. MIRARI ALTUBE

**POLITIKA** > URTEBETE UDALETIK KANPO

# Hautetsi erabat zilegiak direla aldarrikatu dute

Inaxio Garrorekin harremanak ez direla guztiz hautsi onartu dute, baina "itxurakeria" tankera izan dutela diote, benetako asmoa baino gehiago

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Astelehenean bete da urtebete Udalak osatu zirenetik, eta Aretxabaletako hauteskundeetan aukeratutako hautetsi batzuek –Anjel Bergaretxe, Larraitz Arando, Iñaki Iturri eta Nerea Altuna– orain arteko ibileraren eta egungo egoeraren balorazioa egin dute.

**BOZKA GEHIEN LORTUTAKOAK**

Udala ez dela demokratikoa esan dute: "Herriaren borondatea ez duelako islatzen, ezin izan dugulako herritarren bozek emandako postua hartu". Hautetsi erabat zilegiak direla errepikatu dute, "hartarako zilegitasuna herriak ematen digulako". Eta ezin dela ahaztu esan dute, bozka gehien lortutako zerrenda izan zela. Aralarren hasierako jarrerak sortutako itxaropena hilabete gutxira atsekabe eta mesfidantza bihurtu zirela argitu dute. Era berean, onartu dute harremanak ez direla guztiz hautsi, Inaxio Garroren aldetik jarraitzeko borondatea egon dela eta parte-hartzea gauzatzeko ahalegina, "kasu askotan, itxurakeria tankera gehiago izan badute ere, benetako asmoa baino". Eta adibide batzuk aipatu dituzte, tartean, kultura etxearena: "Ez genuen parte hartu kudeaketa eredua erabakitzeko orduan –eredu horrekin ados ez gaudela esan behar–, baina lizitaziora ateratzeko pleguaren zirriborroa pasatu ziguten. Guk uste genuena jakinarazi ostean, isiltasuna berriro ere, prozesuari buruzko inongo informaziorik ez dugu jaso. Ez jasotzearren, ezta inaugurazio ekitaldirako gonbidapenik ere".

**KONPONBIDEA, ELKARRIZKETA**

Jarrera horiek guztiak egoera orokorrarekin lotu behar direla esan dute: "Izugarri gogortu dira ezker abertzalearen aurkako erasoak". Eta horren adibidea Ino Galparsororen kartzelaratzea izan dela esan dute.

Erasoaldi horren lehen lerroan EAJ ikusten dutela gaineratu dute: "Garbi adieraziz Madrilgo agintariei euren morroi fidelenak direla". EAk eta EBk ere, "salbuespenak salbuespen, arazo etiko gutxi" izan dutela diote, "inkisidoreen alde lerrokatzeko". Espainiako estatuak behin eta berriz ekin diola errepresioari gaineratu dute, "bide horretatik inora ez goazela garbi geratu arren". Eta azken urteotan aukera bat baino gehiago izan dela gatazka konpontzeko argitu dute, "bazterketarik gabeko elkarrizketa", euren hitzetan. "Horregatik, gure eskubideak eta elkarrizketa politikoaren beharra aldarrikatzen jarraitzeko asmoa dugu inposaketa guztien gainetik".

**OSPAKIZUNA** > SAN JUAN BEZPERA

# Kirol etxe aurreko zelaian egingo dituzte ekitaldiak

**M.A.** > ARETXABALETA

San Juan bezpera ospatuko dugu astelehenean, hilak 23. Aurten, baina, ekitaldi guztiak kirol etxe aurreko zelaian egingo dituzte, Herriko Plazan lanak egiten dabiltzalako.

Loramendi dantza taldearen eta Leizarra musika eskolako kideen emanaldiak hasiko du ospakizuna (18:30). Bukatutakoan buruhandiak aterako dira Iralabarri plazatik txistularien laguntzarekin, eta kirol etxerantz joango dira. Gau partea (21:00) Haitzama taldeak girotuko du. Ilundutakoan (22:20an), ostera, San Juanetako zortzikoa egingo dute Loramendi dantza taldeko kideek, eta ondoren (22:30) sua piztuko dute. Ospakizuna bukatzeko Santa Ageda neska-mutilek tantaia jasoko dute gauerdian.



San Juan sua Herriko Plazan egin izan dute aurten arte. GOIENKARIA



GOIENKARIA

## Punk-rock kontzertua gaztelekuan

Punk-rock doinuak lantzen dituzten herriko hainbat gaztek kontzertua eskainiko dute Atxagazte gaztelekuan. Bihar da (18:00), eta ateak zabalik izango dituzte sartu gura duenarendako. Hona taldea osatzen dutenak: Xabi Zugasti (ahotsa eta gitarra), Julen Lozano (gitarra), Endika Martin (ahotsa eta bateria) eta Julen Torrico (gitarra).



Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna

• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.

Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51

**HEZKUNTZA** > KURTZEBARRI ESKOLA

# Ikasleen argazkiak ikusgai daude Kubo-Kutxa aretoan

Ilan Wolff argazkilari ospetsuarekin ikastaroa egin dute seigarren mailakoek

Ekainaren 29a arte egongo dira ikusgai ikasleen lanak Kubo-Kutxa aretoan


Ilan Wolff argazkilariarekin ikastaroa egin duten seigarren mailako ikasleak. KURTZEBARRI ESKOLA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Kutxa fundazioak antolatuta, Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek ikastaroa egin dute Israelgo Ilan Wolff argazkilari ospetsuarekin. *Camera obscura* izena duen teknika erabili dute, argazkilaria lagun, eta horren inguruan egindako ariketek izugarrizko arrakasta izan dute. Ikasleen lanak ikusgai egongo dira argazkilariaren lanekin batera Donostiako Kubo-Kutxa erakusketa aretoan, ekainaren 29a arte.

**MUNDUKO ARGAZKIRIK HANDIENA**

Ibilbide luzea du Wolffek: Israelen, Holandan, Frantzian, AEBetan… eta hilabeteotan Donostian dabil. Kamera ilun batekin zelan atera argazki handiak erakusten ibili da. Horretarako, bere furgoneta erabiltzen du, eta haren asmoen artean dago munduko argazkirik handiena egitea (30 metro) Groseko hondartzan, ilargipean.

Bai Kurtzebarriko ikasleen artean, bai familietan, oihartzun handia izan du ikastaroak: "Halako esperientziak dira benetan gogoan gelditzen direnak", esan dute irakasleek.

**MENDIA**

## Pasai San Pedrotik Zurriolara irteera

Murrukixok antolatu du uztailaren 6rako, eta familia giroan egingo dute

**M.A.** >ARETXABALETA

Ikasturteko hirugarren irteera antolatu du Murrukixo Mendizale Elkarteak. Pasai Sanpedrotik Zurriolara (Donostia) egingo dute uztailaren 6an, domeka. Autobusa 09:30ean aterako da Azbeko geltokitik, eta bi ordu eta erdiko ibilbidetxoa egingo dute Donostia inguruan. Familia giroko irteera da; hau da, gurasoak, seme-alabak, aitaita-amamak… joango dira, eta bazkaria norberak eroan beharko du. Zurriolan bainatzeko aukera izango dute, eguraldia lagun.

Interesatuek izena aurrez eman behar dute, ekainaren 24an, martitzena, Murrukixoko lokalean (19:00-20:30). Bazkideek 5 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek 10 euro.

**HEZKUNTZA** > PAUSOKA HAUR ESKOLA

# Virginia Imazekin ikastaroa, gurasoek

Ezetz esateak duen garrantzia azaldu die gurasoei astean, eta mugak non ezarri gomendatu

**M.A.** > ARETXABALETA

Guraso elkarteak gonbidatuta, Virginia Imaz pailazo eta hezitzaile bergararra izan dute astean Pausoka Haur Eskolan. *Haserrealdiak eta mugak* izan da berbaldiaren gaia, eta 0 eta 3 urte arteko umeen gurasoek oso gustura entzun dituzte Imazen azalpenak, gomendioak eta bizipenetan oinarritutako anekdotak. Gaurko egunerokotasunak ezartzen duen martxa dela-eta sarritan alde batera utzita dagoen arlo emozionala oso garrantzitsua dela azpimarratu die elkartutakoei, eta ez hori bakarrik: "Semealabaren heziketan derrigorrez kontuan hartu beharrekoa da arlo emozionala".


Virginia Imaz, Pausoka Haur Eskolako gurasoen aurrean. PAUSOKA

> AISIALDIA

### Antzerkia gaur, ludotekako ikasturtea agurtzeko

Algara ludotekak oporrak hartuko ditu gaur arratsaldean, eta ikasturteari agur esateko hainbat ekintza antolatu ditu. 7 eta 12 urte arteko gaztetxoek jinkana jolasak izango dituzte (16:00). Eta gazte eta umeendako antzerkia egongo da gero. Goloka taldeak *Zintzoaren ametsa* antzezlana eskainiko du ludotekako atzeko aldean (18:00). Bazkide direnak eta ez direnak, guztiak daude gonbidatuta.

> ERROMERIA

### Benta Zarko Mutiko Alaiak taldea gaur, herria girotzen

Erromeria giroa suspertu guran eta San Juan bezpera girotzen hasteko, kalejira antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak. Benta Zarko Mutiko Alaiak taldea ibiliko da gaur, egubakoitza (19:30), kalez kale eta plazaz plaza. Urtarrilean, Txapel Txin egunean, herrian izan zen taldea da, hain zuzen, eta orduan legez, gazteak, helduak eta nagusiak, guztiak jarriko ditu kantuan eta dantzan.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITTU KOOP. ELK.
*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*
*Obra bukaerako garbiketak*
*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*
*Kristalen garbiketak*
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

**Gorka eta Deiene** > Kalexka taldeko begiraleak

# "Hartu-eman sendoa lortu dugu gaztetxoekin eta oso aberasgarria da guztiondako"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Oñatiko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio sailak antolatuta, Zu Zeuk! jaialdia egingo dute gaur plazan. Kalexka taldeko begirale Gorka Chamorro eta Deiene Totorikaguena dira antolaketaz arduratu direnak. Haiekin egon gara.**

**Nolako jaia izango da arratsaldekoa?**

Gaztetxoendako ikasturte bukaerako jaia izango da. Hain zuzen ere, bi zati izango ditu jaiak: alde batetik, 16:30etik 19:00etara, plazan, bizikleta eta skate pistak, rokodromoa, tirolina eta puzgarriak izango ditugu, besteak beste. Eguraldi txarra egiten badu, kiroldegira eroango ditugu gauza guztiak, tirolina izan ezik.

Beste alde batetik, 19:30etik 21:00etara, gutxi gorabehera, karaokea eta festa egingo ditugu gaztelekuan.

Zu Zeuk! jaia, bereziki, 12 eta 16 urte arteko gaztetxoendako da, baina guztiendako zabalik egongo da.

Gaurko jaiarekin, ikasturtea bukatzeaz gain, gure programaren nondik norakoak azaldu gura dizkiegu 11 urte dituzten umeei, datorren urtean gure ekintzetan parte hartzeko adina izango dute-eta.

**Zertan datza Kalexka taldearen programak?**

Gure proiektua, irailetik uztailera arte, gazte aisialdirako egitaraua osatzea da, horretarako, umeendako hainbat ekintza antolatzen ditugu. Gainera, azkenaldian, talde txikiagoekin hasi gara lanean, koadrilekin, alegia. Guretzat errazagoa da talde txikiagoekin lan egitea.

**Zenbat ekintza antolatzen dituzue?**

Hilero ekintza zabal bat antolatzen dugu. Dena den, gaztetxoek egiten dizkiguten eskaerak betetzen ahalegintzen gara: adibidez, Bilboko Gabonetako parkera joan ginen.

**Datorren urtean 12 urte beteko dituztenek nola jasoko dute zuen programaren berri?**

Ekintzak antolatzen ditugunean, kartelak jartzen ditugu kalean, eta ikastetxeetara informazioa eroaten dugu. Kontuan hartu behar dute gu ez garela egun eta ordutegi zehatz batean egoten gaztelekuan.

**Bigarren urtea da Kalexka taldea Oñatiko gaztetxoekin lanean dabilela. Nolako balorazioa egiten duzue?**

Gu oso pozik gaude. Lehen urtean, 900 gaztetxorekin egin genuen lan. Gaztetxoekin hartu-eman zuzena lortu dugu, eta oso aberasgarria izan da guretzako eta gazteendako. Aurrera jarraitzeko asmoa dugu.

**"Gaurko jaia, bereziki, 12 eta 16 urte arteko umeendako da; baina denondako irekia da"**

**"Hilero ekintza zabal bat egiten dugu, baina gaztetxoen eskaerak betetzen saiatzen gara"**




Deiene Totorikaguena eta Gorka Chamorro jaialdiko kartelarekin. MIREIA BIKUÑA



ELKAR HEZI

## Elkar Heziko haurtzaindegian jaialdia egingo dute gaur

Ikasturte amaierako jaia egingo dute Elkar Heziko haurtzaindegiko ikasleek eta gurasoek, gaur arratsaldean. Hain zuzen, haurtzaindegian kurtsoa bukatzen duten umeak eta irailean hasiko direnak elkartuko dira ikastetxeko lorategian. Azken orduan aldaketa egin behar izan dute egitarauan, eta Monda Lironda taldearen *Baietz lortu* emankizuna izango dute neska-mutikoek. Antzerkia bukatu ondoren, umeek eta gurasoek, beste hainbat ekitaldi egingo dituzte, besteak beste, musika eta jolasak. Goiko erretratuan daude gaurko jaialdian parte hartuko duten neska-mutikoetako batzuk.

> DEIALDIA

### 1964. urtean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute

1964. urtean jaiotakoek kinto bazkaria antolatzen dabiltza. Hain zuzen ere, uztailaren 19an egingo dute Etxe Aundi jatetxean. Dagoeneko, izenemate epea zabalik dago, eta horretarako, interesatuek Euskadiko Kutxako kontu korrontean 30 euro sartu beharko dituzte, uztailaren 15a baino lehen. Kontuaren zenbakia hauxe da: 3035 0005 36 0050044096.

Bazkaldu aurretik poteoa egingo dute herriko tabernatan, eta horretarako Oñati tabernan elkartuko dira 13:00etan. Ondoren, 14:30ean Etxe Aundira joango dira bazkaltzera, eta solasaldia egiteko aukera izango dute bazkaldu ondoren.

> KIROLA

### Udaberri Sariak banatuko dituzte bihar goizean

Eskolarteko Udaberri Txapelketa bukaerara helduko da bihar. Hain zuzen ere, sariak banatuko dituzte 12:30ean hasita. Maila eta kirol bakoitzeko sariak emango dituzte, eskola kirola koordinatu duten arduradunek. Garaikurrak eta gozokiak banatuko dituzte talde guztiendako.Udaberri Saria, herriko ikastetxeetako neska-mutikoek maiatza eta ekainean jokatu duten txapelketa da. Bertan, hirugarren mailatik hasita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailarainoko ikasleek hartu dute parte; besteak beste, eskubaloia, saskibaloia, areto futbola, patinajea, squasha eta futbola landu dituzte azken bi hilabeteotan.

>DEIALDIA

### Afari solidarioa egingo dute gaur Bidaurretan

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeak afari solidarioa egingo du gaur, Bidaurretako fraideen etxean, eta herritar guztiak gonbidatu gura ditu. Hain zuzen, 20:30ean hasiko da. Aurrekoetan bezala, afaltzeko patata tortilla letxugarekin egongo da. Afaldu ondoren solasaldia egingo dute betiko moduan, baina antolatzaileek esan digute oraindik ez dutela zehaztu nor etorriko den hitzaldia ematera.

Bestalde, Beninen (Afrika) egin gura duten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeko diru batzeko, kontuak zabalik ditu Misio Taldeak Kutxan eta Euskadiko Kutxan.

GOIENKARIA
2008ko ekainaren 20a



Argazkian, uztailaren 26an Gernika plazan kontzertua egingo duen Portugalgo Fado Em Si Bemol taldea. ESKORIATZAKO UDALA

**KULTURA** > JAIALDIA

# Errekan Gora jaialdiarekin, uztaila ikuskizunez jantzita

## Elorrioko Musikaire jaialdia antolatzen duen Arriola kultura elkartearen laguntza jaso dute

## Uztaileko zapatuetan, herriko lau lekutan, musika eta multimedia ikuskizunak egongo dira

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, herriko Aitzorrotz eta Elorrioko Arriola kultura elkarteen laguntzarekin, Errekan Gora izeneko jaialdia antolatu du uztaileko lau zapatuetarako. Elorrion egiten duten Musikaire jaialdiaren haritik, herriko hainbat lekutan ikuskizunak egingo dituzte astero, doan. Are gehiago, lehenengo edizio honetan, Elorrioko jaialdiaren antolatzaile Arriola kultura elkartearen laguntza jaso du Udalak; eta herriko Aitzorrotz kultura elkarteak hainbat zereginen ardura hartuko du: produkzioa eta beste batzuk, hain zuzen ere.

**LAU IKUSKIZUN EGINGO DITUZTE**

Lehenengo edizio honetan, Elorrioko Musikaire jaialdian esku hartuko duten artistetatik lau Eskoriatzara ere eramango dituzte; eta izango da beste ikuskizun bat herrira bakarrik eramango dutena: Logela multimedia taldearen *Mokaua*, hain zuzen ere.

Ikuskizunak herriko lau lekutan egingo dituzte: Gernika plazan, Santa Marina plazan, herriko plazan eta Huheziko klaustroan.

Txatarreria Keaton taldeko bultzatzaileak Alex Ruiz de Azua eta Bingen Mendizabal dira. Buster Keatonen filmeen soinu bandak interpretatzen dituzte.

*Teatrino dei Piedi* ikuskizunaren atzean Veronica Gonzalez dago. Hanka bereziak ditu, eta horiekin fantasiazko eta umorezko istorioak kontatuko ditu.

Portugalgo Fado Em Si Bemol taldeak fadoa eta jazza batzen ditu, fusioa landuz.

Logela multimedia taldeak zuzeneko musika eta irudiak batuko ditu *Mokaua* izeneko ikuskizun multimedian.

### Uztaileko lau zapatuetan

**5, zapatua**
23:00 Filmen soinu banda zuzenean egiten duen Txatarreria Keaton musika taldea herriko plazan.

**12, zapatua**
23:00 Hankak eta eskuak modu bitxian erabiltzen dituzten *Teatrino dei Piedi* ikuskizuna Gernika plazan.

**19, zapatua**
23:00 Logela multimedia taldearen *Mokaua* ikuskizuna Unibertsitateko klaustroan.

**26, zapatua.**
23:00 Portugaleko Fado Em Si Bemol musika taldearen ikuskizuna Santa Marina plazan.

Oharra: Logela multimediaren ikuskizuna izan ezik, gainontzekoak Elorrioko Musikairen ere izango dira.

**HIRIGINTZA** > URBANIZAZIO LANAK

# Datorren eguen edo egubakoitzerako San Juan kaleko lanak bukatuta egongo dira

**I.B.** > ESKORIATZA

Datorren eguen edo egubakoitz aldera bukaera emango diete San Juan kaleko lanei. Hala jakinarazi dute Sukia enpresako arduradunek.

Dagoeneko asfaltatze lanak egitea besterik ez da falta, eta horretan dihardute aste honetan. Hala ere, autoak bertatik pasatzeko ez dago inolako arazorik, lanak egin bitartean noranzkoak tartekatzen dihardute-eta. Dena dela, bide zaharra berrituta dago eta aste hasieratik autoak gora eta behera dabiltza.

**BIDE ALTERNATIBOA**

San Juan kalea urbanizatzeko lanak maiatzean hasi zituzten, eta etenaldi bat izan zuten, Aldundia egiten dabilen bidegorriaren Aingeru Guarda-Sorautz tramuak puntu berean bat egiten duelako.

Bidegorriaren tramu horretako zatia, San Juan kale azpikoa, egiteko ezinbestekoa izan zen zirkulazioa etetea, baina bide alternatibo bat egin zuten horretarako. Hala, Bolibarren gora eta behera ibiltzeko ez dute arazorik izan herritarrek.

Hala, dagoeneko San Juan kaleari aurreikusitako zabalera eman diote eta bertan espaloiak ere jarri dituzte.



Urbanizazio lanak bukatuta daude, baina astean asfaltatu egingo dute. I.B.

TRADIZIOA > UDAKO SOLSTIZIOA

# San Juan suaren inguruan bilduko dira astelehenean

Umeak txorimaloaren eta lore-sendorraren bila joango dira

1991n jaiotakoek piztuko dute sua plazan, 22:30ean

Suaren gainetik salto egingo dute gura duten herritar guztiek



Hainbat herritar, orain dela bi urteko San Juan suaren gainean salto egiten. Aurten ere irudi hori errepikatu egingo dute. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Martitzena San Juan eguna delaeta, bezperan sua piztuko dute herriko plazan, mendeetan atzera herrian egin duten moduan. Azken urteetan Axtroki euskara elkartea arduratu zen tradizio horretaz, baina orain dela lau bat urte Udala egin zen horren kargu. Hala ere, ekitaldiak 18:00etan hasiko dira, eta ludotekako umeek ere esku hartuko dute.

**TXORIMALOAREN BILA**
18:00etan, ludotekako umeak herriko plazan elkartuko dira txorimaloa aurkitzeko eta, bide batez, horren bila ibiliko diren bitartean San Juan loreak jasoko dituzte, datorren urtean sutan erre egingo duten lore-sendorra prestatzeko.

19:30ean, umeak berriro plazan bilduko dira, eta Udaleko arduradunek su japoniarrak jaurtiko dituzte hantxe. Ordu berean, helduendako gazta eta edariak banatuko dituzte.

**1991KOEK, SUA PIZTU**
22:30ean, sua piztuko dute herriko plazan. Aurten, 1991n jaiotako neska eta mutilek izango dute horren ardura. Aurtengo kintoak 15 dira guztira: bederatzi mutil eta sei neska. Urtero moduan, gura duten herritarrek aukera izango dute su gainetik gura beste salto egiteko. Bitartean, txistu doinuaren laguntzarekin erromeria izango da plazan bertan.

San Juan egunari dagokionez, berriz, herriko hainbat saltokitako atarietan lore-sendorra jarriko dute.

---

JAIA > ZAPATISMOA

## Aste Zapatista bukatzeko jai handia egingo dute bihar

Goizetik gauera bitartean musika, herri bazkaria eta ekitaldi ugari

**I.B.** > ESKORIATZA
V. Aste Zapatista bukatzera doa asteburuan. Aste osoan ekitaldi ugari egin dituzte herriko hainbat puntutan: kultura etxean, zaharren egoitzan, Aldatz, Inkernu eta Naira tabernetan, herriko plazan eta beste leku batzuetan.

Zapatismoaren gaia jorratzeaz gain, bestelako gaiak ere berbagai izan dituzte: hala nola militarismoa, Espainiako gerra, etorkinak, kooperatiba mugimendua, elikagaiak eta beste batzuk.

Hain zuzen ere, antolatzaileek, Aretxabaletako eta Eskoriatzako lagunek osatutako Txiapasen lagunen taldeak, nabarmendu zuten Txiapasko borrokak bizirik jarraitzen duela eta hori gogora ekarri beharra dagoela; horren alde lan egin gura dutela. Horrez gain, zapatismoaren alde egiteaz gain, gizartea aldatzeko ereduak ere aztergai izaten dituzte aste horretan.

**ZAPATUAN, JAI ERRALDOIA**
Urtero moduan, astea bukatzeko jaia egingo dute bihar, zapatua. 12:00etan txupinazo zapatista egingo dute eguna hasteko. Horren ostean, txikiteoa egingo dute, Iñaki orkestragizonaren laguntzarekin.

14:30ean herri bazkaria egingo dute herriko plazan. Txartelak salgai daude Eskoriatzako hainbat tabernatan, Aretxabaletako Txikibarren eta Arrasateko Aker dendan eta Iriztu tabernan.

Bazkariaren ostean, joko kooperatiboak eta estresaren kontrako piñatak egingo dituzte. 19:30ean, berriz, kalejira egingo dute.

Gauean hainbat taldek kontzertua egingo dute: Costa Ricako Rosa Sanchez, Cristo de Juez eta Aretxabaletako Tuneleroak.

---

LANA > TESA

## TESA enpresaren aurrean bilkurak egingo dituzte

Enpresa batzordearen gehiengoa haserre dago, lan baldintzak hobetu ez dizkietelako

**I.B.** > ESKORIATZA
TESAko enpresa batzordearen gehiengoak lanuzteei ekitea erabaki du. Ondorioz, lan-txanda bakoitzeko ordu eta erdiko geldialdiak egiten dihardute eguaztenetik, hilak 17.

Lanuzteak egiteko erabakia ekainaren 2ko batzar orokorrean hartu zuten. Hasieran, ekainaren 11n hasi behar zituzten mobilizazioak, baina garraio sektoreko greba zela-eta, azkenean hilaren 18rako erabaki zuten uztea protesta ekitaldi horiek.

**"LAN BALDINTZETAN ATZERA"**
TESAko Enpresa batzordeko gehiengoaren iritziz, zuzendaritzaren azken eskaintza "zeharo eskasa da". Euren esanetan, enpresak KPI soilik bermatzen die hiru urterako, eta gainontzeko puntuetan ez die inolako hobekuntzarik eskaintzen.

Horrez gain, enpresa batzordearen esanetan, "aurretik lortutako beste hobekuntza batzuk okertu gura dizkigute". Arrazoi horregatik, ondorioztatu dute "lan baldintzetan atzerapauso garbia" eskaintzen dietela.

**LANUZTEEN EGUTEGIA**
Lanuzteekin batera kontzentrazioak egingo dituzte enpresa aurrean. Helburua da hitzarmen duina lortzea. Enpresa batzordearen gehiengoa LAB, ELA eta CCOOko kideek osatzen dute.

Dagoeneko azaldu dute eguaztenetan gaueko errelebua 04:30etik 06:00etara geldituko dela; goizekoak eta egun osoz dabiltzanak 10:00etatik 11:30era; eta arratsaldeko txanda dutenak 16:30etik 18:00etara.

Egubakoitzetan, berriz, goizeko errelebua dutenak eta egun osoz lanean dabiltzanak 10:00etatik 11:30era; arratsaldekoek 15:30etik 17:00etara; eta gauekoek 18:00etatik 19:30era egingo dituzte lanuzteak.

---

DIRULAGUNTZAK

## Kultura elkarteei laguntzak

2008ko ekintzak diruz lagunduko ditu Udalak, agiriak aurkeztuz gero

**I.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak zabaldu du herriko kultura elkarteek dirulaguntzak eskatzeko epea. Ezinbesteko baldintza izango da Udaleko Kultura batzordearen helburuekin bat egitea; hau da, udalerrian kalitatezko kultura jarduerak eskaintzea eta herritarren eta gainerako kultura elkarteen arteko lankidetza bultzatzea.

Interesatuek 30 egun baino gutxiago izango dituzte 2008an egin dituzten edo egin gura dituzten jardueren berri emateko. Horretarako, Udalera jo beharko dute, eta zenbait inprimaki bete beharko dituzte.

**bere ustez**



Antonio Deogracias

## Neurona hiltzaileen harira

Bada El Último de la Fila taldearen abesti bat dioena: *No logro acostumbrarme aún a ser adulto.*

Eta hala da; oraindik olatu gainean ibil naitekeela nabil. Informatika ikastaroetan-eta izena ematen, oraindik gazte naizela emateko itxurak egiten.

Baina berehala konturatzen naiz nire burua ez dagoela, jada, gaztetan bezala. Hala ere, esaten diot nire buruari: serio demonio hasiko naiz, ez jakintasunak, ez jakiteagatik, hil egiten baitu.

**"Neuronak galdu egiten zaizkit burmuinean (inoiz hor egon badira!)"**

Baina, gero eta zailagoa zait ordenagailuko hainbeste zeinu, leiho… ulertzea eta albora utzi behar izaten dut hasi eta handik gutxira. Neuronak galdu egiten zaizkit burmuinean (inoiz hor egon badira!).

Urteekin dena herdoiltzen zaigu. Bada esaera bat dioena: erabiltzen ez den hodia, trabatu egiten da eta, jarioa zaildu.

Handikerietan ibiltzen gara, 18 urte genituenean moduan. Gero, baina, etxean bikoteak –urterik esan gabe– benetako adina gogorarazten digu. Eurek badakitelako noraino heltzen garen, barruan eta kanpoan.

Lagun, adinak ez du barkatzen. Jaitsi olatutik! Baina lasai, urteak betetzea baino gauza txarragoak badira-eta!

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Azalpenak eskatu dituzte lurjabeek AHTri buruz

Proiektuaren gaineko azalpenik jaso gabe zundaketak egiteko baimenik ez dutela emango jakinarazi dute Antzuolako lurjabeek

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Abiadura Handiko Trenaren azpiegiturek ukituko dituzten lurren jabeekin batzarra egin dute asteon udaletxean. Izan ere, Jaurlaritzak hainbat lur jaberi deitu zien Zumarragara joateko martitzenean, euren lurretan zundaketak egiteko baimenak behar dituztelako.

Antzuolako udaletxean egindako batzarrean izan ziren Pedro Iturbe alkatea, AHT Gelditu elkarlaneko Fernando Iturbe eta Jone Etxeberria eta EHNE sindikatuko abokatu Pavel Viñas.

Alkateak proiektuaren gaineko informazio falta azpimarratu zuen, eta baita Udalean gehiengoa AHTren aurka dagoela azaldu ere. Fernando Iturbek ere informazio falta salatu zuen, esanez,"dagoen informazio bakarra Udal ordenantza batzuetan oinarrituta AHT Gelditu elkarlanak egindako muntaia" dela. Bide batez, eskatu zuen proiektua gelditzea eta herritarrei galdetzea AHT behar den ala ez.

Lurjabeak proiektuak euren lurretan izango duen eraginaren berri ez jakiteak kezkatzen ditu batez ere, eta bileraren helburuetako bat izan zen euren eskubideak zein diren azaltzea.

Pavel Viñasek esan zien, eraikuntza proiektua egiteko, zundaketak beharrezkoak direla, eta horren aurrean zein eskubide dituzten: "Lurjabeen baimenik gabe ezin dira lurretan sartu, eta kalte ordainei buruzko txantajea erabiltzen dute baimena lortzeko, edo indarrez ere sartu izan dira hainbat lurretan", azaldu zien.

Eskubideak dituztela azaldu-ta, proposatu zieten Zumarragako batzarrera taldean joatea, eta informazioa eskatzea baimena eman aurretik.

**BATZARRA ZUMARRAGAN**

Proposamena onartu eta martitzenean, lurjabeen sei ordezkari eta Pedro Iturbe alkatea Zumarragara joan ziren, eta han batzartu ziren proiektua egingo duen enpresako ordezkariekin.

Alkateak jakinarazi digunez, "esan genien informazioa jaso arte ez dugula baimenen gaineko erabakirik hartuko, eta orduan, lurjabe bakoitzak erabakiko duela baimena eman ala ez. Hortaz, eskatu dugu Antzuolako udaletxean batzar irekia egitea azpiegiturei buruz. Eurak baimenen bila etorri zirela esan ziguten, baina gure eskaria behar den tokira helaraziko dutela".

Martitzeneko batzarraren ostean, informazioa noiz jasoko zain geratu dira bai lurjabeak eta baita udal ordezkariak ere. Izan ere, proiektuaren lehenengo pausoak dira horiek.

## Gimnasia erritmiko erakustaldia

Ariznoa klubean diharduten gimnasta antzuolarrek erakustaldia egin dute asteon frontoian. 17 lagunek egiten dituzte entrenamenduak Antzuolan, eta 15ek, Bergaran. Nagusienek txapelketetan egindako ariketak egin zituzten, modu bikainean, izan ere, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan sariak eskuratu dituzte. Txikienek ikasturtean barrena ikasitakoak jendaurrean erakusteko baliatu zuten saioa.



TXOMIN CABO

> PILOTA

### Abian da herriko txapelketako finalistak erabakitzeko fasea

Herriko eskuz binakako txapelketaren bigarren fasea hasia da. Lau bikoteren artean erabakiko da finalerako txartelak zeinendako diren. Zapatu honetan, ekainaren 21ean, partidu gehiago jokatuko dituzte. Finala uztailaren 12an izango da 18:00etan.

**EMAITZAK**

**Ekainak 14, zapatua**

Aranburu-Irizar 18 / Larrea- Aranguren 6
J. Agirre-G. Zabalo 18 / I. Zabalo-I. Agirre 17
Jauregi-Larrañaga 18 / Aristi-Aranburu 14
Urtzelai-Guridi 18 / Zabalo-Aranguren 17

**PARTIDUAK**

**Ekainak 21, zapatua**

**09:00** Agirre-Zabalo / Larrea-Aranguren
**09:45** Balerdi-Bideluze / Urtzelai-Guridi
**10:30** Lezeta-Aranburu / Aristi-Aranburu
**11:15** Aranburu- Irizar / Agirre-Iturbe
**12:00** Jauregi-Larrañaga / Ormazabal-Iturbe

> JAIAK

### Astelehenean, San Juan bezperan, arbola ipiniko dute plazan

Ekainaren 23an San Juan bezpera izanda, 20:00etan, arbola jasoko dute plazan. Oinarin taldeko dantzari helduek saioa egingo dute han eta ondoren, balkoi eta leihorik apainenen jabeei sariak emango dizkiete. Gerturatzen direnei gaileta eta edatekoa emango dizkiete.

> HEZKUNTZA

### Ekainean zabalik dago haurreskolako matrikulazio epea

Haurreskolan umeak matrikulatzeko epea zabalik dago. Gurasoek ekainean barrena eman behar dute izena eta umeak urrian hasiko liratekeela joaten. Matrikula egin nahi dutenak edo haurreskolaren gaineko argibideak nahi dituztenak handik pasa daitezke 13:00etatik 14:30era.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

> JAIAK

## San Juan jaien aitzakian, txitxi-burruntzia egingo dute astelehenean gaztetxekoek

San Juan bezperan, ekainaren 23an, txitxi-burruntzia egingo dute gaztetxearen aldamenean, 19:00etan. Sutan erreko dute haragia, eta gero, gerturatzen direnen artean banatu borondatearen truke. Bestalde, astelehenean bertan, gauean, baliteke herriko neska-mutikoek suak piztea saltoka ibiltzeko.

> MUSIKA

## Ikasturte amaierako musika jaialdia egingo dute ikasleek Espaloian domekan

Musika eskolako umeek ikasturte amaierako kontzertua egingo dute Espaloian ekainaren 22an, domekan, 12:30ean. Pianoa, gitarra, tronpa, biolina, soinua eta panderoa entzuteko aukera egongo da eta kantu bat ere abestuko dute. Gainera, emanaldiaren amaieran Elgetako abesbatzak ere jardungo du.

> JAIAK

## Azoka Nagusiko jaietako eguenean jazteko mozorroak egingo dituzte umeek kultura etxean

Uztailaren 3an, jaietako eguenean, herriko plaza galiar herrixka bihurtuko dute. Horretarako, herritarrek garai hura irudikatu beharko dute mozorrotuta. Mozorroak gertatzeko Guraso Elkartekoek laguntza eskainiko diete umeei. Gaur, egubakoitza, kultura etxera joan beharko dute 16:00etatik aurrera mozorroa egitera, jolasetan parte hartzeko komenigarria baita mozorrotuta joatea.




MIREN ARREGI

# Nacho Insaren agur partidua

Eibar futbol taldeko jokalari Nacho Insa Elgetan bizi izan da azken denboraldian. Alacanteko herri txiki batekoa da eta oporretara doanez, lagun arteko partidua egin zuten jokalaria agurtzeko. Nacho Insaren beraren taldeak irabazi zuen partidua, 6-5. Lagun giroan herrian ezagututako jendea izan zuen aldamenean Insak.

**Oxel Erostarbe** > Alkatea

# "Agintaldiko plan bideragarria eta errealista egiteko, ezinbestekoa da herritarrek parte hartzea"

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

**Urtebete da Oxel Erostarbek alkate kargua hartu zuela. Lehen urtearen balorazioa egin digu eta esan du herritarrekin hartutako konpromisoak betetzen hasi direla eta, bestetik, azalpenak herritarrei zuzenean ematen saiatzen direla.**



Aralarko Oxel Erostarbek iaz hartu zuen alkate kargua. GOIENKARIA

**Urtebete alkatetzan. Zein balorazio egiten duzu?**

Hasiberriak gara Udala gobernatzen. Informazio eskualdatzerik egon ez izanak zaildu egin zuen hasiera, baina hasita gaude gure martxan. Batzordeburuen inplikazioa izugarria da, euren denboraren zati handi bat herriaren alde egiteko ematen dihardute. Balorazio positiboa egiten dut, daukagun onena ematen ari garelako.

**Urte honetan zertan jarri duzu zure ahalegina gehienbat?**

Hartuta zeuden konpromisoak eta utzita zeuden gaiak ezagutzeak eta bideratzeak lan handia eman digu. Horiek egin ostean herritarrekin hartutako konpromisoak betetzeari ekin diogu: auditoria ekonomikoa, legealdirako plana, Salbador kalea oinezkoendako egokitzea, haurtzaindegi berria… Udalaren funtzionamenduan ere hasi gara eragiten: Hirigintza Saileko aldaketak, batzordeei erabakitzeko gaitasuna ematea…

**12 hilabeteotan hainbat erabaki hartu behar izan dituzu. Zein izan dira zailenak?**

Udalak esan dezakeenaren gainetik beste erakunde eta lege batzuek esaten dituztenak daude. Askotan, ez da samurra azaltzea zergatik txabola bat ezin den eraiki, igogailu bat ipintzeko bainemik ez den eman, autobusa ezin den baserri ondoan geratu edo lursail bat ezin den hirutan zatitu. Erabaki zailenetan ere, herritarrei azalpenak zuzenean ematen saiatzen gara, eta hori eskertzen dutela esango nuke.

**Salbador kaleko urbanizazio lanak eta haurreskola ziren zuen lehentasunak. Nola doaz bi proiektu horiek?**

Salbador kaleko lanak egiteko dirua lortu eta proiektuari hainbat aldaketa egin dizkiogu. Lanak uztailean bukatzea espero dugu. Haurtzaindegiari dagokionez, parte-hartzea aipatu nahiko nuke. Gaiarekin interesa zuten hainbat herritarrekin landu da proiektua eta bisitak egin ditugu hainbat haurtzaindegitara. Haurtzaindegia, ludoteka eta gaztelekua hartuko dituen proiektua idatzita dago, eta lanen adjudikazioa lehenbailehen egin nahi dugu, datorren urte hasieran haurtzaindegia zabaltzeko.

**Agintaldia betetzeko beste hiru urte gelditzen zaizkizu. Zein dira hurrengo erronkak?**

Legealdiko plangintza errealista eta bideragarria egitea. Elgetako etorkizunean eragingo duten proiektuak egongo direnez, ezinbestekoa da herritarrek plangintzaren garapenean parte hartzea. Hurrengo hilabeteetan horretan jarriko dugu indarra.

**Nola deskribatuko zenuke gaur egun Udalaren egoera?**

**"Batzordeburuek euren denboraren zati handi bat herriaren alde egiteko ematen dihardute"**

**"Salbador kaleko lanak uztailean bukatzea eta haurtzaindegia datorren urte hasieran zabaltzea nahi dugu"**

Orain talde batek du Elgetako Udalaren gidaritza. Aralarrek eta ANVk elkarlanean dihardugu eta gainontzeko zinegotziek badakite lan egin nahi duenak ateak zabalik dituela. Zinegotzi guztiek egiten ari garenaren gaineko informazioa dute. Herriarendako onena alderdien interesen aurretik ipintzen dugun bitartean bide onetik joango gara.

**Elgetako jaiak gainean ditugu. Zure mezua herritarrendako?**

Hainbat aldaketa daude programan. Jaiak norberak egiten ditu onak, eta parte hartzera animatu nahi nituzke elgetarrak.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi
eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

CIE Recyde
CIE RECYDE, S.A.U.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
www.cieautomotive.com
AENOR
Empresa Registrada
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

**ZUIAKO KOADRILA** > BISITA GIDATUAK

# Zuiako txoko ederrenak bisitatzeko aukera dago

Bisitak arratsaldez izango dira zapatuetan eta goizez domeketan

Hiru ibilbide antolatu dituzte koadrilako txokoak bisitatzeko

Aramaion bisita antzeztua egingo dute uztailaren 12an

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Zuiako Koadrila urteroko bisita gidatuak egiten hasi da. Aurtengo udan ere Zuiako txoko politenak bisitatu eta ezagutzeko aukera izango da, beraz. Pasa zen aste bukaeran hasi zituzten bisita gidatuak, eta urriaren 19ra arte jardungo dute horiek egiten; zapatu eta domeketan izango dira. Zuiako Koadrilako baso, baserri, dorretxe eta baselizak ezagutzeko aukera egongo da, besteak beste. Hiru ibilbide antolatu dituzte horretarako.



Zuiako Koadrila hasi da urteroko udako bisita gidatuak egiten. GOIENKARIA

**ERROMANIKOAREN IBILBIDEA**

Ibilbide horretan, Oroko Ama Birjinaren Santutegia eta Zigoitiko Olano auzoko errota bisitatuko dituzte. Oroko Ama Birjinaren Santutegia Zuiako harkaitz famatuenetan dago kokatuta. Baselizaren barnean, Ama Birjinaren irudia dago, erretaula barrokoan. Bisita hori 10:30ean izango da domeketan eta 18:00etan zapatuetan. Olanoko errota berritua dagoen eta lanean diharduen errota gotikoa da. Bisitak 12:00etan izango dira domeketan eta 19:30ean zapatuetan.

**IBILBIDE ETNOGRAFIKOA**

Bigarren ibilbide horretan, Goiuriko eliza, errota eta ur jauzia ezagutzeko aukera egongo da; 10:30ean domeketan eta 18:00etan zapatuetan. Bestalde, Izarra-Irubidaur museo etnografikoa ere bisitatuko da. Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko aukera eskaintzen dute museoan aurkitzen diren altxorrek; Irteerak 12:00etan izango dira domeketan eta 19:30ean zapatuetan.

**ARAMAIOKO IBILBIDEA**

Aramaioko txokoak ezagutzeko bisita gidatuak ere antolatu dituzte. Ibarra auzoko gune historikoa, Barajuen auzoa eta Olatezar gaztandegia ezagutuko dira ibilbide honetan. Ibarrako bisita 10:30ean egingo dute domeketan eta 18:00etan zapatuetan. Barajuengoa, berriz, 11:45ean domeketan eta 18:45ean zapatuetan. Uztailaren 12an, gainera, bisita antzeztua egingo dute Aramaion.

**IZENEMATEA ETA ORDUTEGIAK**

Ibilbidearen lehenengo puntuan izango dira irteerak, 18:00etan. Ibilbide bakoitzeko leku bakoitza, bestetik, independentea da, beraz, leku bakarrera joateko aukera ere egongo da (beti ibilbide bakoitzean zehaztutako ordutegian).Izena emateko beharrezkoa da aldez aurretik telefonoz deitzea (945 24 38 28). Bisita hasi baino ordubete lehenago deitzea nahikoa da. Informazio gehiago aurkitu daiteke *www.cuadrillazuia.com* webgunean.

**KIROLA** > PLATER TIROKETAKO ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Zilarrezko bi domina Aramaiora

Aramaioko bi tiratzailek zilarrezko domina lortu dute Espainiako txapelketan

**A.B.** > ARAMAIO

Pasa zen zapatuan, ekainaren 14an, Espainiako Mini Foso plater tiroketa txapelketan izan ziren Aramaioko Kurtzetagain elkarteko kideak. Nafarroako Baldorba herrian izan zen lehia eta aramaioarrek emaitza onak lortu zituzten: bi zilarrezko domina ekarri zituzten etxera, hain zuzen ere. Jon Nafarratek junior kategorian jokatu zuen eta 75etik 67 jo zituen. Enrike Ullibarriaranak, bestetik, taldekako kategorian lortu zuen zilarrezko domina Luis Mari Zerain gipuzkoarrarekin batera: 209 tirotatik 225 asmatu zituzten. Azkenik, aramaioarra ez den arren, aipatzekoa da Bedoñako Juan Ignacio Garaik egindako lana; urrezko domina lortu zuen beteranoen mailan, 22 asmatu zituen.

**DESAFIOA ZAPATUAN**

Kurtzetagain elkartekoek bihar, ekainaren 21ean, Amurrioko tiratzaileekin desafioa egingo dute. Amurriokoen aurka egiten duten hirugarren desafioa izango da. Lehenengo urtean amurriarrek irabazi zuten, eta iaz aramaioarrek. Kurtzetagain elkartekoak espero dute joan zen urteko emaitza errepikatzea. Uztailaren 12an, gero, bueltako desafioa egingo dute Amurrion. Bi tirada horietako puntuak batuta, urtero moduan, sariak banatuko dituzte. Uztailaren 12an Amurrion egingo duten afarian izango da hori.

San Juan jaietako tirada ere zapatuan egingo dute eta desafioko lehenengo 15 plateretako emaitzak hartuko dira kontuan sarietarako.

Iturrieta Sagardotegia

ARAMAIOKO HERRITAR ETA LAGUNENDAKO DEIALDIA

ITURRIETA SAGARDOTEGIAren BERRINAUGURAZIO JAIA



Txus, Benito, Hodei eta Juanjo pozik gara momentu berezi hau gurekin konpartitzeagatik.

EKAINAK 20 (Barikua) 19:00etatik aurrera

GONBIDATUTA ZAUDETE!

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593

**ABIADURA HANDIKO TRENA** > DESJABETZEEN AKTAK

# Akten altxamendua, bertan behera, bigarren aldiz

Aramaioko alkateak ez zituen sinatu desjabetzeen altxamenduen aktak

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaion, Abiadura Handiko Trena egiteko lurren desjabetzeen aktak sinatzea bertan behera gelditu zen pasa zen hilabetean. Hori horrela, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzak bigarren deialdia egin zuen eguaztenerako, akten sinadurak Gasteizko delegazioan bertan egiteko.

Bada, bigarren deialdi horretan ere, desjabetzeen akten sinatzea bertan behera gelditu da, Aramaioko alkateak ez zuelako akten altxamendua sinatu. Lurren desjabetzeen aktak egiteko udalerri horretako alkateak aktak sinatu behar ditu, desjabetzeen prozesua modu egokian egiten ari dela baieztatzeko. Asier Agirre Aramaioko alkateak uste du desjabetzeak ez direla baldintza onetan egiten ari, eta aktak lursailetan bertan sinatzea eskatu zuen eguaztenean. Horiek izan ziren, beraz, alkateak aktak ez sinatzeko eman zituen arrazoiak.

Alkatearen ezezkoaren ondorioz, akten altxamendua bertan behera gelditu da bigarren aldiz. Delegaziotik jakinarazi dute hirugarren deialdia egingo dutela hilabete barru. Kasu horretan, gainera, alkateak ez du baieztapena sinatu beharrik edukiko eta Espainiako Gobernuko ordezkaria bera izango da akten altxamendua sinatuko duena.

AHT Gelditu Elkarlanekoek kontzentrazioa egin zuten eguaztenean, 10:00etan, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzaren parean. Administrazioen jarrera inposatzailea izaten ari dela salatu zuten, besteak beste.

**HIRIGINTZA** > BASERRIETARA SARRERAK

# Hainbat baserritara doazen bideen sarrerak zabaldu gura ditu Udalak

Arlabango errepidetik Dorletako Amaren santutegira joango litzatekeen bidea egin gura du Udalak, baina proiektu horri zeinek heldu zain dago



Iaz azaroan konpondu zuen Aldundiak Dominaga baserrira doan bidea, eta noiz inauguratuko zain dago Udala. MIRARI ALTUBE

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Hainbat egitasmo jarri gurako lituzke abian Gatzagako Udalak datozen hiru urteotan –agintaldiak iraun bitartean–, eta horien artean lehentasuna izango duen bat baserrietara doazen bideak zabaltzea da, batez ere, bide horien sarrerak. Horretarako, Aldundiarekin egin beharko du berba, errepide nagusien ardura hark duelako.

**BIDEA INAUGURATU ZAIN**

Dominaga baserrira doan bidea da, hain zuzen, konponduta dagoen bakarra. Aldundiak egin zituen lanok iaz azaroan, eta Udala oso pozik dago: "Oso ondo utzi digute bai sarrera, bai bidea, eta orain, noiz inauguratuko zain gaude", dio alkateak.

Baina Eusebio Villar alkatearen ustetan, baserrietara doazen bideen sarrera askok zabaltzeko premia dute, eta beste batzuek, konpontzeko. Arlabango errepidetik dauka sarrera Olaun Goikoa baserrira doan bideak, eta apur bat zabaltzea komeni zaiola argitu digu.

Bestalde, Etxebarri baserrira doan bidea konpondu berri dago, eta beste bi baserritara joaten da bertatik. Gasteizera bidean herria pasatu eta segituan dauka sarrera, bihurgune baten ostean, baina oso sarrera txarra da: "Gatzagatik gora doazen automobilek ezin dute zuzenean sartu, ur-biltegi pareko zelaira joan beharra daukate buelta eman eta sartu ahal izateko", azaldu digu alkateak. Eta horri konponbidea eman gura diote.

Beste sarrera batzuetan, ostera, automobilek behea jotzen dute, eta horiek ere konpondu gura ditu Udalak.

**GATZAGAINGO SARRERA**

Baserrietara doazen bideetan ez ezik, Gatzagainen ere badaukate arazoa. Mendiko ibilgailu asko ibiltzen direla esan du alkateak, "eta horiek bideak harrotzen dituzte". Gero, euria egiten duenean, izugarrizko lokatza sortzen da, eta ez dago pasatzeko modurik. Bestalde, Villarrek uste du Gatzagainerako sarrera ez dagoela batere ondo: "Gure asmoa da, alde batetik, sarrera jartzea –irtetea debekatu– eta, bestetik, irteera jartzea –sartzea debekatu. Gainera, beste bide batzuk zabaltzerakoan, hori ere zabaldu gurako genuke. Orain ez dago ikuspen onik, eta automobilak abiada handian pasatzen direnez bertatik, oso arriskutsua da errepidera irtetea".

**BIDEA ARLABANDIK DORLETARA**

Gainera, Udalak beste bide bat egin gurako luke agintaldi honetan: Arlabango errepidea eta Dorletako Amaren santutegia lotzeko bidea. Alkateak ez dauka argi zelakoa izan beharko lukeen –mendi bidea, porlanarekin eginda…–, baina bai egin gura duela. Eta proiektu horri nork helduko zain dago, batez ere diruz lagunduko duen norbaiten zain.

**OSPAKIZUNA** > SAN JUAN BEZPERA

# Umeendako txokoak izango dira, eta gero, sardinak eta sua

Ohiturak galtzen doaz baserrietan, baina, eguraldia lagun, hainbatetan egingo dute sua



Hainbat herritar, sardinak eta saiheskiak erretzen, pilotaleku alboan. GOIENKARIA

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

San Juan bezpera ospatuko dute Gatzagan astelehenean, hilak 23. Hala, udako solstizioari ongietorria egin, eta ohitura zaharrak izango dituzte gogoan. Ekitaldi apalak antolatu dituzte, baina nahikoak ilunkara girotu eta herritarrek ondo pasatzeko.

**ASTELEHENEKO EKITALDIAK**

Ospakizuna umeendako ekintzekin hasiko dute. Sorginak emakume elkarteak tailerrak eta txokoak antolatu ditu Gatzagako ume eta gaztetxoek ondo pasa dezaten (19:00). Arratsaldea girotzen joango da horrela, eta ilunkaran (21:00), azken urteotan legez, sardinak eta saiheskiak erreko dituzte hainbat herritarrek San Migel plaza inguruan. Giro bikaina sortuko da orduan elkartutako ume, heldu eta nagusien artean, eta ospakizuna bukatzeko San Juan sua egingo dute plazan bertan (22:30).

**SUA BASERRIETAN**

Adituek esan dute jentilen ohiturek eta kristautasunak ezarritako otoitzek bat egiten dutela San Juan bezperan. Eta baserri inguruetan ondo errotuta egon dira oraintsu arte. Baina ohiturok galtzen doaz toki askotan, eta Gatzagan ere galdu da landare eta loreekin erramuak egin eta San Juan egunean bedeinkatzeko ohitura. Arantzarekin egindako gurutzeak ere bedeinkatu eta etxeko atean jartzen zituzten: "Lehen bai, baina azken urteotan galduta dago", jakinarazi digu Tere Aranburuzabala gatzagarrak. Hala ere, baserri askotan irak eta loreen petaloak botako dituzte etxeko atean gaitza uxa dezan eta uzta onak izan ditzaten urtean zehar.

Herrian, San Migel plazan egingo duten sua ez da izango bakarra. Baserri bakoitzak berea egiteko ohitura zuen lehen, eta oraindik batzuek egingo dute: "Tontortxo bat garbituta daukagu, eta badugu egiteko asmoa. Hala ere, ikusi egin behar ze eguraldi egiten duen; haizearekin, esaterako, ez dugu egingo", azaldu digu San Juan Zahar baserriko Pantxi Ibartzabalek.

**TXIRRINDULARITZA** > QUEBRANTAHUESOS 2008

# Ibarreko 160 ziklistak hartuko dute esku bihar 'Quebranta'-n



Txirrindulari taldetxo bat, iaz, Portaleteko maldak igotzen; proba jarraitzeko leku horretan batz

Bihar, 07:30ean, 8.000 ziklista izango dira Sabiñanigoko irteera puntuan Quebrantahuesos proban esku hartzeko gertu; tartean, ibarreko 160 lagun

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Quebrantahuesos Nazioarteko Klasika Zikloturistak geroago eta ziklista fidel gehiago ditu, baita gurean ere. Iaz 153 lagun animatu ziren proba horrek dituen 200 kilometro pasatxoak egitera, eta aurten zenbateko hori hazi egin da, 160 debagoiendar gogor entrenatzen ibili dira-eta –batzuk beste batzuk baino gehiago– zapatuan nork bere buruari ezarritako helburua ahalik eta txukunen betetzeko.

Baina ibarrekoak bakarrik ez, irteera puntuan izango diren parte-hartzaile kopuruak ere gora egin du, 8.000 lagun batuko direlako bihar Sabiñanigon, maillota jantzita –lau mila lagun geratu dira kanpoan.

**IBARREKO BI ORDEZKARI**

*Quebranta*-ren gainean berba egiteko, lehenengo aldiz proba hori egingo duen Ibai Madariaga arrasatearrarengana eta iaz ibarreko azkarrena izan zen Oskar Askasibar elgetarrarengana jo dugu. Bata hasiberria eta bestea beteranoagoa, biak daude ordu gutxi barru hasiko duten hitzordurako gertu.

Madariagak orain dela urte eta erdi erosi zuen bizikleta, eta iaz *Quebranta*-n esku hartzeko gogoarekin geratu zen. Hala, aurtengo urterako apustua egin zuten: "Lagun koadrila bat goaz, eta, egia esan, neu behintzat honezkero nekatzen hasita nago. Ea eguna lehenbailehen iristen den, proba egiteko". Arrasatekoa Gabonak igaro eta berehala hasi zen biharko hitzordurako prestatzen, eta etxeko lanak oso ondo eginda hasiko du proba: "Kilometro-kontagailuak 5.000 kilometro erakusten ditu. Hasieratik argi neukan gurago nuela entrenatzen sufritu, eta gero proban zehar ahalik eta gehien gozatu. Baina ez dakit honezkero neure onena eman ez ote dudan... Orain dela hilabete eta erdi inguru Zarautz-Gernika-Zarautz zikloturisten proban izan nintzen, eta han indartsu ikusi nuen neure burua. Baina azken hilabete honetan ez ditut sentsazio horren onak izan".

Madariagak onartu du entrenatu behar izate hori nekagarria bilaka daitekeela: "Aurten, gainera, eguraldiak ez du batere lagundu, eta ona edo txarra egin, bizikletan ibili behar! Azkenerako horrek nekatu egiten du; izan ere, obligazio bilakatzen denean... obligazioak lanean".

Askasibar ere bat dator Madariagarekin: "Eguraldiak ez du batere lagundu, ez oso txarra egin duelako, aldakorra baizik. Edozer gauza egiteko ere, beldurrez". Eta, Elgetakoari ere zera galdetu diogu, zergatik Quebranta? "Proba mitiko bilakatu delako, eta Elgetatik koadrila polita joaten garelako; urtean zehar helburuak jartzen dizkiot neure buruari; gorputza, berez, nagia delako. Eta proba hori oso ondo antolatzen dute".

**HASIBERRIA ETA BETERANOA**

Madariaga hasiberria bada, Askasibar beteranoen taldean sar dezakegu, biharkoa laugarren edizioa duelako, eta gainera, Elgetakoa joan den urtean ibarreko azkarrena izan zelako (6:01:54): "Ez pentsa besteak baino gehiago ibiltzen naizenik, lagunekin irteten naiz beti. Aurten 5.000 kilometro egin ditut, baina ondo ezagutzen dut ibilbidea, topera irteten naiz, eta gainera, sufritzeko ahalmen handia dut. Nik uste dut hori dela daukadan onena, sufritzen dakidala". Noski, gaztetan amateur mailan ibili izanak ere mesede egingo dio, *Quebranta* denbora horretan egiteko berezko gaitasuna behar delako.

**GOMENDIOREN BAT EDO BESTE...**

Gauzak horrela, zera eskatu diogu beteranoari, hasiberriarendako gomendio batzuk emateko: "Lehenengo gauza, lasai ibiltzeko, lehenengo urtea duelako. Normalean, dortsal bat jartzen digutenean emozionatu egiten gara, eta gero etortzen dira ordainak. 200 kilometro ibilbide luzea da, eta zazpi edo zortzi ordu bizikleta gainean egitea gogorra egiten da. Portalet igo arte joan dadila lasai, txarto joanez gero 25 kilometro dituen mendiko portu hori oso luzea egiten delako. Jan dezala dezente, eta baita ura maiz edan ere. Taldetxoan joaten bada, hobe, baina ez bere erritmoa baino azkarrago doan taldean, alderantziz baizik. Amaitzeko, lehenengo urtea denez esango nioke ez ibiltzeko erlojuari begira. Lehenengo eza-

ESANAK

**"Biharko eguna iritsi eta proba egiteko gogoz nago, horrenbeste entrenatu ostean, honezkero luze egiten ari zait-eta"**

**Ibai Madariaga** > Arrasate

**"Lehenengo aldiz egin behar duenari esango nioke lasai ibiltzeko, dortsala jartzerakoan denok emozionatzen gara-eta"**

**Oskar Askasibar** > Elgeta

## Hiru mendate handi, baina Hoz mendatea ahaztu barik

*Quebranta*-n esku hartuko dutenek 200 kilometro pasatxo egingo dituzte. Ibilbide horren barruan puntako hiru mendate igoko dituzte. Somport (1.632 metro) izango da lehenengo mendatea: 16 kilometro, 680 metroko desnibela igotzeko. Lasterkariek Marie Blanque-rekin (1.035 metro) egingo dute gero topo; 10 kilometroko mendatea da, ez da luzeena, baina kontuz, Portalet (1.794 metro) etorriko daeta ondoren. Mendate luzea da hori, ia 30 kilometro 1.250 metro igotzeko. Amaitzeko, gorde indarrak Hoz mendaterako. 5 kilometro dira, eta batez beste




Berrehun kilometro dituen ibilbidearen profila, mendiko hiru portu nagusirekin.

OXEL ARRIETA




en dira ikusle gehien. MONIKA BELASTEGI

ESANAK

**"Lehenengo helburua proba amaitzea da, eta gero, sufritzen ibiltzea baino gozatzea da gura dudana"**

**Ibai Madariaga** > Arrasate

**"Beti ahalegintzen gara aurreko marka hobetzen, baina proban zehar daukadana ematen badut, gustura"**

**Oskar Askasibar**> Elgeta

gut dezala ibilbidea; izan ere, marka egiteko izango ditu edizio gehiago".

**BIZIKLETAN JARRAITU ALA EZ**

Aurtengo hitzordua bete eta gero, ibarreko bi ordezkari horiek asmo ezberdinak dituzte: "Bizikletan ibiltzen jarraituko dut, baina gozatzen!", dio Madariagak, barrez. Gainera, beste kirol batzuk egiteko gogoz nago; iaz ere uda partean mendiko bizikletarekin ibiltzen hasi nintzen, eta errepidean egindako lan guztia igarri egiten da gero, eskertzen da".

Askasibarrek urteroko ohitura jarraituko du: "Elgetako jaiak iritsi arte bizikletan ibiliko naiz, baina uztailetik datorren urtarrilera arte bizikleta ukitu ere ez dut egingo. Gogotsu hasten dut denboraldia, baina uztaila iristerakoan ere ez dut penarik izaten bizikleta zintzilikatzeko".

Amaitzeko, biharko asmoen gainean galdetu diogu Elgetakoari: "Topera irtengo naiz, eta ea zer gertatzen den. Beti egiten dugu aurreko marka hobetzeko ahalegina, baina gauza batengatik edo beste batengatik, beti ez da posible izaten: egun txar bat, lo ondo ez egitea, arazo mekanikoren bat... Dena dela, daukadana ematen badut ni gustura geratzen naiz. Bihar proba sei ordu eta erdian egiten badut, baina dena emanda, ni gustura".

**TREPARRISCOS PROBA**

Quebrantahuesos ez da, baina, Edelweiss klubak biharko gertu daukan proba zikloturista bakarra, hitzordu horrekin batera egiten dute-eta Treparriscos izeneko proba (90 kilometro). Hor ere debagoiendar askok hartuko dute esku, ibilbidea erragoa bada ere, martxan zehar paraje ederrekin goza daitekelako, eta antolatzaileen partetik erraztasun guztiak egoten direlako.

## Debagoiendarrak Quebrantahuesos proban

### ANTZUOLA

| | |
|---|---|
| ARANA ARTEAGA, BENJAMIN | 5734 |
| ARREGI MENDIZABAL, JOSE LUIS | 7857 |
| BALEZTENA ZUBIKARAI, KARLOS | 4836 |
| GURRUTXAGA ZUBIMENDI, IÑAKI | 188 |
| MENDIA BILBAO, IBAI | 6544 |

### ARAMAIO

| | |
|---|---|
| AZKARATE BEITIA, CESAR | 1574 |

### ARETXABALETA

| | |
|---|---|
| ALTUNA ARKAUZ, JON | 665 |
| BITERI ZUBIA, IBON | 7940 |
| BOTE MATEOS, MIKEL | 2228 |
| ELKOROBARRUTIA ARRIOLA, ASIER | 783 |
| ELKOROBARRUTIA ARRIOLA, LUIS MARI | 1442 |
| ETXABE OTADUI, GORKA | 1545 |
| ETXEBARRIA ARANA, OIHANE | 3353 |
| GARAI ANDUAGA, ENEKO | 3612 |
| GARATE MAGUNAZELAIA, ISIDRO | 2644 |
| GUENETXEA SASIAIN, ASIER | 902 |
| IGARTUA EZKIBEL, MIREN | 6870 |
| IRUSTA AIERTZA, ALFREDO | 4364 |
| KORTABARRIA HERIZ, HARITZ | 3754 |
| PRAT BENGOA, MIKEL | 5278 |
| ROSADO CARRASCO, JESUS MARI | 6699 |
| URKIA ZULAIKA, JON | 410 |

### ARRASATE

| | |
|---|---|
| AGIRRE MADARIAGA, ANARTZ | 3815 |
| ARANTZABAL OJANGUREN, BERNARDO | 7988 |
| AZKARATE MORRAS, IÑIGO | 1459 |
| BERASALUZE V. DE MENDIZABAL, URTZI | 3220 |
| CASTILLO SANTAMARINA, JAVIER | 2421 |
| DORRONSORO CALLEJA, JON | 2316 |
| ERAUSKIN BARANDIARAN, IÑIGO | 1617 |
| GAINTZARAIN HERIZ, HARKAITZ | 6276 |
| GALLASTEGI GOIKOLEA, GERMAN | 5223 |
| GONZALEZ PILDAIN, ROMAN | 5639 |
| GONZALEZ ROMERO, MIKEL | 3303 |
| HIERRO GARCIA, JUANJO | 1363 |
| IRIZAR SABORIDO, JUAN ANTONIO | 2280 |
| JAUREGI BIDABURU, IÑAKI | 2717 |
| JUAN LLODIO, JOSU | 5599 |
| KORTABARRIA MAYOR, JOSE MARI | 3332 |
| LANDA AZURMENDI, JOSE MIGUEL | 2082 |
| LASA ERLE, MIKEL | 780 |
| LASKURAIN BIDABURU, AITOR | 2362 |
| MADARIAGA EGAÑA, IBAI | 7941 |
| MADINABEITIA MARKULETA, JAKES | 7850 |
| MORENO VARGA, CARLOS | 4703 |
| SANTOR MARTINEZ, JOSEBA | 6207 |
| SOLIS EZKURRA, IMANOL | 2925 |
| VALOR CABALLERO, NICANOR | 1662 |

### BERGARA

| | |
|---|---|
| AGIRREZABAL SAN MIGUEL, IGOR | 1189 |
| AIASTUI AGIRRE, JUAN LUIS | 7856 |
| ALBERDI ARIZTEGI, RUPERTO | 2471 |
| ALBERDI UNTZURRUNTZAGA, BIGEN | 4954 |
| ARAMENDI IGARTUA, IÑAKI | 4367 |
| ARANA OREGI, JOXU | 5193 |
| ARANBURU MURGIZU, JOSE IGNACIO | 5828 |
| ARANGUREN IRAZOLA, GOTZON | 7605 |
| ARENAZA GABILONDO, CARMEN | 7375 |
| ARREGI BERAZA, GARIKOITZ | 734 |
| ARRIETA ETXEBERRIA, GORKA | 879 |
| ARRIETA REVUELTA, ROBERTO | 5702 |
| BEITIA AZKARATE, IBAN | 3004 |
| EGAÑA BARRENA, MARKEL | 7686 |
| EGUREN GABIRIA, BEÑAT | 3242 |
| EGUREN LASKURAIN, XABIER | 4196 |
| ELKORO ARANA, MIKEL | 6253 |
| ETXEBERRIA RODRIGUEZ, JAVIER | 3104 |
| ETXEBERRIARTEUN CASTELO, AMAIA | 4047 |
| GALLASTEGI LUARIZARISTI, JON ANDER | 5612 |
| GOITIA ZELAIA, JOSU | 1984 |
| GONZALEZ LAZKANO, IBAN | 4234 |
| KORTABARRIA AZKARATE, ENEKO | 3315 |
| LARRAÑAGA GABILONDO, XABIER | 3889 |
| LARRAÑAGA KORTABARRIA J.R. | 7461 |
| LARRAÑAGA LARRAÑAGA, GORKA | 5871 |
| LARRAÑAGA OREGI, ALATZ | 5196 |
| LARRAÑAGA SANTAMARIA, JUAN | 5329 |
| LAZKANO BIKENDI, ENEKO | 3563 |
| LAZKANO BIKENDI, XABIER | 3492 |
| MANZANEDO, JAIO | 7956 |
| MURGIZU ARRIARAN, AITOR | 3497 |
| MURGIZU ARRIARAN, JESUS | 7496 |
| MUXIKA AGIRRE, IBON | 647 |
| MUXIKA ODRIOZOLA, JOSE IGNACIO | 6895 |
| OLAÑETA ELEXPURU, IÑIGO | 6503 |
| SANZ SEGOVIA, JESUS | 3214 |
| TXURRUKA LARRAÑAGA, EDUARDO | 2233 |
| UNAMUNO LEKUONA, JON | 3183 |
| URIBESALGO BIKUÑA, XABIER | 3117 |
| ZANGITU GIL, XABIER | 1240 |

### ELGETA

| | |
|---|---|
| ALKORTA IRAZABAL, UNAI | 2116 |
| ARANGUREN AROZENA, XABIER | 6828 |
| ARANTZETA AGIRRE, EÑAUT | 1525 |
| ARRAZOLA ARABAOLAZA, GARIKOITZ | 3965 |
| ASKASIBAR ZUBIZARRETA, OSKAR | 40 |
| ELORRIAGA ROYUELA, ALAIN | 1856 |
| ETXANIZ IRAZABAL, IBAI | 1648 |
| LARRAÑAGA IRIBEKANPOS, F. JAVIER | 2948 |
| MUXIKA SARASKETA, JONE | 1029 |
| SARASUA MENDIZABAL, ETOR | 2291 |
| VILLA ARANTZETA, OIER | 6433 |

### ESKORIATZA

| | |
|---|---|
| SALGADO MATA, JON | 6212 |
| ERRASTI IRIARTE, JOSEBA | 7480 |
| GABILONDO URTAZA, XABIER | 589 |
| GALLASTEGI GOIKOLEA, EMETE | 362 |
| IÑURRATEGI PAGALDAI, BIXENTE | 4157 |
| KORTAZAR ALTUNA, GOTZON | 6929 |
| MARKAIDE ARMENDARIZ, J. ANTONIO | 348 |
| MARKAIDE ARMENDARIZ, JUAN LUIS | 6124 |
| OYON BARANDALLA, JESUS | 6083 |
| URIBE BERISTAIN, GOIO | 1665 |

### OÑATI

| | |
|---|---|
| AGIRIANO BENGOA, JESUS MARI | 1095 |
| ALDEKOA BEITIA, JABIER | 1155 |
| ALTOLAGIRRE AUZMENDI, IMANOL | 4341 |
| ALTUNA MADINA, GURUTZE | 6630 |
| ANDUAGA ALBERDI, ROBERTO | 1722 |
| AREJOLALEIBA UGARTE, PABLO | 3367 |
| ARREGI BIZIOLA, MANU | 1447 |
| ARREGI URTZELAI, AITZOL | 630 |
| ARREGI URTZELAI, GAIZKA | 1262 |
| AXPE ARENAZA, BITTOR | 4748 |
| AXPE ARENAZA, XABIER | 7554 |
| AXPE EZPELETA, PATXI | 7937 |
| BENGOA UNZURRUNZAGA, FELIX | 1982 |
| BIAIN REGUEIRO, GORKA | 2244 |
| CAMPO IBARRONDO, IBAN | 3985 |
| CHOHAN MADINABEITIA, ADRIAN | 6599 |
| EGAÑA GOÑI, JOSU | |
| EGAÑA HERRAN, ASIER | 5118 |
| ELORTONDO BERGARETXE J. BEÑAT | 7093 |
| ELORTZA ZUBIA, JON | 5807 |
| ELORTZA ZUBIA, UNAI | 1521 |
| EROSTARBE ARKAUTZ, JOSE ANTONIO | 1481 |
| GARTZIA ANDUEZA, JUAN CARLOS | 3168 |
| GARTZIA MORENO, JUAN CARLOS | 7644 |
| GURIDI URTZELAI, XABIER | 660 |
| IGARTUA URTZELAI, IÑAKI | 304 |
| ITURBE MURGIONDO, AGOTZ | 3422 |
| JAUSORO MURGIONDO, IBON | 3839 |
| JAUSORO MURGIONDO, IKER | 3948 |
| KORTABARRIA PAREDES, IGOR | 95 |
| LARREA IGARTUA, IÑIGO | 1479 |
| LASKURAIN MARKULETA, ARKAITZ | 732 |
| LERTXUNDI UGARTEMENDIA, JOSE M. | 1422 |
| LETAMENDI MARTIN, JOSEBA | 2659 |
| LUIS URTZELAI, XABIER | 5551 |
| MOLINA DIZ, JUAN CECILIO | 1707 |
| MOLINERO MENDIGUREN, JOSEBA | 409 |
| NEGREIRA COBAS, JOSE ANTONIO | 3704 |
| OLALDE ZUBIA, MIKEL 3148 | 3413 |
| PEREZ DIEZ, CAYETANO | 1150 |
| PEREZ SERRANO, FCO. JAVIER | 4449 |
| SIERRA GARCIA, JOSE ANTONIO | 1388 |
| TXINTXURRETA GALDOS, JUAN CARLOS | 1846 |
| TXINTXURRETA IGARTUA, ROBERTO | 7766 |
| URTEAGA BIKUÑA, IÑAKI | 6201 |
| URTZELAI AGIRREBALZATEGI, ASIER | 6219 |
| ZUBIZARRETA URBIZU, JAVIER | 7752 |
| ZUGASTI ARREGI, JOSE MARIA | 358 |
| ZUMALDE AIASTUI, XABIER | 2263 |
| ZURUTUZA GALLASTEGI, GERARDO | 2721 |
| ZURUTUZA PERIANES, JOSU | 1654 |

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



**> ARTEA**
Aretxabaletako ikasle batzuen lanak, Guggenheim museoan **> 44**



**> SAN JUANAK**
Arrasateko jaietan zer egin aukeratzeko egitaraua **> 45**

**> JOKIN VITORIA**
Arrasateko hainbat rock taldeko partaide izan da, eta Aretxabaletako Akordeoi Orkestrako kide ere bada; horrez gain, bitxigintza ikasten dabil **> 50**



# Udako Biblioporren gida, ibarreko liburutegietan

Adin talde bakoitzarentzat 12 lan gomendatzen ditu

Irakurketa bultzatzea helburu duen egitasmo horrek 14 urte betetzen ditu aurten



AZALA: ALEX AZKARATE

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Debagoiendar batek baino gehiagok antolatuta izango ditu dagoeneko udako oporrak. Oporrek, eguneroko errutina apurtzen duten heinean, normalean egiten ez diren gauzak egiteko aukera ematen dute. Eta irakurketa gaur egungo gizarte honetan ez da eguneroko bizitzan ohikoa den zerbait. Beraz, opor garaia irakurketarako garai aproposa da; bai, behintzat, urte guztia baino aproposagoa. Horretaz aspaldi jabetu ziren gure bailarako udal liburutegiak. Hori horrela ez balitz, ez zuten orain 14 urte Biblioporrak deritzon egitasmoa sortuko. Debagoieneko udal liburutegi gehienek hartzen dute parte: Aramaio, Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko bibliotekek, hain zuzen. Egitasmo horren helburu nagusia irakur zaletasuna bultzatzea da.

**LANEN AUKERAKETA PROZESUA**

Biblioporretako gidan gomendatzen diren liburuen kalitatea bermatuta dago neurri handi baten; izan ere, lanak aukeratzeko, ibarreko bibliotekariek urtero argitaratzen diren lan guztietatik aukeraketa egiten dute. Liburutegi bakoitza atal batez arduratzen da; hau da, adin talde bati zuzendutako lanak aukeratzen ditu bakoitzak. Eta horretaz aparte, literaturan adituak diren pertsonen iritziak kontuan hartzen dituzte.

Gainera, obra guztiak biltzen dituen liburuxka argitaratzeko, diseinuaren erakargarritasuna garrantzitsua da, egitasmo horren sustatzaileen iritziz. Urtero saiatzen dira diseinu berria ateratzen, eta udako liburuxkaren azalak beti dauka sasoi horrekin lotura. Aurten Bergarako Islada Multimedia enpresa arduratu da azala diseinatzeaz, eta itsasoa izan dute inspirazio-iturri.

**ESKAINTZA ZABALA**

Biblioporretako gidak begiratuz gero, eskaintzen diren lanetan aukera zabala eta askotarikoa urtero errepikatzen den zerbait da. Adin talde bakoitzarentzat (haurrak, gazteak eta helduak) 12 lan gomendatzen dira; udak irauten duen hiru hilabeteetarako, nahikoa baino gehiago.

**BANAKETA ESKOLETAN**

Gidan agertzen diren liburuak udal liburutegietan eskuragarri izateaz gain, bibliotekariek Lehen Hezkuntzan ari diren haurrei, 6 eta 12 urte bitartekoei, hain zuzen, liburuak banatuko dizkiete eskoletan. Hala, haur bakoitzak bere liburua eramango du etxera udako oporrak hartu baino lehen. Bestalde, gazteentzako eta helduentzako liburuak lehen aipatu herrietako udal liburutegietan izango dira eskuragarri.

**EZ LIBURUAK BAKARRIK**

Biblioporren aurreko edizioetan bezala, aurten ere, literaturaz gain, musika eta zinema ere eskainiko da. Urteko disko eta pelikula gomendagarrien artean, aniztasuna da nagusi. Denetariko musika estiloak eta zinema generoetako izenburuak aurkitu ditugu; publiko guztien gustuak asetzeko moduko eskaintza, beraz.

## Gure gomendioa

**> UMEENTZAT**

*Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan* –Sam McBratney

Bizitzari aurre egiteko amodioaren indarrak duen pisua kontatzen duen eleberria.

*Bularretik mintzora* – Galtzagorri Elkartearen ekimena

Poema eta kantuz osatutako liburua da, haur txikienen irakur zaletasuna bultzatzeko lana.

**> GAZTEENTZAT**

*7 Cuentos Crudos* – Ricardo Gomez

Zazpi istorio hunkigarri biltzen dituen nobela.

**> HELDUENTZAT**

*Antzararen bidea* – Jokin Muñoz

Euskal Herriaren iragan hurbila zein egungo errealitatea hizpide duen obra mardula Jokin Muñozen eskutik.

**HEZKUNTZA** > 'ARTEA IKASBIDE' EGITASMOA

# Kurtzebarri eskolako umeen lanak ikusgai izango dira Guggenheimen

Kurtzebarri eskola da Gipuzkoan proiektu horretarako aukeratu duten eskola bakarra

'Artea ikasbide' ekimenaren barruan, urte osoan egin dute lan gaztetxoek



Kurtzebarri eskolako umeak, Arantza Eriz eta Manu Muniategiandikoetxea pintore bergarararrekin. KURTZEBARRI IKASTOLA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Kurtzebarri eskola, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleen bitartez, Guggenheim museoan dago pasa den astelehena ezkero. Nazioarteko museo garrantzitsuenetariko horretako erakusketa baten parte hartu ahal izatea *Artea ikasbide* deritzon ekimenaren esker lortu du, eta ikasleek Manu Muniategiandikoetxea artista bergarararrekin egin dute lan.

**AURKEZPEN EKITALDIA**

Astelehenean izan ziren umeak Bilbon. Egitasmoa aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten, eta bertan, ekimena diruz laguntzen duen enpresako arduradunetako bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkari bat, museoko ordezkariak eta arte aditu eta artistak izan ziren.

Ikasleak gustura izan ziren, Arantza Eriz Kurtzebarri eskolako irakasleak aditzera eman duenez: "Gure sortze-lanak aurkeztu genituen, eta gero, gainera, mokadu bat egiteko aukera izan genuen". Erizek gaineratu nahi izan du ikasleen gurasoek erakusketa ikusteko gonbidapena izango dutela.

**'ARTEA IKASBIDE' EGITASMOA**

11. edizioa bete du aurten *Artea ikasbide* ekimenak, eta, izenak dioen moduan, artea hezkuntza tresna gisa interpretatzean datza. Ekimen horren antolatzaileek ikasleak modu askotan ikas dezakeela diote, eta arteak eskaintzen dituen hamaika espezializazioak ezin egokiagoak direla horretarako. Ikasleak, egitasmo horren bultzatzaileen ustez, artea ezagutuz, arteak errealitatea ikusteko, aztertzeko eta ulertzeko dituen berezko tresnak ere bereganatuko lituzke.

Bestalde, lan metodologiari dagokionez, ikasturte osoko lanaren emaitza dira Aretxabaletako ume horiek Bilboko Guggenheim museoan erakusgai jarri dituzten artelanak. Urte osoan zehar Manu Muniategiandikoetxea margolari eta eskultorea –Guggenheim museoak aukeratutako artista– izan da Kurtzebarri eskolan. Muniategiandikoetxea astelehenero izan da umeekin, 20 astez, eta ordu eta erdiz, kurtso hasieran museoak zehaztutako ikasgaia irakasten. Hori, noski, Arantza Eriz eskolako irakaslearen laguntzaz egin du.



Umeek *Pupy* ere ezagutu zuten.

**AUKERAKETA**

Batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari nola lortu duen Aretxabaletako Kurtzebarri eskolak Guggenheim museoko erakusketa batean parte hartzen duen Gipuzkoako eskola bakarra izatea. Honela argitu du Arantza Eriz Kurtzebarriko irakasleak: "Ekimen horretan parte hartzen duten eskola gehienak hiriburuetakoak direnez, hezkuntza ikuskatzaile batek animatu gintuen saiakera egitera". Hala ere, lehenengoan ez zen posible izan: "Iaz egin genuen programan parte hartzeko lehen saiakera, baina ez gintuzten aukeratu". Aurten, ordea, zortea alde izan dute.

**KOMUNIKAZIORAKO GUNEA**

Kurtzebarriko ikasleak erakusketan Komunikaziorako Gunean izango dira. Euskara eta literatura ardatz hartuta, ingurumenaren ezagueran zentratu dira. Lantegi horren bidez, ikasleek euren sentimenduak eta besteenak ezagutzen ikasi dute, eta sentimenduok –tristura, beldurra, poztasuna, harridura– uztartuz, askotariko ariketak egin dituzte. Gehiago nahi duenarentzat, abuztuaren 24ra arte zabalik izango da erakusketa.

**MUSIKA** > DEBAGOIENEKO ABESBATZAK

# Ibarreko abesbatzak jo eta ke ari dira ikasturte itxiera honetan

Abesbatzek garai honetan egiten dituzte kontzertu gehien; bihar, Oñatiko Ganbara abesbatzaren ikasturte itxiera kontzertua izango da, Santa Anan

**J.B.** > BERGARA

Abesbatzek urte osoko lana proban jartzen duten garaia da. Musika eskolak, Arrasateko Goikobalu, Bergarako Orfeoia eta Oñatiko Ganbara abesbatzak, besteak beste, buru-belarri ari dira kontzertuak prestatzen.

Hala, gaur, egubakoitza, Bergarako Orfeoi Txiki, Txikitxoak eta Gabero abesbatzek kontzertua eskainiko dute Mariaren Lagundia elizan. Haurrek kurtsoari amaiera emateko emanaldia izango da, eta beraz, iraila arte, ikasturte berria hasiko den arte, agur esango dute. Azken hiruhilabetean zehar egindako lanak aurkeztuko dituzte Aitor Biain oñatiarrak zuzentzen dituen gaztetxoek.

Bergarako Orfeoiarekin jarraituz, domeka honetan, hilak 22, abesbatza horretako helduek ere kontzertua emango dute. Emanaldi hori ere Mariaren Lagundia elizan izango da, 19:30ean. Aitor Biain zuzendariak aurreratu duenez, Rutter, Sarasola, Lauridsen eta Shearing konposatzaile famatuen piezak interpretatuko dituzte. Kontzertu hori ere ikasturteari amaiera emateko izango da. Emanaldi horiek guztiak doakoak izango dira.

**GANBARA ABESBATZA**

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzak ere asteburu honen ostean itxiko du aurtengo ikasturtea. Kantu tailerra I, kantu tailerra II, Ganbara Txikitxoak eta Ganbari Txikik hartuko dute parte itxiera emanaldian, eta beraz, kontzertu osatua eta luzea espero da. Abesbatza talde bakoitzak bere saioa eskainiko du, baina, hori bai, emanaldiaren amaieran guztiek batera abestuko dute. Bihar izango da, Oñatiko Santa Ana antzokian, 19:00etan.

Kontzertuan hainbat sorpresa espero direla aurreratu dute eta zuzendari lanetan Aitor Biain eta Alaitz Urkia ibiliko dira. Eta pianoa, berriz, Araceli Guridik joko du.

Hori guztia gutxi balitz, haur eta guraso guztiek luncha izango dute kontzertua amaitu ondoren. Sarrerei dagokienez, bestalde, sarrerak bost euro balio du nagusiendako eta hiru euro umeendako. Abesbatzaz gozatzeko aukera dago asteburuan, beraz.

# San Juanak Arrasaten

## Egubakoitza, 20

**> 19:00** Arrasate Musikalen ikasturte amaierako kontzertua, Amaia Antzokian.

**> 22:30** Capoeira erakustaldia, Monterronen.

## Zapatua, 21

**> Goiz osoan** Pintura lehiaketa.

**> 10:00** Boulder txapelketa.

**> 11:00** Ardo eta gazta dastatzea.

**> 12:00** Txosnen irekiera.

**> Ondoren,** Doke txapelketa.

**> 13:30** Dragoialde txarangarekin poteoa, txosnetan hasita.

**> 15:00** Bokata jana, txosnetan.

**> 16:30** Olinpiadak, txosnetan.

**> 17:00** Xakea, Biteri plazan.

**> 18:00** Pintura lehiaketaren sari banaketa, Harresi aretoan.

**> 19:00** Istonioren *En la pista* ikuskizuna, Herriko plazan.

**> 19:00** Karaokea, txosnetan.

**> 22:30** Bertso saioa, Monterronen. Jon Maia, Manex Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Kolina. Gai jartzailea: Josu Goikoetxea.

**> 00:00** Kontzertua: Radio Dead Ones eta Golpe de Estado, txosnetan.

## Domeka, 22

**> 17:00** Profesionalen arteko pilota partiduak, Uarkapen. Titin III - Barriola / Gonzalez - Laskurain

**> 18:00** Film laburrak eta txokolate jana, gaztetxean.

**> 18:00** Arku tiro lehiaketa, Zaldibar pilotalekuan.

**> 19:00** Txanogorritxu rock, Herriko plazan.

## Astelehena, 23

**> 12:00** Kantu poteoa.

**> 14:30** Koadrilen bazkaria, gaztetxean.

**> 16:00** Txistularien diana.

**> 16:00** Etxafleroak eta bonba japoniarrak, Herriko plazan.

**> 16:30** Patxin eta Potxin pailazoak, Herriko plazan.

**> 17:00** Makala plazara eramateko Maalan elkartzea.

**> 18:00** Makala jasotzea, plazan.

**> 19:30** Salvea, parrokian .

**> 19:30** Batucando No Ar taldearekin kalejira.

**> 21:30** Errementari dantza.

**> 22:30** San Juan sua, plazan.

**> 23:00** Nagusien danborrada, herriko kaleetan barrena.

**> Ondoren,** Dantzaldia Gaubela taldearekin, Herriko plazan.

## Martitzena, 24

**> 08:30** Diana, gaiteroekin.

**> 09:00** Entzierroa. Ferrerias, Erdiko kalea eta Iturbide eta Laubideko zezen plaza.

**> Gero,** bigantxak, zezen plazan.

**> 11:00** Meza, parrokian.

**> 11:00** Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.

**> 11:30** Arrasate Musikaleko Musika Bandaren kalejira.

**> 12:00** Ohorezko aurreskua eta San Juan zortzikoa, plazan.

**> 12:30** Omenaldia 80 urtetik gorako nagusiei, Abaroan.

**> 13:00** Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua, Monterronen.

**> 17:00** Grafiti erakustaldia, malabareekin girotua, Biterin.

**> 19:00** Show bike trial, Zaldibarko frontoian.

**> 19:00** Kontzertuak: Ampolla en la Polla, Chaos Kids eta The Convits, txosna gunean.

**> 19:30** Zezen jaialdia errekortadoreekin eta beste ikuskizun batzuekin, zezen plazan.

**> 20:00** *Viva Jalisco* kalejira. Jalisco-ko ballet folklorikoa.

**> 21:00** Dragoi jana, Herriko plazan.

**> 22:00** Muskaria eta Hesian taldeen kontzertua, gaztetxean.

**> 23:00** Su artifizialak, Santa Barbaratik.

**> 23:30** Laiotz taldearekin erromeria, Herriko plazan.

**> 23:30** *Monkeys* ikuskizuna Tapeplas taldearen eskutik, Monterron parkean.

### Antzerkia

EGUAZTENA 25, 19:00
**> Pirritx eta Porrotx**
Haurrentzako ikuskizuna eskainiko dute Pirritx eta Porrotx pailazoek eguaztenean Monterron parkean. *Eskerrik asko!* ikuskizunean, minbiziaren gaia ardatz hartuta, hainbat kantu eta istorio eskainiko dituzte. Gaixotasuna, taburik gabe, naturaltasunez, itxaropenez eta alaitasunez azaltzen dute Mari Mototsen ospitaleko egonaldian oinarrituta. Esketxak eta dantza tartekatuko dituzte bizitzeko ilusioa duen pirata txikia protagonista izango duen haurrendako emanaldian.



## Eguaztena, 25

**> 08:30** Diana gaiteroekin.

**> 09:00** Entzierroa. Ondoren, zaleentzat bigantxak.

**> 09:30** Haurrak eta gaztetxoak iratzartzeko diana.

**> 10:30** Eguzki Laruri ongi etorria, Biteri plazan.

**> Jarraian,** Jolas parkea, Zaldibar frontoan.

**> 12:00** Bertso poteoa.

**> 12:30** *Viva Jalisco* kalejira. Jalisco-ko ballet folklorikoa.

**> 13:30** Apar jolasa, Biterin.

**> 14:30** Herri bazkaria, txosna gunean.

**> 16:30 - 18:30** Eguzki Laruren jolas parkea, Zaldibarren.

**> 17:30** Ginkana, txosnetatik.

**> 17:30** Errekortadore eskola gaztetxoentzat, zezen plazan.

**> 18:30** Haurren kalejira, Zaldibartik Monterronera.

**> 19:00** Pirritx eta Porrotx pailazoen *Eskerrik asko!* ikuskizuna Monterronen.

**> Gero,** Eguzki Laruri agurra.

**> 19:00** Arrasateko gaiteroak eta Arrasate Musikaleko taldea.

**> 20:00** Larrain dantza, Herriko plazan.

**> 20:00** *El Concursazo* antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik, Seber Altuben.

### Musika



ZAPATUA 21, 00:00
**> Radio Dead Ones, txosnetan**
Berlingo punk-rock taldeak Oñatiko Golpe de Estado izango du aldamenean. Gitarra biziekin eta melodiak asko zainduta kontzertua eskainiko dute txosnetan. Alemanian ez ezik, Europan barrena ere ezagun egin da taldea.

**> 22:00** Kontzertua, txosnetan: Mother Fuckers eta Governors.

**> 22:30** Plazan dantzaldia: Nuevo Talisman Orkestra.

## Eguena, 26

**> 08:30** Diana gaiteroekin.

**> 09:00** Entzierroa. Ondoren, zaleentzat bigantxak eta Los Incansables txaranga.

**> 11:00** Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejira.

**> 12:00** Trikitilarien kalejira.

**> 12:00** *Segway* ibilgailua erabiltzeko aukera, Biterin.

**> 12:00 - 14.30** Hegaluzea eta atungorria dastatzea, Goikobalu abesbatzaren laguntzaz, Herriko plazan.

**> 18:00** Zahir Circo, Seber Altuben.

**> 19:00** Ain-1 taldea txosnetan.

**> 19:30** Soka dantza, plazan.

**> 20:00** Herriko plazan dantzaldia Erdizka lauetan taldearekin.

**> 22:00** Emon taldearen kontzertua, txosnetan.

**> 22:00** Urrezko dragoiaren eta argazki lehiaketako sari banaketa, txosnetan.

**> 00:30** DJ Mutxin eta DJ Indautx LS, Txosna gunean.

## Egubakoitza, 27

**> 22:30** Arrasate Musikaleko Big Bandaren kontzertua, Monterron parkean.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-erdian. Oso eguzkitsua. 12 m²ko terrazarekin. Erdi jantzia eta prezio onean. 671 66 01 69.

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. 945 44 51 01.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Bergara.** 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailu eta igogailuarekin. 652 76 86 68

**Eskoriatza.** Duplex berria salgai erdialdean. Garaje irekia eta trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 655 70 46 90

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** Apartamentu berria salgai herri erdi-erdian. Garaje eta guzti. Ordainketarako erraztasunak. 665 71 42 69

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Deitu zenbaki honetara:. 945 44 50 27.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan San Andresen. 629 42 26 54.

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza errentan. Unibertsitate ondoan. 652 73 14 78.

**Granadako Alpujarran** natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak hemen: www.blogak.com/losmonteros. Harremanetarako: jasonemendizabal@euskalnet.net edo 943 79 42 33.

**Oñati.** Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, bakarrik ikasturtean. 660 40 06 75

**Oñati.** Bi logelako apartamentua ematen da errentan. Deitu 21:30ak eta 23:00ak artean. 699 78 47 49

**Torrevieja.** Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hur. Bi logela, terraza, solariuma, garaje itxia eta elkarteko igerilekua. Deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefono zenbakietara.

**Villanua** Villanuan, Jaca ondoan, apartamendua alokatzen dut uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztuan. Igerilekua eta padel pistarekin. Garajea dauka eta bi logelatako apartamendua da. Deitu 943 78 03 08 edo 656 74 80 47 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Abuztutik, eta urtebeterako, Arrasaten errentan hartzeko etxe bila gabiltzan bi pertsona gara. Montse. 636 44 24 40.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan herri erdialdean. Igogailuarekin eta altzaririk gabe. 679 31 62 68.

**Debagoiena.** Autobideko lanetan dabilen langile taldeak etxebizitza hartuko luke errentan (5-6 lagun). 687 26 11 44.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 616 05 97 92 zenbakira.

**Bartzelona.** Datorren ikasturterako neskak behar dira etxea osatzeko Bartzelonan. 615 00 49 70.

**Debagoiena.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. Deitu 662 08 22 03 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Belorrieta auzoan garajea dago salgai. Deitu 617 30 50 69 zenbakira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdialdean. 100 euro hilean. 607 99 10 06.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. Deitu 669 63 93 29 zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aramaio.** Emakume euskalduna behar da ordu batzuetan umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

**Bergara.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urte askorako lana da. 688 68 18 76.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko: garbitasun lanak egin eta paseatzera ateratzeko. Edo arratsaldeetan umeak zaintzeko. 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu arratsaldez etxeko garbiketa lanak egin edo haurrak zaintzeko. 675 71 37 72.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo tabernetan orduka lan egiteko. 659 34 68 05.

**Bergara.** Emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak orduka zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 664 74 82 07.

**Debagoiena eta Donostialdea.** Eskarmentu handiko neska nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. Debagoienean eta baita Donostia inguruan ere. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua etxe edo tabernako garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo gauez. 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbitasun lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izanda edo orduka. 664 74 82 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizez eta arratsaldez umeak zaintzeko. 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. 676 87 64 08.

**Debagoiena.** Gizonezkoa gertu garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. Jose. 680 75 14 88.

**Debagoiena.** Ikasketak dituen emakume esperientziaduna pertsona nagusi edo gaixoak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko gertu. 943 76 53 43 edo 629 75 00 30.

**Emakume** euskalduna astean hiru egunez lan egiteko gertu (bi edo hiru orduz). Abuztua barne. Rosi. 943 77 16 01.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Eraikuntzako goi mailako ikasketak burutu berri ditut eta Arkitektura egiteko beharrezko oinarri matematiko, fisiko eta mekanikoak behar ditut. Batxilergoko errepasoa arkitekturari begira. 652 70 35 29.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Uztailean eskola bereziak. Maila guztiak. 630 71 35 83.

**Ingelesa.** Uztailean, Bergaran ingeleseko eskola partikularrak emateko prest. Maila guztiak. 618 91 32 89.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, udan eta kurtso osoan. 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** Autokarabana. Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiarirentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. 605 70 45 50.

**DEBAGOIENA**

**Autokarabana berria errentan ematen da 943 71 25 30**

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 20 euro. Deitu 678 72 75 72 telefono zenbakira.

**Brako aleman** arrazako txakurkumeak salgai. LOE zenbakidunak. Deitu 685 69 84 99 zenbakira.

**Ehiza txakurrak** salgai. Pointer arrazako lau txakurkume. Arrak. 5 hilabetekoak. Ehizarako aproposak. 125 euro. Deitu 615 73 58 38 telefonora.

**Setter** arrazako txakurkumea salgai. Jaio berria. Ekain erdialdean emateko. 635 20 18 56.

### 703. EMAN

**Katakumeak** oparitzen ditut. Gris naparrak (marratuak). Amaia. Deitu 943 76 21 71 telefono zenbakira.

**Katakumeak** oparitzen ditut. 943 78 05 13.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara: 943 76 11 21.

**Autorako bozgorailuak** salgai. 50 euro. 617 13 17 51.

Basalurra salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Baxu anplifikadorea** salgai. HH burua 100 watt, Bassamp VS modeloa. Egoera onean. 180 euro. 607 21 19 69.

**Bikientzako motxila** salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete bete dituzten artean ibiltzekoa. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. 619 92 91 18.

**Brain Trainning** berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

**Bruce Springsteen**ek uztailaren 15ean Donostian emango duen kontzerturako bi sarrera dauzkat salgai. 609 32 63 19.

**Eskusoinu** handia salgai. Tekladuna. Oso egoera onean. Kutxa barne. Prezio onean. Aukera ona euskal kulturara hurbiltzeko. 658 10 59 35.

**Garajeko atea** salgai. Erabili gabe. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 metro. Gaineko finkoa: 0,50 metro. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Habia-ohea**, zur-latazko somierra eta bi koltxoi salgai. 150 euro 656 41 00 08.

**Izozkailua** salgai. Bosch markakoa. 60 euro. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

**Karro-denda** salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.100 euro. 615 72 47 43.

**Kutxa gotorr**a salgai. 0,70X0,70X1,15 neurrikoa. Egoera onean. 750 euro. 656 73 44 72.

**Mahai obalatu**a salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. Asier. 617 17 15 88

**Orbea** Arin bizikleta salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldekoaren erreplika. Dura-Ace taldearekin. 54 neurrikoa. 1.700 euro. 656 76 89 44

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13

**Samsung telebista** salgai. 29 hazbetekoa. Bost hilabete ditu. Oso egoera onean. 618 17 30 87

**Sarrerak**. The Police taldeak uztailaren 4an Bilbon emango duen kontzerturako bi sarrera ditut salgai. 660 04 77 70

**Snowboad botak** (Burton Hail, 10 zenbakia, egoera onean) eta fijazioak (Technine, gama altua, erabili barik) salgai. Dena batera 150 euro eta banatuta, 80 euro bakoitzak. 680 44 91 51

**Solariuma** salgai. Lanpara berriekin. Prezioa adosteko. 678 61 50 40

**Taladroa salgai**, mahaikoa. Egoera onean dago. 400 euro, negoziagarri. 679 10 95 23

**The Police**. Bi sarrera Bilbao BBK Live jaialdiko uztailaren 4ko ekitaldirako: The Police, The Charlatans, Morcheeba, The Wombats, Fancy eta The Gift. Sarrera bakoitza 72 euro. 652 70 77 86.

**Trikitia** salgai. Zero Sette Antico modeloa. Sol-do tonua. Prezio interesgarria. 608 12 38 15.

**Umearentzako karroa** salgai, Trio Chicco markakoa. Kotxe kapota, aulkitxoa eta kotxearendako aulkia, 40 eurogatik hirurak. 639 02 02 75 edo 943 76 55 88.

### 806. GALDU

**Bergara.** Umearen jaka bakeroa galdu dut Poligonoan. 669 63 93 29.

**Betaurrekoak**. Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrasaten maiatzaren 18 inguruan. Funda berde baten barruan zeuden. 943 79 62 28.

**Ordularia**. Mutiko batek urdin koloreko ordularia galdu zuen Arrasaten maiatzaren 26an. Herriko Plaza eta Gazteluondo ikastetxearen artean. Deitu 649 35 35 33 zenbakira.

**Patinetea** galdu nuen Aretxabaletako Arlutz osteko kantxan, ekainaren 7an. Beltza da. 'Unai F.' izena dauka jarrita. 666 13 30 57.

**Umearen motorra** utzi nuen, ahaztuta, Aretxabaletako Gernika plazan. 'Naroa' izena dauka atzean jarrita. 943 53 30 39.

### 807. AURKITU

**Betaurrekoak** aurkitu nituen Aiba mendi martxan, Zabalaundi inguruan. Tolestu egiten dira. Arrasateko BAZ bulegoan daude. 943 25 20 00.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Gasteizera** egunero joaten den norbaiten bila nabil autoa konpartitzeko. 637 91 33 81.

## ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.com

**KOROSTI**
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

**DEBA GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Rekalde, 100 m², oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

## LAN ESKAINTZA

**Auzo Lagun**

**Taldeentzako sukaldaritzan, garbitasunean eta osasun zerbitzuetan liderra den enpresak ondorengo lanpostua eskaintzen du:**

**GARBITASUN ZENTROEN KUDEATZAILEA**
**(Erref. garbitasuneko kudeatzailea)**

**Lanaldia: osoa**
**Ordutegia: goizez edo arratsaldez. Malgutasuna.**
**Euskara eta ofimatika jakin behar dira.**

**Interesatuek bidali CV erreferentzia adieraziz 140 posta kutxara, 20500 Arrasate edo selec@auzolagun.com e-postara.**

## LAN POLTSAK

1. **Saneamendu eta obretako teknikaria**
2. **Arkitekto teknikoa**
3. **Elektrikaria**

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**



**Vanessa Torres** eta **Mikel Aiala** arrasatearrak Zigarrolako San Isidro elizan ezkonduko dira ekainaren 21ean 12:30ean. Oñatiko Zelai Zabal jatetxean egingo dute bazkaria eta bidaian Punta Canara joango dira. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak!



Aretxabaletako **Aitor Garcia-Etxabe** eta Eskoriatzako **Inma Murillo** ekainaren 21ean, zapatuan, ezkonduko dira Arkarazoko baselizan. Zorionak, bikote, egun ona pasa! Inmaren koadrilakoen partetik, muxu bana.



**Iban Okariz** eta **Oihana Garcia** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrasateko Kulturaten. Ospakizuna Baster-Alde jatetxean egingo dute eta Vietnamera eta Kanputxeara joango dira bidaian. Zorionak eta ondo ibili! Lagunen partetik.



**Felisa Igartua** oñatiarrak eta **Juanito Isazelaia** arrasatearrak urrezko ezteiak ospatu dituzte. Arantzazun meza izan zuten eta aurreskua dantzatu zieten. Urtiagainen egin zuten bazkaria bertso saio eta guzti. Familiakoen partetik, zorionak eta muxu bana!



**Miren Lizarralde** eta **Unai Agirrebaltzategi** oñatiarrak zapatuan, ekainaren 21ean, Bidaurretan ezkonduko dira. Bazkaria Kiruri jatetxean egingo dute. Ondo-ondo pasa eta zoriontsuak izan, bikote! Zuen koadrilakoen eta familiakoen partetik, muxu bana.

## hildakoak

- **Maria Teresa Berezibar Etxaluze.** Arrasaten, ekainaren 12an.
- **Claudio Ros Ros.** Arrasaten, ekainaren 12an. 81 urte.
- **Jaime Laheras Amezkoa.** Bergaran, ekainaren 12an. 43 urte.
- **M. Bernardina Lete Jausoro.** Arrasaten, ekainaren 13an. 79 urte.
- **Rosario Urkia Elortza.** Oñatin, ekainaren 13an. 89 urte.
- **Jose Antonio Arenaza Lasagabaster.** Aretxabaletan, hilaren 14an. 86 urte.
- **Maria Askasibar Arana.** Arrasaten, ekainaren 14an. 79 urte.
- **Javier Urkiola Lonbide.** Arrasaten, ekainaren 15ean. 74 urte.
- **Beatriz Biziola Velasco.** Bergaran, ekainaren 15ean. 73 urte.
- **Francisco Etxarri Suberbiola.** Bergaran, ekainaren 15ean. 77 urte.
- **Miren Itziar Ortiz de Zarate Gallastegi.** Bergaran, hilaren 16an. 75 urte.

ESKER ONA

## Beatriz Biciola Velasco

**Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 15ean, 73 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 20an.

ESKER ONA

## Miren Itziar Ortiz de Zarate Gallastegi

**Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 16an, 75 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 20an.

ESKER ONA

## Pako Etxarri Suberbiola

**Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 15ean, 77 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 20an.

ESKER ONA

## Maria Bernardina Lete Jausoro

**Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 13an, 79 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko ekainaren 20an.

ESKER ONA

## Juliana Madariaga Larrañaga

Saturnino Agirrebeñaren alarguna

**Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 11n, 98 urte zituela.**



Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko ekainaren 20an.

3. URTEURRENA

## Iker Uribetxeberria Azurmendi



***Gure artean denbora gutxi egon arren,
jakin duzu gure maitasuna irabazten,
betirako gure gogoan, betirako Apo.***

Zure lagunak.
Arrasaten, 2008ko ekainaren 20an.

3. URTEURRENA

## Iker Uribetxeberria Azurmendi



Hirugarren urteurreneko meza
astelehenean, ekainaren 23an,
19:00etan
Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22 **Elgeta** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



## bila-bila 7





## hitz gezidunak




GOIENKARIA

## soluzioak



**Jeroglifikoa:** Dorreak







## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 7 | | 4 | 5 | 8 | 3 | 9 | |
| 9 | | 5 | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 3 | | | | 2 | | 4 | 6 | |
| | 8 | | | | | | 7 | |
| | 1 | 6 | | 9 | | | | 3 |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | 2 | | 5 |
| | 5 | 4 | 3 | 1 | 7 | | 8 | |

## hieroglifoa

Zeinek kendi dio erreginak?



## hizki salda

Eusko Jaurlaritzako lehendakarien 5 bigarren abizen

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | A | N | C | H | E | Z | M | A |
| E | A | U | E | N | B | E | I | U |
| Z | L | T | E | I | A | S | X | O |
| E | A | G | T | X | U | N | L | L |
| O | T | A | Z | L | O | N | M | E |
| Z | U | R | R | I | Z | A | B | K |
| M | A | R | K | U | A | R | T | U |
| K | L | O | E | I | A | R | O | B |
| N | E | T | N | L | I | Z | U | E |

## bono fotoa



**Nork pintatu zuen 1962an bergarako udaletxeko mural ikusgarria: Simon Arrietak, Fernando Azkargortak ala Migel Okinak?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ....................................................

....................................................

IZEN-DEITURAK....................................................
TELEFONOA....................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

BMn beti
eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **JOKIN ELKORO**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Eskoriatza.**


max+
kontua
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
% U.T.B.
5
ERABILGARRITASUNAREKIN
KOMISIORIK GABE
max
"Uda honetan, tipoari dagokionez, nirea"
Abuztuaren 31 arte
Gehienezko zenbatekoa 10.000 €
• Interes-tasa %5 U.T.B. (%4,889 nominala).
• Ekainaren 1etik abuztuaren 31 arteko irekieretarako.
• Diru-sarrerak eta itzulketak egiteko gutxieneko zenbatekoa: 2.000 €.
• Ohiko ordainsaria: %3,25 U.T.B. (%3,203 nominala).
• Helbideratzeak ez ditu onartzen.
www.cajalaboral.com

**Jokin Vitoria** > Musikaria eta bitxigile ikaslea

# "Abestu eta bateria jotzearen artean ezin dut aukeratu; biak hartzen ditut"

Kontzertu batera joatea besterik ez da behar musikak Jokin Vitoriaren bizitzan pisu handia duela frogatzeko. Arrasaten rock and rolla sutsuki bizi duelako da ezaguna, baina txikitatik ari da Aretxabaletako Akordeoi Orkestran eta han, beste hainbat estilo ezagutu ditu. Bidaia asko ere egin ditu orkestrarekin. Gainera, bitxigintza ikasten ari da.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Taula gainean moduan, egunerokotasunean ere ezin da geldirik egon Jokin Vitoria (Arrasate, 1986). Musikak, Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren bitartez, besteak beste, Finlandian, Italian, Danimarkan, Alemanian eta Mexikon izateko aukera izan du. Aurten, Argentinara doaz.**

**Shaggy Daddy & The Troublemakers eta The 5 Twisters. Baina baita Toxic Avengers eta The Sonics taldeari omenaldiak. Eta ziur proiekturen bat aipatu gabe geratu dela... Zer da, bada, musika zuretzat?**

Bizitza. Bizitzeko modu bat da, pisu handia du nire egunerokotasunean. Pasioa sentitzen dut musika entzutean, eta edozein unetan ondo sartzen den zerbait da. Hala ere, musikarik gabeko uneak ere beharrezkoak ditut.

**Zein da zu musikan egotearen *errudun* nagusia?**

Musika beti egon da nire bizitzan, txikitatik. 7 urterekin, Arrasate Musikalen sartu nintzen, eta akordatzen naiz hainbeste instrumentu batera ikusteak atentzioa eman zidala. Orduan, osabak perkusioa aukeratzea aholkatu zidan, eta halaxe egin nuen.

Bestalde, hainbat senitartekok musika instrumenturen bat jotzen dute. Horrek ere bultzatu ninduen musika egitera. Nire ingurunean ere musikak pisu handia izan du betidanik.

**Gerora, rock-and-rollak harrapatu zintuen. Zein oroitzapen dituzu hasierako garaiez?**

Oso onak. Talde bateko parte izate hutsak hunkitu egiten ninduen. Lehen, kontzertuetan, emozioa zen nagusi; orain ere bai, baina orduan berezia zen. Musikaren kalitateak baino gehiago, unean ondo pasatzeak arduratzen ninduen. Egun, gehiago zentratzen naiz soinuaren kalitatean.

**Kontzertuak, taberna zuloan ala oholtza erraldoian nahiago?**

Bietan oso gustura ibiltzen naiz, oso ezberdinak diren arren: tabernan, giro beroa eta leku txikia, eta agertoki handian, aldiz, hoztasuna eta nahi dudan leku guztia. Agertoki handiak proban jartzen nau, eta hori ondo dago.

**Bateria ala mikrofonoa, zein aukeratuko zenuke?**

Ezin dut bietako bat aukeratu, biekin geratzen naiz. Denbora luzez bateria jo gabe banago, asko igartzen dut faltan. Alderantziz ere berdin gertatzen zait. Gainera, kontzertu batean, abesten banabil, bateriaren erritmoari kasu handia egiten diot eta, bestalde, bateria jotzen ari banaiz, ahotsaren melodiari asko errepáratzen diot. Baxua ere probatu dut, etxean ibiltzen naiz noiz edo noiz, anaiaren baxuarekin.

**Arrasateko taldeen egoera ezin hobeto ezagutzen duzu zuk, herriko 25 talderen *Mondra Underground Sounds* bilduma ateratzen buru-belarri ibili zara-eta lanean. Zergatik Arrasaten hainbeste musika talde?**

Batek hasitako bidea besteok jarraitzen dugulako. Musika belaunaldiz belaunaldi transmititu da Arrasaten; nik hala ikusten dut. Hemen betidanik izan da musika egiteko tradizioa.

**Zer esango zenieke musika talde bat sortu berri dutenei?**

Aurrera egin dezatela. Hasieran ez da erraza izaten, baina, merezi duelako, aurrera!

**Baina musika ez da zure zaletasun bakarra. Badakit bitxigintza ere oso gustuko duzula. Noiztik ari zara bitxigintza ikasten?**

Orain dela hiruzpalau urte hasi nintzen, ikasketak amaitu nituenean, aitaren bitxi dendan. Aitak galdetu zidan ea bitxigintzaren artea ikasi nahi nuen, eta baiezkoa eman nion. Lanean eta ikasten nabil aldi berean.

**Nola daramazu gurasoekin lana egitea?**

Ondo daramagu. Lanean ere gurasoekin nabilen arren, ondo konpontzen gara. Bakoitzak bere ardurak ditu, eta ondo funtzionatzen dugu talde moduan.

**Aretxabaletako Akordeoi Orkestrako kide ere bazara. Noiztik?**

12 urte nituenetik nabil orkestran, perkusioa jotzen. Asko bidaiatu dut orkestrari esker, eta asko zor diot. Besteak beste, Finlandia, Danimarka, Italia, Alemania eta Mexikon egon gara. Hurrengo bidaia Argentinara egingo dugu, urri amaieran.

**Etorkizunean, nola ikusten duzu zure burua?**

Arrasaten edo handik gertu ikusten dut nire burua. Bestalde, lanean egotea gustatuko litzaidake, espero dut lanik ez faltatzea. Eta, noski, osasuntsu egotea...










JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. **Zaletasunak:** Musika, bitxigintza eta bidaiatzea. **Gorrotatzen duzun zeozer:** Faltsukeria. **Film bat:** *Ray* (Ray Charles-en biografia). **Musika talde bat:** The Sonics. **Kontzertu bat:** Pasa den zapatuan Elkartasun Egunean egindakoa. **Bitxirik gustukoena:** Urre zurizko eta zilarrezko eraztuna. **Arrasateko leku bat:** Monterron. **Bidaiatzeko leku bat:** Mexiko. **Zure ametsa:** Gustuko dudana egiten, eta gustuko jendearekin bizitzea.



Aurrerantzean euskaraz irakurri ahalko da *Consumer Eroski* aldizkaria. IMANOL SORIANO

**EUSKARA** > ARGITALPENAK

# 'Consumer' aldizkaria euskaraz kaleratu dute ekainean, lehen aldiz

Aurrerantzean Eroski Fundazioak eduki berberak argitaratuko diru euskaraz eta espainolez; 'Consumer' aldizkariak, hilero, 15.000 ale argitaratzen ditu

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Eroski Fundazioak, lehen aldiz, euskaraz kaleratu du *Consumer Eroski*, orain arte espainolez argitaratu duen aldizkaria. Hain zuzen, ekaineko aldizkaria argitaratu dute euskaraz, 122. zenbakia. Orain arte Interneten bazegoen paperean espainolez jorratzen zituzten gaiak euskaraz kontsultatzeko aukera; aurrerantzean, hilabetekaria euskaraz kaleratuko dute. Hala, datozen hilabeteetan, eduki berberak jorratuko dituzte euskarazko eta gaztelaniazko aldizkarietan. *Consumer Eroski* aldizkaria Bizkaia, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoako supermerkatu eta hipermerkatu guztietan doan eskuratu ahal da. Guztira, hilero 15.000 ale izango ditu, eta euskarazko prentsaren alorrean, hedapen handienetakoa duen aldizkaria izango da.

Eroskiko zuzendari Agustin Markaidek euskarazko aldizkariaren helburuak azaldu ditu: "Euskararen normalizazioari ekarpena egin nahi diogu, kontuan izanik kontsumo gaietan erreferentzia garela, besteak beste osasunean, hezkuntzan eta teknologia berrietan". Aldizkaria egiteko "hizkuntza ulerterraza eta xamurra" erabili dute.

**HIRIETAKO ALDE ZAHARRAK**

Euskarazko lehen zenbakian *Consumer*-ek landutako gai nagusia hirietako alde zaharrei buruzkoa da. Aldizkariak Euskal Herriko eta Espainiako 18 hiritako 144 txoko aztertu ditu. Hain zuzen, alde zaharrek bizitzeko zer-nolako baldintzak eskaintzen dituzten aztertu dute. Ikerketaren ondorio nagusietako baten arabera, hirietako alde zaharretan ugariak dira ostalaritzako lokalak, baina haurrendako gune eta zerbitzu gutxi daude. Iruñeak hamarretik zortzi puntu lortu zituen; hain justu ere, hiri guztien artean emaitza onenetarikoa lortu zuen. Bestalde, telefono bidezko lanari buruzko txostena argitaratu dute, abantailak eta desabantailak azpimarratuz. Elkarrizketa Ana Mari Vigara gazte hizkeraren ikertzaileari egin diote.

## teknologia berriak

> URRUTIKO KONTROLA

### Telebista marka gehienekin erabil daitekeen urrutiko kontrol unibertsala kaleratu du Sonyk

Urrutiko kontrolei kolorea emango dien aparailua kaleratu du Sony etxeak. Hain zuzen ere, RM-PLZ7510D modeloa. Fina da eta gainera telebista eta musika aparailuak egiten dituzten etxe gehienekin erabil daiteke; besteak beste, Sony, Panasonic, Toshiba, Mitsubishi, Victor, Sanyo, Aiwa, Sharpa, NEC, Fukitsu, Pioner eta Phillips.

Gainera, urrutiko kontrol bakar batek, telebista aparailu ezberdinetako kateak memorizatzen ditu.


Sony etxeko urrutiko kontrola hiru koloretan merkaturatuko dute; hain zuzen, zilar, gorri eta urdin koloretan.

> MUGIKORRAK

### Nokiak bulego mugikorra dutenendako aproposak diren telefonoak jarri ditu merkatuan

E71 eta E66 dira Nokia etxeak kaleratu dituen mugikorrik berrienak. Hain justu ere, oso aproposak dira bulego mugikorra duten pertsonendako. Gainera, Microsoft Exchange euskarria eta POP eta IMAP kontuak erabiltzen dituzte. 3.2 megapixeleko argazki kamerak dituzte biek ala biek.

E71 mugikorrak 10 milimetroko lodiera du, 2,36 hazbeteko pantaila eta lau ordu eta erdiz berba egiteko aukera ematen duen bateria. Aldiz, E66ak 13,6 mm-ko lodiera du, eta pantaila 2,4 hazbetekoa da.


E71ak QWERTY teklatua du, eta E66ak zenbakizko teklatua; bi mugikorren salneurria 350 euro da.

> BIDEOKAMERAK

### Oporretarako egokiak diren 2,8 hazbeteko pantailak dituzten bi bideo kamera erosgai

JVC etxeak irudiak grabatzeko bi bideokamera jarri ditu merkatuan: JVC Everio GZ-HD30 eta JVC Everio GZ-HD40 hain justu ere. Biek ala biek 1,8 hazbeteko disko gogorra dute eta 2,8 hazbeteko pantaila. GZ-HD30ak 80 GB-ko edukiera du, eta GZ-HD40ak 120 GB-koa. Gainera, FullHD bereizmeneko grabazioak egin daitezke, 2,68 megapixeleko sentsoreari esker. JVC etxeak salgai jarriko dituen bi bideokamerek ordenagailura konektatzeko USB kablea izango dute.



Momentuz, bi bideokamerak Japonian jarriko dituzten salgai, baina laster egongo dira erosgai gurean.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net

Goiena.net



## berriak

> 'WAZEMANK'

### 'Wazemank' saioa GOITBn, datorren astetik aurrera

Martitzenean hasiko dira Goiena Telebistan ETBko *Wazemank* saio arrakastatsua eskaintzen. Hain zuzen, hamabostean behin eskainiko dute; esandako moduan, martitzenetan, 21:15ean. *Wazemank* saioak ETBn arrakasta handia lortu zuen. Bertako kideek *Noaoa!* egiten dute gaur egun. Anjel Alkain aktore ezaguna da saioko protagonistetako bat eta euskal umore bizia da ardatza.

> 'ERREPORTAJEA'

### ARTEren gaineko erreportaje saioa datorren astelehenean

Joan den astelehenean eskaintzekoak baziren ere, azkenean *Harmailatik* saioa ordu erdikoa izan beharrean ordu betera luzatu zutelako, ezin izan zuen Goiena Telebistak Arrasateko Tailagileen Elkartearen gaineko erreportajea eskaini. Hori horrela, datorren astelehenean eskainiko dute. Hain zuzen, ARTE elkartearen 25. urteurrena aitzakia hartuta osatu dute *Erreportajea*.

> ARRASATE IRRATIA

### Irratsaio bereziak izango dira San Juan jaiei begira

Gaurtik, egubakoitza, datorren eguenera arte Arrasate jaietan murgiltzeaz batera, gauza bera egingo dute irratiko lankideek. 10:30ean hasita, pare bat orduan jardungo dute egunero-egunero irratsaio bereziarekin, jai-giroa, jaietako protagonistak eta gertaerak irratiko entzulei helarazteko ahaleginean. Beraz, zuek ere bat egin gura baduzue, 107.7an aurkituko dituzu irratiko lagunak.

> ARRASATE IRRATIA

### Dragoi Janerako txartelak entzuleen artean zozketatzeko

San Juanetako astea izanda, irratiko opari batzuk ere jaiekin izango dute zerikusia. Hala, Dragoi Janerako txartelak zozkatuko dituzte entzuleen artean. Afaria martitzenean da, beraz, martitzenean bertan egingo dute zozketa. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo Internet bitartez mezua bidal daiteke honako bi helbideetako batera: *irratia@goiena.com* edo *goiena.net* atarian dagoen irratiko blogean sar daitezke zozketarako eskaerak.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Edurne Ormazabal izango da 'Ilunpean'-eko gonbidatua

Psikologoa formazioz, 'Eitb.com'-eko zuzendaritzako kide da egun Edurne Ormazabal tolosarra



Edurne Ormazabal Zinemaldia aurkeztu izan du azken urteotan. EITB

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Tolosarra sortzez, Donostian bizi da aspaldditik Edurne Ormazabal. Formazioz psikologoa bada ere, ez du inoiz horretan jardun. Hain zuzen ere, kazetaritza izan da beti haren ogibidea eta hainbat komunikabidetan aritu da: horien artean, Herri Irratian, *Deia* egunkarian eta baita Antena 3 eta Canal+ telebista kateetan ere. Oso gaztetan, ETBko *Katu kale* saioa aurkeztu zuen; rockaren gaineko saioa, hain justu. Euskadi Gazteko koordinatzaile izan da irratia sortu zenetik gaur arte, eta egun *Eitb.com*-eko zuzendaritzako kidea da.

**'SAN JUANAK'** > EGUAZTENA, 21:47

# Arrasateko San Juan jaiak eskainiko ditu Goiena Telebistak eguaztenean

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Gaur hasiko dira Arrasateko San Juan jaiak eta datorren eguaztenera arte iraungo dute. Goiena Telebistak datorren asteko eguaztenean eskainiko du San Juan jaien gaineko saio berezia; hain zuzen ere, jaietako une onenak eta politenak ikusteko aukera izango duzue. GOITBko kamerak eta mikrofonoak kalean izango dira jaiek irauten duten artean eta kaleko giroa, jendearen zoriontasuna eta jaien egitarauaren barruan dauden hainbat ekintza jasoko dituzte. Horien artean, errementaridantza, San Juan sua, Dragoi Jana eta Eguzkilaruri ongietorria, besteak beste, telebistaz ikusteko aukera izango duzue.

Horretarako, kazetariak, kamerak eta kolaboratzaileak kalean izango dira jaiek irauten duten bitartean. Egun horietan jasotako irudi guztiekin egindako saioa eguaztenean eskainiko dute *Jaiak* saioan, 21:47an.

Ez galdu, beraz, Arrasateko jaietako saioak eskainiko dituenak datorren eguaztenean.

## telebegi

**Oihane Agirre**

### Bata garaile

Domekan, Bengoetxea VI.ak ez zuen bakarrik Barrioala gainditu, baita Anoetan ezinean aritu ziren Realeko jokalariak ere. Pilota 189.000 ikusentzulek jarraitu zuten ETB1en eta ETB2k eskaini zuen Bigarren Mailako Reala-Kordoba futbol partidua, berriz, 125.000 lagunek. Baina zer gertatuko litzateke, alderantziz izango balitz? Hau da, ETB1k eskaini izan balu futbola? Uste dut audientziak ere aldatu egingo liratekeela. Realzaleek bazuten Anoetan gertatzen ari zenaren berri, eta zaila da bi orduko sufrimendua zuzenean jasatea.

Autoan, etxerako bidean nindoan eta irratia izan zen nire aukera arratsalde horretan. Baina zein zaila den Nafarroan EITBko irratiren bat ondo sintonizatzea! Aldamenekoak ere nahiago izan zuen 20:00ak arte irratirik ez piztea. Etxera heldutakoan piztu genuen irratia, Realak bigarren mailan jarraituko zuela baieztatzeko.

*Noaoa!* ikusi ostean, ETB1ek pilota partidua berriro eskaini zuen. Bigarren pase honetan ez dakit Bengoetxea VI.ak Dennis Quaid *El Novato*-n ere gainditu ote zuen.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ilunpean saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia eta gazte kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:30-12:30** Igo Autobusera
Arrasate Irratiko diana
Jaien kronika
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Albistegia
Jaietako protagonistekin elkarrizketak
Jaietako egitaraua
Zuzeneko konexioak
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza,20**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15** Euskaldunok hizketan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Animalia. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 21**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**28klip. **12:30** Berbaire **13:00** Eltze beroa **13:30** Ur eta lur. **14:00**Ikusmira. **14:30**Erreportajea. **15:00** Kantari. **16:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Arrasateko pilota partidak. **21:00**Euskaldunak hizketan. **21:30**Animalia. **22:00**Erreportajea. **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 22**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak. . **11:00**Kantari. **12:00**Eltze beroa.**13:00**Arrasateko pilota partidak. **15:30**Kantari. **16:00**Marrazki bizidunak.**19:00**28 Klip. **19:30**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea ttipì ttapa. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:15** Gertutik. **22:45**Erreportajea. **23:15** Teknopolis.**23:45**Ilunpean. **00:15** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera.

**Astelehena, 23**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Wazemak.**16:15**Ikusten. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Hitz bitan. 1**8:15**Teknopolis. **18:45**Berriak. **19:15** Animalia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunako. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 24**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Muka muka.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**Animalia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Wazemak. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Euskaldunok hizketan. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 25**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Euskaldunok hizketan. **16:15** Wazemak. **16:45** Berriak. **17:15** Marrazkiak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Animalia. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. **20:45** Berriak. **21:15** HItz bitan. **21:45**Gaurkoak. **21:47 Jaiak:**San Juank. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **23:45**Gaurkoak.**23.47**Jazzmina.**00:15**Emisio amaiera.

**Eguena, 26**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Jaiak:San juanak. **14:45**Berriak. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Ur eta lur. **16:17**Eltze beroa. **16:45** Berriak. **17:15** Muka muka. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. 1**8:15**Kirolari. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Hitz bitan. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Teknopolis. **00:15**Emisio amaiera.

# ARRASATE

**SUKIAK eta GEDIK sustatutako URIBARRIKO 40 etxebizitza izan dira energia-kalifikaziorik handiena lortu duten lehenak, KUTXAREN balorazioaren arabera BIKAINTZAT jo dituzte-eta.**




Etxebizitza horien jabeak izan dira KUTXAREN hipoteka berdearen hobaririk handiena lortu duten lehenak.

Kalifikazio hori honakoen konbinazioari esker lortu da:

1) **Diseinu arkitektonikoa:**

*Eraikinaren orientazio egokia eta etxebizitzen banaketen optimizazioa.
*Isolamendu handiagoa fatxadetan.
*Fatxadako zati itsuaren eta beiradunaren arteko proportzio orekatua.

2) **Errendimendu handiko instalazioak:**

* Berokuntza eta ur beroko sistema zentralizatuak.
* Ura berotzeko eguzki-energiaren laguntza.
* Etxebizitzaren kontrol domotikoa.

Horrek guztiak erosotasun haundiagoa eta dagokion energia kontsumoaren aurreztea dakar.

*" Bezeroak beti gogoan "*

SUKIA GEDI

UTE URIBARRI - UTE URIBARRI - UTE URIBARRI - UTE URIBARRI - UTE UR

# Ekainak 20-26

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Kontzertua



BERGARA

**> Ikasturte amaierako kontzertua egingo du Orfeoiak; sarrera doan da**

Bergarako Orfeoiak kontzertua egingo du etzi, Mariaren Lagundiaren elizan, 20:00etan. Rutter, Sarasola, Lauridsen, Shearing eta beste batzuen lanak eskainiko dituzte. Aitor Biainek zuzenduko ditu, eta Eli Mendiaratzek, pianoa jo.

## Antzerkia



OÑATI

**> Klown emanaldia egingo du Ukraniako talde batek etzi, gaztelekuan**

Kiev-eko Mimirichi klown taldeak *Paperezko gerra* muntaia egingo du, mezu bakezalea duen antzezlana. Kaleko bufoi eslaviarren tradizioa Europako antzerki mimikoarekin (Chaplin, Marceau) bateratzen dute. 18:00etan da saioa.

## Ospakizuna



ARRASATE

**> Capoeira erakustaldia eta Ardo eta Gazta Eguna, San Juanak hasi aurretik**

San Juanen aurretik, bi ospakizun izango dira: capoeira dantza erakustaldia, gaur, egubakoitza, Monterron parkean (22:30); eta Ardo eta Gazta Eguna bihar, Herriko plazan eta Seber Altuben (11:00 eta 18:00).

# Musika

BERGARA

**> Musika eskolako diplomadunek kontzertua egingo dute**

Bergarako musika eskolan diploma jasotzen dutenek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza. Hainbat musika tresna joko dituzte. Kontzertua eta gero, diplomak banatuko dituzte, eta luntxa egongo da gurasoendako.

Gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 19:00etan.

ARRASATE

**> Ikasturte amaierako kontzertua, Arrasate Musikalek**

Arrasate Musikaleko ikasleek ikasturtean barrena eureganatu dutena erakutsiko dute gaur.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

BERGARA

**> Gabero eta Orfeoi Txikiko abesbatzen emanaldia**

Gabero eta Orfeoi Txikiko abesbatzek kantu emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza.

Gaur, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

OÑATI

**> Ganbara Txiki, Txikitxo eta kantu tailerren kontzertua**

Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxo eta kantu tailerretako umeek ikasturte amaierako kontzertua egingo dute bihar, zapatua. Talde bakoitzak bere emanaldia egingo du, eta, bukaeran, denek batera abestuko dute. Alaitz Urkiak eta Aitor Biainek zuzenduko dituzte, eta Araceli Guridik pianoa joko du.

Sarrerak salgai daude kultura etxean: 18 urtetik gorakoendako, 5 eurotan, eta besteendako 3 eurotan.

Bihar, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE

**> Küm, Tigger Travis eta Seventhate taldeak, kontzertuan**

Küm rock esperimental taldeak diskoa aurkeztuko du 3.60 aretoan. Karlos Osinagarekin grabatu dute, Bonberenea aretoan, Ekerot trio, Xabi mockba, David zura, Genua, Ohia eta beste batzuen elkarlanarekin. Tigger Travis eta Seventhate taldeek ere joko dute gau horretan.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

ARRASATE

**> Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira 3.60 aretoan**

Bihar, zapatua, Alain (elektronische) disko-jartzaileak egingo du emanaldia, eta astelehenean, hilak 23, San Juanetako emanaldi berezi moduan, Elektit-ek.

Emanaldiok 04:00etan hasiko dira.

# Bertsolaritza

OÑATI

**> Umeei zuzendutako 'bertsotxongilo' emanaldia**

Bertso Eskolak antolatuta, 3 eta 8 urte arteko umeendako *Hitzen lapurra* delako *bertsotxongilo* emanaldia egongo da, 17:00etan. Sarrera 3 euro kostatuko da. Lau lagunek hitzen lapurrari aurre egingo diote, umeek lagunduta.

Etzi, domeka, Santa Anan, 17:00etan.

# Ospakizunak

BERGARA

**> Ikasturte amaiera ospatuko dute umeek Jardunekin**

Jardun euskara elkartearen ekintzetan parte hartzen duten ume eta gaztetxoek ikasturte bukaera ospatzeko aukera izango dute gaur, egubakoitza, jaialdi baten. Euskara errefortzuetara joaten diren umeak, trikiti eta pandero taldekoak eta beste batzuk egongo dira, eta emanaldiak egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 18:00etan.

BERGARA

**> Euskal Astearen bukaera San Martin ikastetxean**

San Martin Agirre ikastetxean, Euskal Astea ospatu dute oraingo aste osoan. Gaur, egubakoitza, bukatuko dira ospakizunak: musika eguna eta Azken Txanpa lehiaketa izango dituzte.

Gaur, egubakoitza.

OÑATI

**> Ikasturte bukaerako jaialdia Elkar Heziko haurtzaindegian**

Elkar Hezi ikastetxeko haurtzaindegiko loretegian, ikasturte amaiera ospatuko dute ikasle, guraso eta irakasleek. 17:30ean, Monda Lironda taldearen *Baietz lortu* delako emanaldia izango dute; 18:30ean, txitxi-burduntzia; eta, arratsalde osoan, musika, jolasak…

Gaur, egubakoitza, Elkar Heziko haurtzaindegiko loretegian, 17:30ean hasita.

ARETXABALETA

**> Kalejira-berbena eta beste ekintza batzuk, ludotekarekin**

Ludotekako azken jaia ospatuko dute gaur, egubakoitza: 7-12 urte artekoendako ginkana (16:00), Goloka taldearen antzezlana (18:00), eta kalejira-berbena Benta Zarreko Mutiko Alaiekin (19:30). Kalerik kale ibiliko dira San Juan bezperarako animuak berotzen.

Gaur, egubakoitza, Arlutz osteko plazan, 16:00etan hasita.

OÑATI

**> Zu Zeuk! jaialdia egingo dute gaur, 12-16 urte artekoendako**

Kalexka aisialdi taldeak antolatuta, Zu Zeuk! delako jaialdia egongo da gaur, 12 eta 16 urte arteko umeendako, bereziki, baina beste edozeinendako ere zabalik dago. Bizikleta eta skate pistak, rokodromoa, tirolina eta puzgarriak izango dituzte. Gero, 19:30ean, karaokea eta festa izango dituzte gaztelekuan.

Arratsaldeko ekintzak, Foruen plazan, 16:30etik 19:00etara; eguraldi txarra egiten badu, kiroldegian.

BERGARA

**> Gaztetxearen 8. urteurreneko ospakizun gehiago**

Gaztetxearen 8. urteurrena ospatzeko ekitaldiek jarraituko dute oraingo aste bukaeran. hain zuzen, gaur, egubakoitza, marrazki tailerra izango dute, eta bihar, zapatua, gaztetxeko antzerki taldeak *Enramonados: somos diferentes, somos iguales* antzezlana egingo du.

Antzezlana, bihar, zapatua, 22:30ean.

OÑATI

**> Garagaltza auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran**

Garagaltza auzoko jaiak izango dira aste bukaeran. Bihar, zapatua, auzoko bertsolarien ikuskizuna, auzo bazkaria eta mus txapelketa egongo dira; etzi, domeka, meza eta luntxa.

Ekintzak egongo dira bihar eta etzi.

ESKORIATZA

**> San Juan sua egingo dute astelehenean, plazan**

San Juan bezperan, astelehenean, hainbat ospakizun izango dituzte: herriko plazan batuko dira txorimaloaren bila joateko (18:00); umeendako su japoniarrak (19:30), gazta eta edatekoak (19:30), San Juan sua

PROPOSAMENA

ESKORIATZA

## > Jai Zapatista ospatuko dute bihar, zapatua

Biharko Jai Zapatistarekin bukatuko da Eskoriatzan mugimendu horri eskainitako astea. 12:00etako txupinazoa eta gero, poteoa egongo da; 14:30ean, herri bazkaria plazan; segidan, animazioa. 19:30ean, Guzti-guztiontzako lekua duen mundu baten aldeko kalejira egingo dute; eta 21:30ean, plazan, Egunsenti berrirantz musika jaialdia egongo da.

Gaur, Zapajokoak (18:00) eta *Elikagaien subiranotasuna* hitzaldia (19:30) egongo dira.



–aurten, 1991n jaiotakoek isiotuko dute– (22:30); gero, txistuak lagundutako erromeria eta su gainetik salto egiteko aukera; eta, bukatzeko, 1991n jaiotakoek tantaia jasoko dute (22:30).

Ospakizun guztiak herriko plazan egingo dituzte.

## Erakusketak

ARRASATE

**> Lesbianismoaren ibilbidearen gaineko erakusketa dago**

Udal Emakume Sailak antolatuta, Aldarte gay, lesbiana eta transexualendako arreta zentroak prestatutako erakusketa dago Arrasaten. *Bidean: ezkutukotik ikusgarritasunera, 1977-2007* du izena erakusketak, eta, 18 paneletan, 1977. urteaz geroztik lesbianen eta feministen mugimenduek egindako lana erakusten du, kartel, aldizkari eta dokumentuen bidez. Irudiok kronologikoki ordenatuta daude.

Bisita egunak: domeka arte, Kulturateko klaustroan, 17:30etik 20:30era.

OÑATI

**> Amazoniako herrien gaineko argazki erakusketa**

Jose Angel Areta Goñi, *Juxe*, argazkilari errenteriarrak egindako *Amazoniako oihanetik Pazifikoko kostaldera* izeneko erakusketa dago gaztelekuko kuboan.

Argazkilariak Amazonia eta Ekuador aldera egindako bidaian atera zituen argazkiotan, hango herrien bizimodua eta kultura islatzen dira.

Bisitatzeko azken eguna, etzi, domeka. Ordutegia: 18:30-20:00.

BERGARA

**> San Martzialgo erromeriaren gaineko argazkiak**

*San Martzialgo erromerixia* izeneko argazki erakusketa dago zabalik Aroztegi aretoan. Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

## Bestelakoak

BERGARA

**> Altxorraren Bila jokoa antolatu du Jardunek biharko**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Altxorraren Bila delako jokoan egiteko aukera izango dute 12 eta 15 urte arteko umeek. Jokoa 17:00etan hasiko da.

Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 17:00etan hasita.

OÑATI

**> Afari solidarioa eta berriketaldia egingo dituzte gaur**

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeak antolatuta, afari solidarioa egingo dute gaur. Aurrekoetan bezala, afaltzeko patata tortilla letxugarekin egongo da. Ondoren, berriketaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Bidaurretako fraideen etxean, 20:30ean.

# Zinema




## El incidente **

**Zuzendaria:** M. Night Shyamalan.
**Aktoreak:** Mark Wahlberg, Zooey Deschanel.
AEB-India, 2008.
91 min. 13 urtetik gorakoendako.

Badira bederatzi urte M. Night Shyamalan-ek *El sexto sentido* estreinatu zuela. Filmaren arrakasta izugarria izan zen. Zuzendariaren lehenengo lana ez bazen ere, berehala mundu osoan ezagun egin zen. Hurrengo urteetan beste film batzuk zuzendu ditu: *El elegido*, *Señales*, *El bosque* eta *La joven del agua*. Batzuek arrakasta izan dute, beste batzuek ez, eta halaxe gauzak baretzen joan dira, orain El incidente Shyamalanen azkeneko lanera heldu arte. Filmean, zuzendariak misterioa eta atmosfera bereziak sortzeko ahalmena mantentzen duela erakusten digu, baina kontatzen zaigun istorioa eta pertsonaien harremanak nahiko inozoak dira.

Shyamalan-ek berezko estiloa du. Indar handiko irudiak sortzen ditu, musikari eta soinuari etekin handia ateratzen die (haizearen soinua, iruditik kanpo entzuten diren tiroak eta telefonoaren bidez entzuten diren ahotsak eta zaratak) eta oso ondo erabiltzen du ikusten dugunaren eta iruditik kanpo gertatzen denaren arteko jokoa. Alde horretatik, lan erakargarri baten aurrean gaude. Baina gidoiari dagokionez, gauzak hoztu egiten dira. *El incidente*-k *Señales*-ekin lotura handia du: bietan, pertsonaiak kanpotik etorritako indar batzuek setiatuko dituzte, eta horiei aurre egin beharko diete. Normalean, kasu horietan ematen diren gertakizunen bitartez, istorioa eta pertsonaiak garatuz joaten dira, aldaketa dramatikoak pausoz pauso jorratuz joaten dira, baina hori ez da El incidente-rekin gertatzen. Eszena gehienek bakarka indarra izan arren, ez dira batzen osotasun bat sortzeko. Ematen du Shyamalan-ek buruan istorio bat zuela, baina gero horrekin ez duela jakin oso ondo zer egin; ez du hasierako ideia ondo garatu eta, eduki dramatikoari dagokionez, gelditasun edo errepikapen sentsazioa sortzen da.

**Antonio Zabala**

**BERGARA**
**GAZTETXEA**

**La memoria de los peces**
Eguaztena: 21:30.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**El funeral**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**El increíble Hulk**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
17:30, 20:00, 22:30.

**El incidente**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**El increíble Hulk**
17:30, 20:00, 22:30.

**Antes que el diablo sepa que has muerto**
17:30, 20:00, 22:30.

**La boda de mi novia**
18:45, 22:30.

**Sexo en Nueva York**
17:00, 19:45, 22:30.

**Algo pasa en Las Vegas**
17:30, 20:00.

**Pretextos**
17:30, 22:30.

**12**
19:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
18:00, 20:30.

**Caos calmo**
17:30, 20:00, 20:30.

**Ahatetxo itsusia eta ni**
17:30, 19:15.

**An American crime**
18:00, 20:15, 22:30.

**3:19**
17:30, 20:00, 22:30.

**La duquesa de Langeais**
22:15.

**El último viaje del juez Feng**
17:30, 20:00, 22:30.

**Aritmética emocional**
18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Eurokopa: Espainia-Italia**
Domeka: 20:45.

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
12:15, 15:45, 17:00, 18:15, 19:30, 20:45, 22:00, 23:15, 00:30.

**El incidente**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**La niebla**
17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**Speed racer**
12:15, 16:50.

**Sentencia de muerte**
19:50, 21:50, 23:50.

**Algo pasa en Las Vegas**
18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**La boda de mi novia**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Iron man**
12:15, 16:45, 19:15.

**El increíble Hulk**
12:15, 15:45, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Sexo en Nueva York**
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

**Fuera de carta**
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**21: blackjack**
21:55, 00:20.

**El patito feo y yo**
12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

**Dueños de la calle**
22:05, 00:15.

**Papá por sorpresa**
12:15, 15:35.

**Horton**
Egubakoitza eta zapatua: 12:15, 16:00.

**Las crónicas de Spiderwick**
12:15, 16:15.

**Mi monstruo y yo**
12:15, 15:40, 17:55.

**La noche es nuestra**
20:10, 22:25, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal**
16:00, 19:00, 22:00, 22:30, 00:45.

**Dueños de la calle**
22:10, 00:30.

**La niebla**
17:00, 19:30, 22:10, 01:00.

**Sexo en Nueva York**
16:15, 19:15, 22:15, 01:00.

**Sentencia de muerte**
20:25, 22:30.

**Algo pasa en Las Vegas**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

**La boda de mi novia**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**El increíble Hulk**
16:00, 17:00, 18:15, 19:30, 20:30, 22:00, 22:45, 00:30.

**Ella es el partido**
17:00, 19:30.

**El patito feo y yo**
16:05, 18:00, 20:00.

**La isla de las almas perdidas**
16:05, 18:10.

**El incidente**
16:15, 18:15, 20:15, 22:25, 00:30.

**No tan duro de pelar**
16:05, 18:15.

**Casual day**
20:20, 22:20.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.



**Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Steven Spielberg. Aktoreak: Harrison Ford, Shia LaBeouf, Cate Blanchett, Karen Allen.
124 min. Denondako.
1957an, Indiana Jonesek ihes egin die sobietarrei. Etxean bueltan, irakasle postutik bota nahi dutela jakingo du. Halako baten, gazte abenturazale batek hau proposatzen dio: arazo batetik irteten laguntzen badio, gazteak Akatorreko Kristalezko Burezurra aurkitzen lagunduko dio.

Indiana Jonesen laugarren abentura ikusteko aukera dago Oñatin.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El incidente** **
AEB-India, 2008. Zuzendaria: M. Night Shyamalan. Aktoreak: Mark Wahlberg, Zooey Deschanel.
91 min. 13 urtetik gorakoendako.
AEBetako hainbat lekutan, une berean, jendea bere burua hiltzen hasten da. Zer dabil hori eragiten? Elliot Moore irakaslearendako, ihes egitea da garrantzitsuena.

**Ella es el partido** **
AEB, 2008. Zuzendaria: George Clooney. Aktoreak: George Clooney, Renée Zellwegger.
114 min. Denondako.
1925. urtea da. Dodge Connolly AEBetako amerikar futboleko izarra da, eta kirol hori gehiago zabaltzeko lanean dabil. Lexie Littleton kazetaria ezagutuko du.

**An American crime** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Tommy O'Haver. Aktoreak: Catherine Keener, Ellen Page, James Franco.
98 min. 18 urtetik gorakoendako.
1965ean, 16 urteko Sylvia Likens hilda topatzen dute Indianapolis hirian. Hiltzailea Gertrude Baniszewski izeneko emakume bat eta haren semeak izan dira.

**Pretextos** **
Espainia, 2008. Zuzendaria: Silvia Munt. Aktoreak: Silvia Munt, Alex Brendemühl, Laia Marull.
90 min. 7 urtetik gorakoendako.
Geriatriko bateko mediku bat eta antzerki zuzendari bat ezkonduta daude, elkar maite dute, baina ezin dira batera bizi.

**El increíble Hulk** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Louis Leterrier. Aktoreak: Edward Norton, Liv Tyler, Tim Roth.
114 min. Denondako.
Bruce Banner zientzialaria *Hulk* bihurtzen duten gamma izpien efektua osatzeko modu baten bila dabil.

**Sexo en Nueva York**
AEB, 2008. Zuzendaria: Michael Patrick King. Aktoreak: Sarah Jessica Parker, Kim Cattrall, Kristin Davis, Cynthia Nixon.
148 min. 13 urtetik gorakoendako.
Carrie Bradshaw idazlea eta bere hiru lagun minak New Yorken bizi izaten eta amodioa eta lana bateratzeko arazoak izaten jarraitzen dute.

**Antes que el diablo sepa que has muerto** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: Sidney Lumet. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei, Albert Finney.
123 min. 18 urtetik gorakoendako.
Andy enpresaburua da eta Hank, haren anaia, diru premia larrian daude. Halako baten, gurasoek New Yorken duten bitxitegia lapurtzea erabakitzen dute.

**Aritmética emocional** ***
Kanada, 2007. Zuzendaria: Paolo Barzman. Aktoreak: Susan Sarandon, Gabriel Byrne.
100 min. 7 urtetik gorakoendako.
1945ean, Jakob Bronskik anai-arreba batzuk babesten ditu Drancyko kontzentrazio-esparruan.

**nire aukera**



**Onintza Berasategi**
Turismo bulegoa
Bergara

## "Asko gustatzen zait itsasaldea"

Asko gustatzen zait itsasaldea, eta portutik ibiltzera joaten naiz asteburuan. Bilbokoa naizenez, itsasoa gertu daukat. Lagunekin egoteko ere aprobetxatzen ditut jai egunak. Udako jaiak asten direnean, herrietan zehar ibiltzen gara lagunak, eta Bilbokoak direnean, noski, Bilbon irteten gara.

Normalean, domekan bakarrik ixten dugu bulegoa, eta egun horretarako egiten ditut planak. Aurrekoan, Landan egon nintzen egun pasa. Plan ona izango litzateke, jai daukadan asteburu batean, landetxe bat hartu eta kanpora joatea.

**Turismoa egitea gustuko duzu?**
Bidaiatzea asko gustatzen zait. Erresuma Batuan eta Frantzian lanean eta bisitari moduan egon naiz. Kanpoko ohitura eta kultura berriak ezagutzea oso polita iruditzen zait. Normalean, oporren hasieran bulegoetara noa informazio bila.

**Gomendatzeko leku bat?**
Frantzia asko gustatzen zait, Paris ingurua, Bretainia eta Donibane Lohitzune, Biarritz... Hegoaldeko kostaldea asko gustatzen zait. Parisek asko eskaintzen du kultura aldetik, eta Bretainian amildegi asko daude; oso polita da.

**Nora bidaiatuko zenuke?**
Mexikora eta Siziliara joateko gogoa daukat. Baina denbora eta dirua behar da horretarako. Uda honetan, Parisera noa.

**Zein da Bergarak duen gauza erakargarriena?**
Turistek ondo ezagutzen dute Bergarako Besarkada. Udaletxearekin, jauregiekin eta dorretxeekin liluratuta gelditzen dira. Niretzako, alde zaharra da erakargarriena; harrizko etxeak ederrak dira.

**Bestelako zaletasunik?**
Kirola eta musika. Kontserbatorioan hasi nintzen 6 urterekin. Balleta ere gustatzen zait. Bestalde, mendira joatea oso gustuko dut.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-06-20

# Uxue Barrena, azkarrena

**BITAN IRABAZLE** Gaztetxo oñatiarrak II. Gipuzkoako Karting Kopa irabazi du bigarren aldiz, nesken mailan

**250 PARTAIDE** Olaberriako karting zirkuituko txapelketan, 13 eta 16 urte bitarteko 250 umek parte hartu dute

**AZKEN POSTUTIK** Azken postuan irten bazen ere, hamabost itzulitan aurkariak atzean utzi zituen Barrenak

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

II. Gipuzkoako Karting Kopako irabazlea debagoiendarra da nesken kategorian: Uxue Barrena gazte oñatiarra azkarrena izan da aurten Olaberriako karting zirkuituan izandako finalean. Kopa horretan 13 eta 16 urte bitarteko 250 neska-mutikok parte hartu dute.

Bigarren aldiz irten da aurten Barrena txapelketa horretako irabazle. Joan den urteko eta aurtengo lasterketen artean, baina, alde nabarmena egon dela igarri du oñatiarrak; izan ere, iaz mutilekin batera lehiatu behar izan zuen. Aurtengo norgehiagoka, berriz, nesken artekoa izan da. "Aurreko urtean neska gutxi ginen eta mutilekin egin genuen. Neska askorik ez zegoenez, ez nuen konpetentzia handirik izan", azaldu du.

Oñatiarrak kopa hasi zenetik egindakoa azaldu digu. Izena eman ostean, beste partaideekin batera, klase teorikoak jaso zituela dio: "Kurbak nola hartu eta frenoa non erabili behar genuen azaldu ziguten, besteak beste, han". Jarraian, kartean igo eta zirkuituari buelta eman zioten. Proba horretan denbora onena egin zutenak finalerako sailkatu ziren. Mutiletan, hamazortzi eta nesketan, sei.

**POZIK EMAITZAREKIN**

Ez zuen espero aurten bigarrenez irabaztea: "Entrenamenduetan euria egin zuen eta nahiko denbora txarra egin nuen. Lasterketan azkena irten nintzen". Oñatiarra, baina, fin ibili zen eta hamabost itzuliren ondoren, lehena iritsi zen helmugara. Oso pozik dago egindakoarekin.

Oraindik erabakitzeke du datorren urteko Gipuzkoako Karting Kopan parte hartuko duen edo ez: "Antolatzen badute, akaso izena emango dut. 15 urte ditut eta datorren urtean oraindik parte har dezaket".

Urtean zehar kart zirkuituetara ez dela joaten jakinarazi du Barrenak. Gaineratu du, baina, egunen batean lagunekin joatea gustatuko litzaiokeela.




**GORENEAN** Uxue Barrena podiumean; Ane Romero, Sara Egibar, Andres Vilariño eta Iñaki Ugarteburu ondoan dituela. GOIENKARIA

## ahobero

### "Telebistaren momentu garrantzitsuenetan egon naiz; albistegia egitea bakarrik falta zait"

**Ana Garcia Obregon** > Aktorea

Lanbide asko dituen emakume hori egunero azaltzen da arrosa koloreko aldizkarietan eta programetan, horrelako tontokeriak esateagatik. Esandakoak sinistuko al ditu Garcia Obregonek? Sinistu ala ez, espero dezagun albistegia egiten inoiz ez ikustea.

## iturri onetik

### Oskorrik kontzertua eskainiko du uztailaren 18an Oñatiko kiroldegian

Oskorri taldeak, Banda Band izeneko biraren barruan, kontzertua eskainiko du Oñatiko kiroldegian datorren uztailaren 18an, herriko musika bandarekin batera. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

Sarrerak aldez aurretik eskuratu ahal izango dira datorren astetik aurrera, kultura etxean. Hamar euro balioko du bakoitzak. Leihatilan, berriz, hamabi eurotan egongo dira.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Eguraldi kontuak

Duela lauzpabost urte sekulako uda beroak egin zituen. Eta orduan klima aldaketaren gaineko hipotesiek zioten eguraldia tropikoetatik poloetara ari zela mugitzen. Beraz, labur esateko, guri zetorkigula Errioxako klima. Pentsa nolako albiste ona zen hori mahatsa sartu berria nintzen honentzat!.

Baina gutxi iraun dit zorionak. Azken hiru urteetan udaberri erabateko txarrak egin ditu, juxtu mahatsondoa loretik frutara ari denean. Eta gorrinarekin sekulako sustoak hartu ditugu, eta borroka galantak egin behar izan, azkenean emaitza erdipurdikoak lortzeko.

Aurten ere kaltea egina dago. Ea loteriak zer dakarkigun Sanmigeletan! Bide batez, nire elkartasuna errioxarrei. Haien sanoa guri etorri partez, gure gorrina joan baitzaie hara.

## ai, ene!



### Lego pieza handiekin altzariak egin daitezke

Askotariko koloreko Lego pieza erraldoiak saltzen hasi dira dagoeneko. Etxeko hainbat altzari egiteko aprobetxa daitezke.

www.nopuedocreer.com

